



Euskerazaintza

Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

LXXIII Zenbakia • 2014. urtea-1

Euskalerriaren edestia I

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-
nentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu
zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta
gure erantzuna au da: “Len”,
oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmo-
rik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo
ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak
“laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da
gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta
gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30
euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure
kontuen zanbakietan.**

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: 0182-1296-00-0201538669

KUTXA:2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena

(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK

www.ibegrafik.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

<i>Lortutakoak eta lortzekoak</i>	7
<i>Atarikoa</i>	8

Euskalerrriaren Edestia

1. Zatian

<i>AURKEZPENA</i>	11
<i>Itauna eta Erabagia</i>	13
<i>Idaz-lan onen aldizkariak</i>	13
<i>Idaz-lan au egiteko, noren laguntza artzen dodaz</i>	13

2. Zatian

<i>1. Sarrera</i>	17
<i>2. Omo-Sapiensen ta aurreko Neandertal gizakia</i>	19
<i>2.1. Europa sortzen</i>	19
<i>Omosapiens edo Kromañoien sorkuntza</i>	19
<i>3.1. Goi-Paleolitiko Aldia</i> :	19
<i>4. Zer diñue jakitsuak gaur Euskalerrriari eta Europari buruz ?</i>	20
<i>4.1. Barandiaran eta Aierbetar On-Joxemiel Jaunak</i> :	20
<i>4.2. Altunatar Jesusek</i> :	20
<i>4.3 Wennemanntar Teo, germaniar ele-jakintzaren maixua, Fostertar Peter, Kanbridgesko ikastetxe nagusian genetika ren irakaslea, eta Ameltar Elisabeth berrien idazleak</i> :	21
<i>Orren frogagarri batzuk</i> :	21
<i>4.4. Zubiaga ta Legarretatar Felixek</i> :	21
<i>4.5. Mikel Iriondo giza iztilariak(1)</i>	23
<i>4.6. Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak</i>	23
<i>5. Asia eta Europan, Omosapiens edo kromañoien orubea ta antolakuntza</i>	23
<i>5.2. Oar txiki bat</i>	24
<i>6. Omosapiensen bizitzan, antolakuntzaren arlo-ezbardiñak</i>	25
<i>6.1. Omosapiensen giza Europan sartu eta ugaritzen asi zanetik: senditasuna, izkuntza, legeak, erlijioa eta gizarte artean ardurazko artuemonak</i>	25
<i>6.2. Senidetasuna</i>	26
<i>Oar txiki bat</i>	26
<i>6.3. Izkuntza</i>	26
<i>6.4. Izkuntzari begira, jakitsuak esaten dabena</i>	27
<i>6.5. Zer izango ote da Euskerea, Euskaldunentzat ?</i>	28
<i>6.6. Zer esan nai dau Indoeuropeotu-baga orrek ?</i> :.....	28
<i>Indoeuropeotu-baga orren arrazoia</i>	29
<i>Oarra</i>	29
<i>6.7. Euskereak, zelako irudiagaz itxuratzen dau Euskalerrria ?</i> :.....	30
<i>6.8. Euskerea zer dan ez-dakienengaitik entzuten doguzenak</i>	31
<i>6.9. Euskereak daukan adierazpenaren mailla aundia</i>	32
<i>7. Erlijioa</i>	33

7.1. Omosapiensen antziñeko erlijiozko aztiketa edo sorginkeria.	33
7.2. Euskaldunen orduko erlijioa eta izkuntza.	34
7.3. Sorgiñak, gezurrezko ipuiak, zitalkeria edo ta zantzailkeriak gure Euskalerrian.	35
7.4. Eta emem Iriondotar Mikelek arrazoiz esaten dauana:.....	36
7.5. Oar txiki bat.	36
8. Legeak.	37
8.1. Euren senidetasunezko izkuntzagaz, erlijio ta legearekin, aberri batekoak lez senditzen ziran ?.....	38
8.2. Nun, edo nungo zabaltasunean bizi ziran Euskaldunak, Paleolitiko Neolitiko eta Eneolitiko aldian ?.....	38
8.3. Jakintsuen esanetan, ori da: Aurreko jendekuntz-galdua dana?.....	38
8.4. Mundu zabalean, Euskal toki izenak eta itzak.	39
8.5. Afrika, Asia ta Europan:.....	39
8.6. Krutwigtar Federikok esaten dauana.	40
8.7. Italian Euskerazko toki izen eta itzak.	41
8.8. Elxpururentzat:	41
8.9. Emen, derrigorrezkoa da aitatzea.	42
8.10. Alpeseko errietan euskal mitolojian bezela, antzeko gauza asko daukiez artean.	42
8.11. Eskozia, Gales, Irlanda ta Ingalaterran Euskerazko toki izenak:	43
8.12. Kaukasoan:	43
8.13. Bereber inguruan:	43
8.14. Karl Bouda aleman euskalaria, eta errusiaren izkuntzako berarizkoak, esaten eban.....	43

3. Zatian

1. Aurkezpena.	44
1.1. Sarrera.	45
Eneolitiko, edo denbora iragankorra azkeneko arri-alditik, tupiku edo Menast-eko aldiraiño.	45
1.2. Emen, 2.010ean karmeldarrakin Israelera txangolari joanda Karmelo mendia ikusten joan giñanean, Negreltar Franzizko edo Pako karmeldarrak esan euskuna.	46
2. Ekialdeko jendekuntza, eta zelan asi ziran menpekotasunak.	47
2.1. Asia, Afrika, eta Europa'ko gizartearen leen jendekuntzak.....	47
2.3. Ejiptoren edesti laburra.	49
2.4. Greziaren edesti laburra.....	52
2.5. Etruskoaren edesti laburra.	54
2.6. Europan, Ibero edo ta Tartesoren bigarren txandako agerkera egongo ote zan ?.....	55
Oar-txiki bat, batzango edo menperatzailetasunezko s zerbitzura dagozenai.	56
2.7. Tartesoen ostean, Turt, Turdetano edo Turduloen agerpena.	58
2.8. Europako hurraren zabalkizunera, indoeuropeotarren etorkizuna.	59
Oar txiki bat emen.....	59
2.9. Keltiaren etorkizuna.....	60
2.10. Nortzuk ziran keltiarrak ?.....	60
2.11. Keltiarren agerkera.	61
Oar txiki bat.....	62

4. *Zatian*

1. <i>Aurkezpena.</i>	64
1.1. <i>Sarrera.</i>	65
1.2. <i>Erromatarren sorkuntza, kartajines aurkako borrokak, ta euskaldunak aldebiekaz euki eben artu emona.....</i>	67
1.3. <i>Erromaren sorkuntza.</i>	67
1.4. <i>Oarra.....</i>	68
1.5. <i>Igo guda Punikoak.....</i>	69
1.6. <i>IIIn guda-punikoak.</i>	71
<i>Mazedonioaren aurkako bigarren gudaldiak.</i>	74
<i>K.a.172ko urtean, Mazedoniaren aurkako irugarren guda taldeak asten dira.....</i>	75
1.7. <i>IIIIn guda punikoak.....</i>	75
<i>Oarra.</i>	80
1.9. <i>Igo atal onen ondorioa.....</i>	86
<i>EUSKEREA.....</i>	87
<i>Mundu onentzako, persak euki ebezan menperatzailetasunezko asmoak:.....</i>	90
1.11. <i>Fenizia´ren aurkezpena.....</i>	91
1.12. <i>Berez sortua = Jaiotza = Aberria</i>	93
<i>Sarrera:.....</i>	93
<i>Berez sortua:</i>	94
<i>Jaiotza:.....</i>	94
<i>Aberria.....</i>	94
1.13. <i>Euskalerrian.....</i>	95
1.14. <i>Askatasuna.</i>	95
<i>Sarrera.....</i>	95
1.15. <i>Legea.....</i>	96
1.16. <i>Demokrazia:.....</i>	96
1.17. <i>Askatasuna.</i>	96
1.18. <i>Gizartearen eskubideak.</i>	97
<i>Sarrera.....</i>	97
<i>O.N.U.....</i>	97
1.19. <i>Eskubideak eta Legeak.....</i>	97

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: 0182-1296-00-0201538669

KUTXA: 2101-0200-46-0006681589

Euskerazaintzaren Erakundean

2.013ko urtean lortakoak eta 2.014ko urtean LORTZEKOAK

Aurreko urteetako batzarretan izan dogun oitureari jarraituz, gaurko nire idaz lan au gauza bi adierazteko izango da: Joan dan urtean zer egin dogun eta 14koan zer egin bear dogun.

- Bi milla ta amalagarren urtean gagoz.
- Epaillak ogeitazazpi daukozala.
- Urtero lez, gure lanen aleak batuteko garaia eldu jaku.
- Begiradatu bat egingo dautsogu batutako orreri.
- Lenengo ta bein, egin doguna ikusi eta gero zer, zelan jokatu geinken aurrerantzean.
- Beti be gauzak ondo egotetik, obetu gurean.

LORTUAK:

Euskerazaleak Alkarteak daukan etxean illeroko Batzarretan osotu dogu alkar lana geuk geure eralkietatik erdiak ordainduz.

Euskerazaleak-Alkartean gugaz egon diranak betiko antzera doaz.

Atutxatar Paulok bete dau Batzarreko idazkari lana gure agiritegian zaintzen da.

Urtean bitan argitaratzen dogu EUSKERAZAINTZA aldizkaria eta aurten be alantxe egin dogu. Gai sakon eta naiko luzeakaz osotuta.

Gauza bat esan bear dogu. Ezin dogula luzatu Aldizkaria 100 orrialdetik gora. Arrazoi bigaitik: Bidalgoa askoz garestiago litzakelako batetik, eta bestetik ez litzakela sartuko daukoguzan eskutitz azaletan.

Alan da be esan bear 100 orrialde gitxitzat jotzen dogula.

Interneteko lana be aitu bear dogu. Lan bikaiña zailantza barik.

Or agertzen doguz EUSKERAZAINTZAREN aldizkari guztiak.

Kardaberaz´en bilduma, Arrinda´tar Anes´en idazkiak eta liburuak, San Sebastian ta Zubillagatar Jose Marik (Latxaga) idatzi dauzan liburuak eta Umandiren Asmo Iztegia iztegitintzan sartuta daukaguz, eta 2.011´n Gabirelen idaz-lanak be sartu genduzan.

Bilbaoko Foru Aldundiari diru laguntza eskatuaz.

Eta Euskerazaleak Alkartearen izenean, idazle askoren liburu ta idazkiak sartuta daukoguz. Esate baterako: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Bizente Latiegi, Iñaki Zubiri, Martin Olazar, Paulin Solozabal, ZER eta Euskerazaintzaren aldizkariak eta abar.

Lan aundia da emen egiten dana. Aldundiaren laguntza be oso ona da.

Sartu doguzan idazkiak sartu doguzelako, mundu guztian lenengoak gara arlo onetan 80.000 biztale baiño geiagorekin eta Euskerazaleen biztanleak 500.000tik gora direzela.

LORTZEKOAK:

1º.- Euskerazaintza Aldizkaria ateraten jarraituko dogu besterik esan ezean. Urtean bi edo irutan.

2º.- EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean illero, jagokun illearen eguenean, batzarrek egiten jarraituko dogu.

Batza agirien ardurea Atutxatar Paulok daroa.

3º.- INTERNETEKO lanakaz be jarraituko dogu.

4º.- Gure Batzarra, ontzat dago artuta Eusko Jaur-laritzan.

“Euskalerriko Edestiaren” “I’go atalaren” “Atarikoa”

Irakurle maiteok: Ona emen zuen eskuetan aurten agertuko diran Euskerazaintzaren bi zenbakietatik lenengoa, LXXIII’ko zenbakiagaz argituko dana.

Aurkezpen onen sarrera.

Lan onen eritzi bat eukiteko, nire lagun aundi bat dan Garate´tar Felipe karmeldarregana joan nintzan, eta onek irakurri ta gero, asken orrialdeako be aldien, auxe ipini eban:

-Alegin ikaragarria egin dozula argi dago.

-Dana ez da izango dogma edo sinesgaiez onartze-ko tesia, baiña ordago bat da, dana eskuz jokutzen ibili dirinei.

Beren erantzuna artu ondoren, atari onen aurkezpena, berari emotea erabagi neban, eta au da berak erantzun dabena:

Aurkezpena.

-Asierako denboratik gaurkorarte jorratzen dauz kondai-ikertzailleak (Paulok) gizakiaren sorre-
ra, zabalkuntza, antolakuntza, ugaritzea mun-
duan..., eta zelan senditasuna, izkuntza, legeak,
erlijioa, dana loturik, euskalerriko euskaldunak
aberri batekoak lez senditzen ziran.

-“Jaiotzatik doguzan lege berezkoak dira, arrazoi-
tasunezko arimak izateko... Egilleak bereiztutako
legeen orokortasunetik artuta... Bai, baita naiz
greziar izan, naiz kretiak, naiz kaukasotar, naiz be-
reber, naiz keltiar, naiz feniziar, zoritxarrez mun-
duko jauntxo biurtuta gizadietan zear, ez dago
iñor besteen menperatzaille izateko eskubiderik
daukanik.

- Gure izkuntza zarrean sinistu ta biziz, euskaldu-
nak gizartearen sostengu eta eredutzat artu al izan
dira, bideak eta joan etorriak eginez munduko lu-
rralde, itsaso, ibai, basamortu, mendi zein arane-
tan ibiliaz.

- Edestiaren kritika onen bidez, alegin onegaz, Pau-
lok ziurrezko barri ugari ezarri dauz, eta “ainbeste
gerizpe aundiak” gerizpetik argitara eroan, baita
astindua emon ain ziurtzat bota diran okerreko
egi maltzurrezko batsuei.

Bejon deizula. Zure lagun batek.

Barroeta´tar Klaudio klaretiarra eta Euskaltzaindiaren
lendakariagaz berbetan, nik lan onen ataria edo aur-
kezpena egiteko, irizpide zorrotzagoak bear nebazala
esan neutson.

Klaudiok baiña, saio onen irizpidea egizko edo ego-
kitasunezko erantzunean ezartzeko, edestilari baten
eritzia bear nebala erantzun eustan.

Eta aburu orrek, ez eban euki erantzunik:

- a) Nik, nire bizitzazko billakaritasunaren eten-
bageko ekintzan arik eta 1.979ko urtean
Onaindia´tar Aita Santigaz asi nintzanetik, ez
dodazelako euki artu emonik iñungo edestila-
riarekin, gure Goi-Maillako Ikastetxearen Na-
gusienetatik artu dodazan azterritik kanpo.
- b) Baita, 35 urte onetan, Aita Santiren bidetik,
ekandu, eraman ona eta oiñarrizko ikas sako-
netatik oiñarrituta geratu nintzanetik, eten-
bageko autakuntza bidetik irakurri dodazan
ainbeste liburu oraiñaldiko argibide barriekaz,
alboratu barik, gizarte arteko egunero sortzen
diran barriak.

d) Ez da makalagoa, nire langintzarako maristetan artu nebazan ikasketatik tresnarien egilletasuna.

Or sartzen garalako danak, mundu onetan Jaungoikoaren legez eta danok bardiñ, daukagun asmakuntzaren bakarrezko kundetzaille edo eragilletasunean izateko almen bakarra.

Naita mundu onetan gure serbitzurako dan gaiaren edozein gauza, atomo, iski edo pizkin bakoitzaren almenak amaibakoak izan arren, danak euren ekintzan Jaungoikoagandik daukien izatea eta gure ordezkarietzako on arduragaz bideratuta, munduko errigizarte guztien ekanduzko orekatasunak lortu dagiguzan almenduta dagozelako.

Ikusi bestela txarto erabilia zelango eztrandak egiten dabezan, nai gizarteetan eta bai, gai arteko ekintzan.

Dana dala, ikasketako lan bide-saio onek, Euskalerriko edestiaren askeneko lan onen argitasunezko azalpena ekarri eustala esan leike, eta Arostegi tar Luise k Aita Santi Onaindia ri, VI In Euskal Elertiarren atala amaitu barik eukenean esaten eutson lez: beltxarga edo lepazailluak bere asken eta ederrenetariko abesti edo kantu lez, amaitu bear ebala Euskal Elertiarren VI In atal ori.

Orregaitik mundu onen arrazoidunezko gizakiak izanda, eta Jainkoak gai oneri bereztu eutsozan legeak, guretzat arduraz egiten dogun gauza gustiarentzat lege bardiñean erabili bear doguzelako.

Gogora ekarten doguzan egitamuzko lan guztiaren aurrean egin beargeunken lez, antzerki onetarako aur-

keztu bear doguzan antzezlarien bizitzakaz, aurkezten dodaz zeintzuk diran lan guztiaren oiñarrizko baldintzak, euren denborako giroan.

Mundu onetan, eta gu "gizakitutakoak" sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egiten doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuta ta danontzat bardiñak diran legearen baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardurara andiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear direnak bizi garan serbitzurako; bestela egiten dogun guztia, oker, ankazgora, zentzubage ta neurrian edozein gauza urtengo leukelako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur sortzen jakun lez, orekak leku guztietatik galdu ostean.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak kontuan artu bear dituzenak gauza guztietan, eta ardurara bardiñakin, diruaren antolaketak egiten dabezenean.

Gaiak, beren ludi irudiaren izaerarako, daukazan mukulluak orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, bere eraikitasunean mukullu artekogintzan daukien erakarrezko indarra, eurak osagarritasunezkoak izan zitezken legea da, eta gurentzat eragilletasunezko bizi-tresneri bat.

Orregaitik, "bear bearrezko ordezkarietan jaioten garan guztien zorreskubideko ardurak bardiñak izanda, ludi onek daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritakoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, zeregiñ bardiña daukagulako".

Eta egiten doguzan gauza guztiak Jainkoari begira, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, bide orreitan



eraikitako sendi, etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik dira oiñarri lez ipini bear doguzanak, bizitza onetan askatasunezko orekan irautea gura badogu.

Danon lotsagizunezko ardureak bear doguzelako ortik aurrera, gizaren bizitza onen egitamuak zentzuz gauzatu eta alkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bi-deak, orekazko zentzun baten eroan dagiguzan.

Guzti orreik kontuan eukin da, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailetasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez **“uts egin barik”**.

Gaurko politikuak, gaiaren eta gizaren legezko eskubideak ez dabezelako oiñarritzen, agindu egiten dabezan gauza guztietan sortzen dan entrabalotasunezko indarragaz, gaigizaren ekintzazko arlo guztien eragipenezko emaitzak agertzen dira ezinezko uler baten, nastuta lez.

Gaiaren orekan: itsas erreka urak eta mendi, lur, aizeak zikinduta.

Eta gizaren arloetan: lan eza, lapurtza, negarra, gosea, arloteria, gaitzaldi, elde edo izurritea, onbearra, txirotasuna, eriotza, borroka, aitu eziña, ta arduragabekerizko itsutasun aundi baten.

Bizitzeko egiten doguzan gauzaren mozkiñ guztiak, batzango edo agintari zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda indarrezko keiñada gogorak erabilita, nai gai edo ta danon giza eskubidearen ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, osterara guri beartzeko baiño eurak gura daben eratara betetea, eten gabeko menperatzaile ekintza baten.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran, osterara bizitzarako bear zan guztia eraikita, euren poltzilluak beti berriz beteta eukiteko.

Baiña gaur beste olango borroka bateri eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzurrezko guzurak eten barik gero ta indar geiagorekin argitzen dira, eta orain 1.687 urte bereztasunaren aurka Nizean asmatu zan batzangotasunaren **goitik berako agintaritzaren gizagorputza ori, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.**

Zergaitik ?.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeekin beartuta agertzen gara lez, argi erakusten jaku:

A) Osagarritasunezkoak garela jaioten garan guztiak.

B) Kundeatzaile edo gai onen eragilletasunerako jaioten garela.



D) Gure eragilletasunean kontuan artu bear dituguzela ezereen aitzakia barik, gai ta giza guztiaren eskubideak, bakoitza, talde, leiñu, edo ta errigizarteak euren bereztasunezko aztura bidetik izkuntzagaz batera, oituran sortu ebezan nortasundutako bereztasunak.

E) Asmatzailearen almenak bakarrik eukinda, gure almenean ez dauelako iñungo izatasunik: **“irazole, sortarazle edo eta sortzailetasunezko arloetan”**, gure norkerizko alegiñetan, iñorentzat ezereen legerik egin barik, alegiñ guzti orreik Jainkoaren legeditik artu bear diranak dira, euren kanpotik lege guzti orreik, menperatzaileak biurtzen diralako,

F) Ala... mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

On egin dagizueta ba, Euskalerrria ta mundu edo Europaren azterkuntza bidetik nere ustez eta menperatzaile maltzurzasunezko egilletasunetik kanpo, berezko egiaren ulermenean argitu gura dodan orokorrezko edesti au.

Atutxa'ar Paul





1. Zatian

AURKEZPENA.

Urteak aurrerantza eta nor-beren oroimen, gogo, oldozmen edo ta buruan erabilteko gaitasunak berantza doazenean, nai-ta oraindiño asko igarri ez arren, nire Etxe-Nagusi edo ta Euskalerrriaren askatasunezko eragozpenari, ainbeste ikertze lan eginda gero, itandu bat agertzen jat zital, nere oldozmenaren susmo edo gogaketetan:

Orain zer egin ?. Ez da itaun makala.

Urte batzuk badira, jakin nebala zelan 325eko urtetik ona Nizean, Jainkoaren izenean erabagitu zan Erromatar kaisartza, eta edesti guztitik iraingarri⁽¹⁾, zelango odol-jariozko kalteak ekarri euskuzan, guda-indarrez *katoliko-menperatzail batzangoaren* asmo orreik ezarri naian.

Zergaitik ?:

Jainkoa Berak, izadi oneri bereztu eutsoezan legeakaz, bereiztasunezko askatasunez sortarazi eban gizadiari, eragilletasunaren arduradunezko almenagaz izateko irasi euskulako. Ludi onek daukazan berezko legeakaz, esaten dauan lez.

Eta gizarte orreik berezko eta bereiztasunezko aztura-bidean nortasundutako erriak jaio ba-ziran, guztiz aurkakoak dira norkeriz, errigizarte ezberdiñ orreik indarrez alkartu edo batzangotzea katolikotasunaren alderdikeri orreitan, berezko legearen kanpoko dalako.

Orregaitik gaur, lateritutako Mundu ta Europa onen aleman, italiar, espainiar, frantzez eta abarrezko gogoetan, gudaren arau-bidez gaiñean daukaguzan kaisartzazko arrano aundi orrein eraso zital gogorrari aurka egiteko, berezko errigizarte lez alegiñ aundiak egin bear doguz, Jaungoikuak ipinitako Legeakaz bizirik iraun gura ba dogu.

Zer egin ?:

Alde batetik: gure Euskalerrriko biziaren aurka dagozan alegiñak gelditzeko, zentzun aundiko egiak edo ta edestiaren ziurrezko barri ugariak bear doguz.

Bigarren: *erromatar katoliko-merkantil kaisar-menperatzaill* arrano aundi orrek norkerizko guzurragaz ainbesteko gerizpe aundia egiten dauan lez, eskubidearen argibide guztiak biztuta bear doguz zalantza barik, eta artean gure *Euskerazale eta Euskerazaintzaren alkarteak* daukiezan aldizkariak beste askoren artean bear dira, Euskalerrria, abertzaletasu-nezko sugar eta zuurtasunezko argi-barik geratu ez daiten.

Irugarren: Gure euskerazko gorputza gaztelanizatu ez daiten egin, gaur gure arteko alperkerigaitik igarri barik egiten gagozena, euskal-senari laguntzeko, euskereagaz arduratu ta zaiñ egon, gure aurreko jakitunak egin eban lez: erriko jakitun-en-batzar edo bazkun-antzerira irasi ebazan *euskerazale, kardaberaz* edo ta euren ondorengo jaio zan Euskerazaintzazko talde lakoak bear dogu-

(1) *Iraingarri = muy ofensivo.*

zelako, ardura orreik Euskalerrri osoarenak izan da, Euskaltzaindiak bera bakarrik ezin dabezelako eroan.

Danak elburu bakar eta batera baiña, buruan kiriotzaren⁽¹⁾ amaierak, euren bat egiteko alkartasunean egiten daben antzera.

Gaur zoritxarrez, Gaztelera ta Frantzez izkuntzak gureak be badirala entzuten dogu, eta ez da olan inñundik inñora begituta be.

Adibidez:

Gaztelera, orduko Burgos ta Kantabria bitarteko euskaldunen artean, eta erromatarrak ekarri eben menperatzailezko latíñakin, euren artean indarrez edo gudaz mende aituteko sortu zan latin kumezko mintzadar bat baño besterik ez da, Asturiasen bable, Nafar ego aldean ta Aragoi ipar bitartean nafar-aragonesa eta gaurko katalana sortu zan lez, Afrika, Asia ta Europa osoan sortu ziran antzera.

Latiñ kume orreik ez ziran izkuntzak, euren arteko arazoetatik urteteko, mendeko indarrean beartuta sortu ziran zentzunbako mintzadar batzuk baiño, besterik ez.

Beste gauza bat da, Erromatar-menperatzaileak katolikotasunezko latíñean batzeko, berezko erriaren izkuntzak ezereztuteko ibili ebezan leentasunak, eleiza onek 2.000 urtetan latíñ eta latin-kumeak erri-izkuntza lez beartu, berezotasunean sortu ziran azturazko mintzoerak debekatuta, gure edestiaren azalkean argi guztiagaz agertuko dana.

Izkuntza, leiñu edo erri batek bere oiturazko askuntza bidean ulermentzeko, sortzen dauan tresneria da, eta ez edozelakua, euren senezko tresneri biurtzen dalako.

Euskerazko azturán, gure bizitzazko *euskaldun ama* izendatu gendun, eta beren izena artuta, *euskal-nortasunezkoak* biurtu ginduzan.

Euskerea, euskal nortasuna da ba, gure sen ta sendiaren arduradunezko ardatza biurtu dalako, eta jakituriz eta bakezko ulermenean betetan ba doguz gure azturazko eragilletasunak, urbillago eukiko doguz beste erriak, Jaungoikoari begira gurea lez, bizitza oneri ulermeneko erantzun eder bat emonekuak diralako, eta nortasundutakoak alkartuta ulermendu gaitezen, *gai-izadi* onek bear dauan eragilletasunagaz arduratu bear garela.

Ez dira edozer gauza nortasundutako izaera orreik, ez.

Gure euskal arbasoen azturazko ikasketak izaerazko bidean oituraz, askatasunaren demokrazizko zentzuan lur eta Jainkoari begira egokitu baebazan gauza guztiren izenpetasunak, gure barnean baituta gero, ez dira errez zentzu aundiko irarketa⁽²⁾ orreik gain-marratu edo aienatu egingo, beti gogoratuta begirameneko lots aundiz, gure *lege-zarrak* lez.

Orregaitik dira jendekuntzazko nortasunezkoak, azturaz eta oiturazko bidean egiten diran izkuntzak, eta orregaitik gure Euskalerrrian gaur arteko azturán, arbasoen eginekoak euren oituraren mintzazko senetik gogoratzen doguzanean, gure gogora agertzen doguzan ikasitakoak, euren zentzun ta ekanduzko izatasun ederrenean agertzen jakuz.

Guzti ori eukiko ete dabe, guda indarrez ta menperatasunezko ekintzan sortutako latinkumezko mintzadar orreik ?.

Jainkoaren Legean gauza orreik lortzeko, mundu onen gizadia, gaiak daukan berezko nortasunaren zentzuan ulermenduta lortu bear dituz, eta danon arteko ulermenak parean ezarri ondoren bardinduta, egin bear doguzenak, erabagi onaren erantzunak edo Jainkoaren legezko arrazoi ingurukoak izan dagiezan alegindu bear gara.

Beste gauza bat da, norberaren sasiulermenak beste buruetan sartu gurea, or ez dalako agertzen, ez Jainko Legerik ez ezer, *norkerizko alegiñetatik kanpo*.

(1) *Buruko Kiriotza = conexión sináptica del sistema nervioso en la cabeza y cuerpo.* (2) *Irarketa = impresiones o conocimientos impresos en nuestro saber cognitivo.*

Itauna eta Erabagia.

Zalantza onen artean ibilita, daukadazan lagun jakintsueri itandu neutsien, ia zer izango ete zan egokiena, eta danak: Euskalerraren buruz aurkitzen dozuzan lengo ta gaurko zeaztasunezko argibideak, nai eta luzeak izan arren, ondo zeaztuta idatzi daizuzala *Euskalerraren edesti* lez esan eustien.

Eta erabagi ori artu neban.

Idaz-lan onen aldizkariak.

100 orri edo ale daukazan Euskerazaintzazko aldizkariarentzat, egitamu aundia dan lez, bost edo sei aldizkaritan uste dot osotuko dodala, eta luzetu bear bada, bear diran aldizkaritan azalduko dogu, Jaungoikoaren laguntzagaz.

Idaz-lan au egiteko, noren laguntza artzen dodan.

- **Izkuntza eta edesti arloan idazlari batzuren laguntza izan dot.**
- Zubiaga eta Legarreta Felix *Origen del Vascence*.
- Beragaz egonda, Gazteleraz emon eustazan *Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo*. Eta euskeraz idatzita daukan: *Euskara ermeneutika* liburuetatik artuta.
- Liburu oneik Internetetik atarateko daukan elbidea:
<http://www.todoebook.com/Erroteta/>
- Arrindatar Anastasioren *magia y religiòn primitiva de los vascos*.
- Arturo Kanpionen *Navarra en su vida històrica*.
- Ugaldetar Martinen: *sintesis de la historia del pueblo vasco. Eta iru liburutan idatzi eban: nueva sintesis de la historia del pueblo vasco*.
- Auñamendiren edestiko liburu-bildumatik.
- Gran Diccionario Enciclopèdico Ilustrado *Selecciones Del Readers Digest*.
- Nuñez ta Astraintar Luisen: *El Euskera Arcaico* (extensiòn y parentescos) liburutik be bai, zeaztasun batzuk artzen dodazalako.
- Euzkadi Online: *la primitiva lengua de los antiguos europeos*. Interneteko elbidea:
email@EuzkadiOnline.com
- TOPONOMIA VASCA EN EUROPA
- Prehistoria, de la Universidad Nacional de Educaciòn.
- Anastasio Arrindaren: *los vascos de la magia al animismo*. Eta *los vascos de la caida de Roma al cristianismo*.
- Barandiarantar on-Joxemielen *Euskal-Kulturaren Aitalen*, baita bere lan kopurutik artuta daukazan.
- Latiegitar Bizentek: *Euskal Kristautasunaren Sorkuntzatik asita, daukazan bederatzi liburuetatik*.
- Eta irakurri egin dodazan ainbat liburuetatik.

Idaz-lan onen Antolamendua.

1. ZATIAN.

1. Lortuak eta lortzekoak
1. Aurkezpena
2. Itauna eta erabagia
3. Idaz lan onen aldizkariak
4. Idaz lan au egiteko, noren laguntza artzen dodan
5. Idaz lan onen antolamendua

2. ZATIAN.

1. Sarrera
2. Omosapiensen aurreko Neandertal gizakia:
 - 2.1. Europa sortzen
3. Omosapiens edo kromañoien sorkuntza.
 - 3.1. Goi-Paleolitiko aldia
 - 3.2. Omosapiensen zabalkuntza:
 4. Zer diñue jakitsuak gaur, euskalerrriari eta europari buruz ?.
 - 4.1. Barandiaran eta Aierbetar on Joxemiel jaunak
 - 4.2. Altunatar Jesusek
 - 4.3. Wennemanntar Teo, Fostertar Peter, Hameltar Elisabet. Orren frogagarri batzuk
 - 4.4. Zubiaga ta Legarretatar Felixek
 - 4.5. Iriondotar Mikel giza-iztilariak
 - 4.6. Gandiak, idazle edo asmalari argentinarrak
 5. Asia eta Europan, Omosapiens edo kromañoien orubea ta antolakuntza
 - 5.1. Neolitiko-Paleolitiko bigarreneko erinduaren arrialdia amaitu zanean
 - 5.2. Oar txiki bat.
6. Omosapiensen bizitzan antolakuntzaren arlo ezberdiñak.
 - 6.1. Omosapiensen giza, Europan sartuta eta ugaritzen asi zanetik: senditasuna, izkuntza, legeak, erlijioa, eta gizarte-artean artu-emonak
 - 6.2. Senidetasuna
 - 6.3. Izkuntza
 - 6.4. Izkuntzari begira, jakitsuak esaten dabena
 - 6.5. Zer izango ote da euskerea euskaldunentzat
 - 6.6. Zer esangura dau indoeuropeotu-bage orreik ?
 - 6.7. Euskereak, zelako irudiagaz itxuratzen dau euskalerrria ?
 - 6.8. Euskerea zer dan ez-dakienagaitik entzuten doguzenak
 - 6.9. Euskereak daukan adierazpenaren mailla-aundia
7. Erlijioa
 - 7.1. Euskaldunen antziñeko erlijiozko aztiketa edo sorginkeria
 - 7.2. Euskaldunen orduko erlijioa ta izkuntza
 - 7.3. Sorgiñak, guzurrezko ipuiak, zitalkeria edo zaintzalkeriak gure Euskalerrian
 - 7.4. Eta emen oster, Iriondotar Mikelek esaten dauana
 - 7.5. Oar txiki bat
 - 7.6. Orregaitik salatu bear dogu emen, zergaitik ez garan, munduko gizatasunaren etorki edo guraso ondokuak

8. Legeak
- 8.1. Euren senidetasunezko izkuntzagaz, erlijio ta legearekin, aberri batekoak lez senditzen ziran
- 8.2. Nungo zabaltasunean bizi ziran euskaldunak, Pleolitiko-Neolitiko eta Eneolitiko al-dian ?
- 8.3. Jakintsuen esanetan, ori da, aurreko jendekuntz galdua ?
- 8.4. Mundu zabalean Euskal toki-izenak eta itzak.
- 8.5. Afrika, Asia eta Europan
- 8.6. Krubigwgtar Federikok esaten dauana
- 8.7. Italian, euskerazko toki-izen eta itzak
- 8.8. Elexpuru ´rentzat
- 8.9. Emen derrigorrezkoa da aitatzea
- 8.10. Alpes eta euskal mitologian be, antzeko gauza asko daukiez artean
- 8.11. Eskozia, Gales, Irlanda, eta Ingalaterran euskerazko toki izenak
- 8.12. Kaukasoan
- 8.13. Bereber inguruan
- 8.14. Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran ego-kituta, 1.000.000-3.500´eko arrialdia amaitu zanean eta Eneolitiko edo askeneko arrialditik Tupiki edo 3.500-1.400 urte bitartean sartu orduko ?

3. ZATIAN.

1. Aurkezpena
- 1.1. Sarrera.
Eneolitiko, edo denbora iragankorra askeneko arrialditik, tupiki edo Menast-eko aldiraraiño
- 1.2. Emen, 2.010ean karmeldarrakin Israel´era txangolari joanda, Karmelo mendia ikustera joan giñanean, Pako karmeldarrak zer esan euskuna
2. Ekialdeko jendekuntza, eta zelan asi ziran menpekotasunak
- 2.1. Asia, Afrika eta Europako gizartearen leen jendekuntzak
- 2.2. Asiaren edesti laburra
- 2.3. Ejiptoren edesti laburra
- 2.4. Greziaren edesti laburra
- 2.5. Etruskoaren edesti laburra
- 2.6. Europan, Ibero edo ta Tartesoaren bigarren txandako agerkera egongo ote zan
- 2.7. Oar txiki bat, batzango edo menperatzailletasunezko serbitzura dagozenai
- 2.8. Tartesoaren ostean, Turdetano edo Turduloen agerpena
- 2.9. Europako lurraren zabakizunera; indoeuropeotarren etorkizuna
- 2.10. Oar txiki bat emen
- 2.11. Keltiarren etorkizuna
- 2.12. Nortzuk ziran keltiarrak
- 2.13. Keltiarren agerkera
- 2.14. Oar txiki bat
- 2.15. 1,2 eta 3n zati onen ondorio labur bat

4. ZATIAN.

1. Aurkezpena
- 1.1. Sarrera
- 1.2. Erromatarren sorkuntza, kartajinesaren borrokak, eta euskaldunak aldebiekaz euki eben artu-emona

Erromatarren sorkuntza

Oar txiki bat emen

I'go guda punikoak

II'n guda punikoak

III'n guda punikoak

Oar txiki bat emen

I'go atal onen ondorioa

Euskerea

Feniziaren aurkezpena

Berez sortua – Jaiotza – Aberria

Euskalerrian

Askatasuna

Legea

Demokrazia

Askatasuna

Gizartearen eskubideak – O.N.U. – Eskubide ta Legeak

2. Zatian

1. Sarrera.

Sinistu eziñekoa da, mundu onetako gizartea jakintzan ain mailla aundikoa izan ta kontuan artu ez, guretzat asieraz ko denborak eta gaurkoak bardiñak dirala.

Jaungoikoarena izanda Izadi onen sorraldi au, ludi onek guretzat ez dauka asiera eta amairerarik, ez eta gitxiago gure eskuetan bera ezereztuteko almenik.

Guk, gaiaren arloetan eta gizartearen arremonetan egin geinken guztia, egitarau⁽¹⁾ eta azpiegiturazko⁽²⁾ antolakizunetan erabili bear dogun oitura edo ta ekanduzko iritzietan mugatzen da.

Eta errigizarte artearen ekanduzko arremonetan gaur ikusten doguna, gorrotogarria eta ikusiaz batera naska emoten dauan gauza da.

Mundu onetako **gizakituen** sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egin bear doguzan asmakizuneko egitarauetan, Jainkoak bereztuta ta danontzat bardiñak diran legearen baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementua lez.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura andiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear direnak bizi garan serbitzurako; bestela egiten dogun guztia, oker, ankazgora, zentzubage ta neurrian edozein gauzatan urtengo leukezelako orekak leku guztietatik galdu ondoren, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur gertatzen jakun lez.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak tresneri lez kontuan artu bear dabezanak gauza guztietarako, eta ekanduzko ardura bardiñak diruzko zor eskubidearen arremonetarako, ordezkartzazko antolaketak egokitzen dabezenan.

Naturak, beren Ludi irudiaren izaerarako daukazan mukulluak⁽³⁾, orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, bere irudiaren eraikintzarako, mukullu arteko gintzan daukien erakarrezko indarra, eurak osagarritasunezkoak izan daitezen legea da, ta bide batez gurentzat indar orreik ulermenduta, gure arteko osagarritasunaren eragilletasunerako, garrantzi aundiko bizi-tresneri bat.

Orregaitik, ***Izadi oneitara jaioten garan guztiak zorreskubideko arduran bardiñak izanda, bear-bearrezko ordezkartzan jaioten bagara, Ludi onek daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduraduneko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritzakoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, naturaren antzera, zeregiñ bardiña daukagulako.***

Eta egiten doguzan gauza guztiak Jainkoari begira, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, azturazko bide orreitan eraikitako izkuntz, etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik dira, oiñarri lez ipini bear doguzanak, bizitz onetan askatasunezko orekan irautea gura ba dogu.

Danon lotsagizuneko ardureak bear doguzelako ortik aurrera, gai-gizaren bizitza onentzat egiten doguzan egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta elkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroan bear doguz.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailetasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez ***ziurtasun guztiagaz.***

Gaurko politikuak, gai eta gizaren eskubideak, ez dabezelako oiñarritzen, agindu egiten dabezan gauza guztietan, sortzen dan entrabaloaren eragipeneko indarragaz, gai giza arloetan dana agertzen da nastuta lez.

(1) *Egitarau = proyecto, regla, método.* (2) *Azpiegitura = infraestructura, subestructura, parte inferior, base o cimiento.* (3) *Mukulluak = polvo, átomos.*

-Gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

-Gizaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gosea, gaitzaldi, elde edo izurriteak⁽¹⁾, eriotza, borroka, aitu eziña, eta arduragabekerizko itsutasun aundia.

Bizitzeko egiten doguzan gauzaren mozkiñ guztiak, batzango edo norkerizko agintari zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda-indarrezko keiñada gogorrek erabilia, nai gaiaren edo ta danon giza-eskubideko ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratara betetea, eten-bageko menperatzail ekintzan.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bear zan guztia eraikiten, euren poltsikoak beti berriz beteta eukiteko.

Baiña gaur beste alango borroka bat egiteari, eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzurrezko guzurrak eten barik gero ta indar geiagorekin argira igoten dabe, eta orain 1.687 urte bereztasunaren aurka Nizean asmatu zan batzangotasunaren goitik berako agintaritzaren giza-gorputz ori, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.

Zergaitik ?.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen garean lez, argi erakusten jaku:

- a) Osagarritasunezkoak garala jaioten garan guztiak.
- b) Kundetzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garela.
- d) Gure eragilletasunean orregaitik, gai ta giza guztiaren eskubideak **kontu aundian artu bear dituguzela ezeren aitzakia barik**: banaka, talde, leiñu, edo ta errigizarteak euren bereztasunezko aztura bidetik izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereizkotasunak, nai banaka edo ta errigizartearen arteko ulermenean bereiztasun bardiñetan sartuta, danak eskubidedunak diralako.

Eta gorputz ta izkuntzetan egoten diran bardiñ-ezak, bakotxa, auzo, leiñu ta errigizarte lez, bakardadean bizi dan toki-inguruak emoten dausielako da.

- e) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure almenean ez dago iñungo izatasu-nik: "irazale, sortarazle edo eta sortzailletasunezko arloetan".

Orregaitik, gure zentzunezko alegiñetan, iñorentzat ezeren legerik egin barik, alegiñ guzti orreik, Jainkoaren legeditik artu bear doguz, euren kanpotik lege guzti orreik, norkeriaren menpekotasunetan biurtzen diralako.

- f) Ala, mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

Zetan ete gabiltz ?:

Jainkoagan eta bere legeetan sinismena sendotzen, ala, sasi-jainkoarenak egiten ?.

Ludi onen sorraldiaz bear dogunerako, dana dago asmatuta, gure asmakizunetarakobere gai-kopurutik bereiztuta artu bear doguzelako gai-indarrak. Or dagoelako bear dogun guztia.

Mundu onetara jaiotzen garanean, gure arima gai-gorputzagaz mozorrotuta agertzen da, asmakuntzaren egikerarako bear dauan zentzumen eder eta mirariakaz.

Danak bardiñ eta bearrezko eskubide bardiñakaz jaioten ba-gara: **bear doguzan gauzetarako, zelan erabili bear ote dogu gorputz ori ?.**

Gudan ?.

Ala, nortasunaren baitazkoak izanda, gaia eta gu bere legeakaz erperatuta egonda, arimaren arazoizko zentzumenean, ulermen onak alegintzen dauskun lez ?.

Or, ez liteke zalantzarik egon bear.

(1) Elde edo izurriteak = peste, epidemia.

Beste aukerarik ez dagoelako, argi esan gura dau guzti orrek, ordezkartzaren ekanduzko bizi batera jaio garala.

Ordezko ardura orreik baiña, zelan erabiltzen doguz ?.

Saiatuko naz naste-borraste orreik argitzen, oraingo Euskalerrriaren edesti onen ardurazko idazt sail bidetik.

Leen, oso polita dalako, eta bigarren euskaldunen ardurazko begiak zabaltzeko, oso argigarria dalako.

2. Omo-Sapiensen ta aurreko Neandertal gizakia.

2.1. Europa sortzen.

-Pleistozeno aldia: 2.000.000 - 1.800.000 urtetan asi eta orain 11.000 urte amaitu zan.

-Paleolitiko aroa: Iru alditan banatzen da: Be Paleolitikoa K.a. 1.000.000 urte inguruan asi ta, 150.000 urte ingururarte.

Arriaren aldia, 1.000.000 urtetik, K.a. 3.500 urte igururaiño da.

Eta K.a. orain 500.000 urte inguru, Europa, bere lurraldetara sartu ziran lenengo⁽¹⁾ Neandertalak egin eutsoen, eurak izan ziralako bakarrik geratu ziranak; *Wurm* deritxon azkeneko izotz-aldi ostetik.

-Erdi Paleolitiko aroa: K.a. 150.000 urte ingurutik 40.000 urte ingururarte.

-Eta Goi Paleolitiko aldia: K.a. 40.000 urtetik 9.000 urte ingururarte.

Oso luzea izan zan aroaldi au eta bitartean ainbat giza seme bereziko motakoak sortu ta galdu ziran, orain 30.000 urte Omo Sapiens agertu arte.

Europa n ezagutzen doguzan leenengo Kromañoi-gizakiaren azurrak, orain 50.000 urtekoak dira, 1.856an Alemaniako Rhur ibarrean aurkitu ziranak, eta orregaitik eroaten dabe ibarraren izena: Neanderthal-Arana, Düsseldorfetik urbil dagoena.

Europa ta Munduan egiten dabezan iker-lanak eta adibidez, erdiugarte onen Granadako lurraldean, Orze⁽²⁾ deritxon errian aurkitu diran gizaren eta bere tresnerien aztarnak, orain milloi ta erdi urtekoak izan arren, Europako gizaren benetako bilbakuntza⁽³⁾, orain 300.000 urte inguruan daukala bere asiera, eta Neanderthal gizaki onegaitik esaten dabe,

wurm deritxon laugarren izotz-aldi ostetik, orain 100.000-30.000 urte artean bizi zala eta osteko iker-lanetan 100 gizon-emakumeen azur-ondarrak baiño geiago aurkitu dabezala Europa guztian.

Txikerra ta indartsua izan zan antza, eta bere jakintzazko-izatasunean, Omosapiens⁽¹⁾ baiño, beragoko mailla batekoa izan ei zan.

Siberian, Jaba eta Rhodesian be aurkitu ziran beren azurrak.

Eta Omosapiensen baiño ariñaukoa zana, edo Neandertal eta Omosapiensen bitartekoa zan gizaren besondoko-azur eta agin batzuk, Arrasaten, Leizetxikiko arzuloan aurkitu ziran.

Omosapiens edo Kromañoien sorkuntza.

3.1. Goi-Paleolitiko Aldia:

Lenengo arri-landuen aldia da, eta beragandik beste Paleolitiko aldiak berezkatu egiten dira, arriaren erinduzko obekuntzan, gero ta alegin aundiagoetan sartu ziralako, 40.000-9.000 urteko aldi onein bitarteetan, Afrikan orain 30.000 urte Omosapiensen giza sortuta.

(1) Ez ote ziran ariñago beste giza-mota batzuk ?. (2) Orze = Orce. (3) Bilbakuntza = *evolución*.

3.2. Omosapiensen zabalkuntza:

Omosapienseko giza, 15.000-10.000 gorengo Paleolitikoaren asken⁽²⁾ denborak edo Arri Aroko aldiak zirenak, izotza urtzean Afrikatik urtenda, Asia ta Europara zabaltzen asi zan euskerazko leen izkuntz, edo len-ereduzko euskerea eta oiñarrizko oitura bardin bategaz, Atlant-Itsasotik Ekialdeko Indiaraiño.

Eta iñorentzat ez liteke izan bear sinis-gogorkeri bat, Omosapiens edo Euskal-Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik, egoan ba ?.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da eta Europaren edesti aurreko aroa, orain 10.000 urte ingururarte.

Aldi onetan esaten dau On-Mielek, Euskaldunak artu ebela gaur daukan giza-itxura, edo Kromañoien itxuratik gaurko itxurara aldatu zala, Paleolitiko-Neolitiko bitartean edo mesolitiko aldi onetan.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Omo Sapiens giza, eizan egitez gain, zitu, bii, ale edo fruituak batzen asi zan.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki⁽³⁾ aldiaren artekoa da.

Omo Sapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik, ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan, eta orren ondorioz bizileku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen, leenengo iriak sortuz.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen, eta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

Neolitiko aldia Ekialde Urbillean orain 9.000 urte asi zan ta European 6.000 urte inguru.

Omosapiens: Afrikan sortuta, izkuntz ta euren jakintzan oituratzeko euki eben ekanduzko oiñarri bidetik asi ziran Asia ta Europatik zabaltzen, Würm deritson izotz aldiaren.

Kromañon giza: 1.868ko urtean Frantziaren Ego-mendebalaren Dordoñako lurralde inguruan, Madeleineko arpe edo aitzuloan⁽⁴⁾ aurkitu ziran orain 30.000 urteko Kromañon gizaren azurrai esaten jako, eta bere oroimenez K.a. 14.000-9.0000 urte bitarte orreri ipini eutsien Madalen aldiari.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten eta bera agertu zanean aurreko Neandertalak euren artean ezereztu egin ziran eta sortu zan giza mota au izan zan Asia ta Europatik zabaldu zana gaur arte, bere leen Euskerazko izkuntz azturan.

4. Zer diñue jakitsuak gaur Euskalerriri eta Europari buruz ?.

4.1. Barandiaran eta Aierbetar On-Joxemiel Jaunak:

Gaurko euskal-gizaren itxura ber-bera 10.000-7.000 urte arteko inguruan artu ebela jakinda, txantxetan esaten eban, Euskalduna bertoko perretxikoen antzera, beti bizi dala emen, beren iker-tzaillezko emaitzak alan agertzen dabelako.

4.2. Altunatar Jesusek:

Bere azterkuntzazko maixu-lan bidetik, *Euskal Edesti-Aurreko 150.000 urteak* argitutako liburuan esaten dau: Kromañon gizakia, *WURM* deritxon azkeneko izotz aldiaren ostetik Madaleniense ta Aziliense arteko denboratan, Afrikatik urtenda, K.a. orain 15.000 urte inguruan agertu zala Omosapiens au, eta bere zabalkuntzan, Neandertalak euren artean ezereztu edo ta urtsutu ebela aurrekoen Europa.

(1) Omosapiens = Kromañon. (2) Gorengo Paleolitikoaren asken denborak, edo arri-aro'ko aldiak zirenak, onantza asita. (3) Tupiki = edad del bronce. (4) Ortik dator Auriñaciense edo Magdaleniense Goiko-Paleolitiko aldiaren, Musteriense ta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdaleniense izena Madelein mendiko aitzuloaren izena ipini eutsoelako.

1.868an Frantziko Ego-Sartaldean Dordoñako lurraldean eta Perigoreko⁽¹⁾ errian dagoan Madalein mendiko Kromagnon aitzuloan, goiari-aldiko asieraren giza-azurrak aurkitu ziran: Gizon zaar batenak, adiñeko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz⁽²⁾ eta saretxo edo xirristak itsas-maskorrakin⁽³⁾ aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta.

Eta giza-azurrak geiago: Frantziko beste lurralde batzuetan, Txekoslobakian, erdi-ugarte onetan, Alemanian, Suezian, Italian eta Polonian be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru-azurrak, gaur daukagun giza-itxuraren bardiñ-antzekoak ziran eta eroaten ebazan apainkeriak, bilbe⁽⁴⁾ aundikoak zirala esan eben.

4.3. Wennemanntar Teo, germaniar ele-jakintzaren maixua, Fostertar Peter, Kanbridgesko ikastetxe nagusian genetika'ren irakaslea, eta Ameltar Elisabeth berrien idazleak:

Egin dabezan azteraldi sakonetik, *Spectrun Wisenschf* Aleman aldizkari jakinsuan argitaratu, eta bai Ingalaterrako iztegi nagusian⁽⁵⁾, auxe da baieztatzen dabena: Europaren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan euneko zenbakitik, irurogeita amabost Omosapiens edo *euskaldunak dirala*, eta euren oiñarrizko izkuntza *euskerea zala*.

Orretarako jakintsu oneik esaten dabena: Orduko Europaren izotz-urtzean, eiztariak gezaltze orren ondorioz, izotz-oreñiak ta mamutzarren iges-aldian edo atzerakada egitean, euren atsegiñezko giroan egoteko, euskal eiztariak Europatik zabaldu zirala, ta orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik euskerearen oiñarrizko itzak: aran ibar, ur ta abar asko, gero, orduan ezagutzen zan munduko toki-izenetan agertuko direnak.

Or banandu ziran: Bakardadearen aztura denbora ta igaro-bidean leiñu barrien ugaritasunetik, tronkaleko artu-emonetik urruntzen egon zirala, gai eta oiturazko gauzari baktotxak beren ulermeneko sinismenean ulertzen ebazan itzakaz izenak emoten ba eutsezan be, gura naiez izkuntz barriak sortu ebezan, ta izkuntz izaera orreik izen lez artuta, berezitasunezkoak biurtu ziran.

Orren frogagarri batzuk:

Omosapiens Afrikan sortu eta ugarituta, *wurm* deritxon azkeneko izotzaldia urtzen asi zanean, orain K.a. 14.000-9.000 urte Magdalenense ta Aziliense, gorengo Paleolitiko edo arri aroko denboran Europatik zabaldu eta erritu egin zirala euskal izatasunean esaten dabe.

Eta Ekialdekoak euren alderraiezko nastetasunak aundiak izan arren, orregaitik orain be daukiezela eunetik ainbeste goi-maillako antza euren jenetan eta izkuntzetan.

4.4. Zubiaga ta Legarretatar Felixek:

Bere argitaratutako liburuan *Origen y desarrollo del lenguaje*⁽⁶⁾ 49n orrialdian esaten dau: Munduko gizarteetan mintzoeraren jaiocera, eta beren azalkuntza oituraren azkerazko edestian esanda, munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala bere neurri guztietan.

Orregaitik, Euskerazko mintzoera bat bezala, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu eta ipuin legez adierazi ezker, edesti ta edesti-aurre onena da *menperatzaillezko katoliko-merkantil norkeriaren aurka*, berezko gizatasunarengaitik iñoz azaldu, esan, edo ta edatsi⁽⁷⁾ ez dan benetako edestia dalako.

(1) *Edesti aurretik = Eyzies-de-Tayak deitzen zana.* (2) *Pulseras y collares.* (3) *Conchas.* (4) *Bilbe = evolución.* (5) *Leen Wilhelm Humboldt elejakitun edo izkuntzalariak eta orain beste jenetista barri batzuk be esan daben antzera.* (6) *Según el vascuence.* (7) *Azaldu, esan, edo edatsi = describir, decir, contar, narrar, explicar.*

Maixutasunezko lan ederra benetan Felix Zubiaga ta Legarretak egin dauana, euskaldun guztiak eta batez be jakitunak irakurri bear leukiena, gure euskal askatasunezko demokraziaren sinismenean sendotu daitezen eta Europan erakutsi, bera dala orain be asieraren *izarrezko* argibide onena, izadi onen giza, zentzutasunezko *orubean*⁽¹⁾ eseri edo kokatu gaitezcan.

Arriaro berriko berbea *orube* = *europa*, Griegoen ots-izti⁽²⁾ edo fonetikan, solar europeo esangura dau.

Felix Zubiagak, bere *Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo* 56 orrialdeko IIIIn zatitik datorrena, liburuaren 49n. orrian: *izen jakintza*⁽³⁾, *jakintzaren oroimena*⁽⁴⁾; An, Utu, Ra, Ilu, Ka, Ba eta As-en eredu nagusiren⁽⁵⁾ izkin bateko berbak aztertu ta argitutako amaieran ondorio lez esaten dau; *Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala.*

Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren ozenezko⁽⁶⁾ iturria argitzea dalalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan.

Eta Euskerea eldu al dalako izkin bakarreraño, orain ezin da esan alderatzaileak⁽⁷⁾ esaten daben antzera, *Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala.*

Baita mintzoeraren oguzpeneko⁽⁸⁾ jaiokeran, bera dala berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan *izkuntz bakarra.*

Euskereak, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartzezko itzaren antolakuntzan, eta entzutezko abotsetan, irarrita daukazelako.

Zeruko⁽⁹⁾ eredu nagusiaren antzezko⁽¹⁰⁾ zuzentasunetan *Izadi-iztia*⁽¹¹⁾ dalako; gizadiaren jakintzan *gogo-iztia*⁽¹²⁾ eta *gizadi-iztia*⁽¹³⁾ da, bai *dirdaitasunezko gogarketa*⁽¹⁴⁾ gizartearen eredu nagusiaren antzezko zuzentasunetan, eta *teolojia da*, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

Euskereak, Sumerioen izen jakintzazko irudimenaren eredu nagusiko arlo aundietan ta gramatikan be esku artzen dau, Ugarit ta Ejiptoren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna *ipuiezko asmamena*⁽¹⁵⁾ da, baiña eredu nagusian berba barrien *jaikunezko kokamenaren*⁽¹⁶⁾ *trebetasuna* be bai, aiek ez dabelako galtzen abotsik, antolamenduzko zentzurik, ez aintzintasunik, bieri oso osoan aurreratuzota burutakizun barrien artu emonetan.

Izkuntz edo mintzoera gintza baten lojikak, *mitolojia* beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta arri-aro barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, esan-izaneko⁽¹⁷⁾ elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oiturazko arau zaletasunean.

-Dana, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokitzeko, eta oroimenaren atzerakadarik egon ez daiten.

-Bere galduerak, danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

(1) *Orubean emplazamiento de ORU = SOLAR+ be = bajo.* (2) *Izti = tratado.* (3) *Izen-jakintza = onomástica.* (4) *Jakintzaren Oroimena=memoria sapiencial.* (5) *Eredu-Nagusiren = arquetipos.* (6) *Ozenezko = sonoro.* (7) *Alderatza-illeak= comparatistas.* (8) *Mintzoaren oguzpneko = pronunciación articulada.* (9) *Zeruko = divino.* (10) *Antzezko = analogías.* (11) *Izadi-iztia = cosmología.* (12) *Gogo-iztia = alma psicológica.* (13) *Gizadi-iztia = antropología.* (14) *Dirdaitasunezko gogarketa = meditación refleja.* (15) *Ipuiezko asmamena = imaginación mítica.* (16) *Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual.* (17) *Esan/izaneko = decir/ser.*

Liburu oneik internetetik atarateko daukan elbidea:

<http://www.todoebook.com/erroteta/>, da.

4.5. Mikel Iriondo giza iztilariak⁽¹⁾.

Amerikako Journal Physikal Anthropology aldizkarian irakurrita esaten dau⁽²⁾: Euskaldunak Europeoakin, naiko berezitu egiten dirala.

Bere eritzian, orube⁽³⁾ edo lur jabetasun orrean lenaldi edo antziñatasuna adierazten dau.

Eta azaldu leiken gauzea: Europeoak, edo Ekialdeko Omosapiens euskal oiñarrizkoak, Mendebaleko euskaldunak baiño geiago nastu zirala, orain 5.000 edo 7.000 urte Ekialde Erdetik erri-aldean etorri ziran lur lantzaile edo nekazari ta abelzaiñarekin.

Eta teknika arloko trebetasun orreik Euskalerrira, geiago eldu zirala Jakintzazko trebetasunaren artu emonetik, endak nastu bidetik baiño.

Orren itzulpena: Euskaldunak, Europan dagozan jendekuntz ta izkuntz ezbediñak ja kinda, bere lurraldetan Indoeuropeizatuta, ez gagozan azkeneko bakar lekukoak garala, esan nai dau.

-Mikelek eritzi au nabarmentzeko: Mundu oneitan, *dana dala besterekiko edo besteganakoa*⁽⁴⁾, eta euskaldunak bestean artean edozelako nasteetan ibili barik, baita eurentzat eta euren seme-alabeen gorputzarentzat kokamenezko bizi-leku ta inguru basati orreik daukiezan eragipenaren gaiñetik, gizakumeari zeozerrek bereizgarritzen badautsola, dau-kazan nortasunaren trebetasun edo ta gaitasun⁽⁵⁾ aundiak dirala.

-Eta euskalerrian, europa bezala, danak aldatu dirala esaten dau.

Orren esan naia: *euskaldunen askatasunezko demokrazia, muga-bagekoa eta zabala izanez gain*, euskal edesti osoan neurri orren zintzotasunakin, lotsagizunezko garrantzi aundia emon dautsela *bere sendi, izkuntz eta daukan zentzun aundiko nortasunari* esangura dau, eta bere biziaren azkeran, egi aundiz ibili dituzan bideak, beti lez gaur be, Jainkoari begira egin gura dabezela da.

4.6. Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.

Geiago esaten dau:

-Euskalerria, Europako erri zarrena dala.

-Bere izkuntza: Kaukasotik Atlant Itsasoraiño eta Afrikatik Europaren Iparralderaiño, Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala.

-Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri ba-tzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

5. Asia eta Europan, Omosapiens edo kromañoien orubea ta antolakuntza.

5.1. Neolitiko edo Paleolitiko bigarren erinduaren arri aldia amaitu zanean, Eneolitiko aldiaren sartu gintzazan, Asian K.a. 9.000 urte eta Europan 7.000 urte inguruan zala, Asiako lurraldearen eguraldi beroagoagaitik, Europa baiño ia 3.000 urte inguru aurretuta egon ziralako, K.a. 3.500 urterarte iraun ebana, Tupiki⁽⁶⁾ aldiaren sartu arte.

Afrikatik mugi aldiak asi ziranean, jakintzaren arloetan: Euskerazko leen Izkuntz eta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik-bage, eta millaka urte ondoren jakintzazko azturan,

(1) Giza-iztilaria = antropòlogo. (2) 2.003an Urrillaren 13an Diaro Vasco'k batu ebana. (3) Orubea = asentamiento. (4) Besterekiko edo besteganakoa = relativo. (5) Andi-gaitasun = propensìon a crecer. Gaitasuna = idoneidad, capacidad, habilidad, disposiciòn. (6) Tupiki aldiaren = edad del bronce, K.a. 3.500'etik burdiñeko aldiaren 1.400'eko urtean sartu arte.

leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran, bakoitza beren batzar-nagusiko babespean.

Mundu bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduraren eta berezko denboraren larrialdiko egoe-ratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren egokitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin gordiñik aurka egin ezker, gu baiño askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur leiñuetan, Afrika, Europa ta Asiako lurralde guzti orreik egokitzen.

Orduko leiñuak, milla urte askotako aukera orreitan lortu eben, gaur oraindiño euskalerrriak daukan nortasunezko izkuntza eta oitura demokratikoak, gure Lege Zarrak esaten dauan lez.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura arloan gaztelu bat bakarrik ezin eben egin, eta orko bidetik asi ziran berexkatzen, antz-gabeko izkuntzatan.

Alan da guzti, nai ta gizarentzat, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izanda Mundu zabal orreitan, mendi, aran, euri, izotz, egu-giro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta loreki antzeko ezberdintasunai, bizi ekintzaren bidez gauza guztiei bereziki izen berexiak emon eta antz-gabeko izkuntzatan ezarri, aukera barri orrek ez dau nai esan, guztiz banakatu egin zirala, leiñutasunaren auzotasunezko urbiltasunean eukezan arreman edo alkar ikusteak, zaindu be egiten ziralako.

Gure arbasoak, milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten daben: Aurreko *jendekuntz galdua* dana.

Baleiteke, baiña Mundu onek daukan gizaren jarraikuntza ikertzeko ez dago ezelako mirari ez antzekorik, nai ta ainbeste antzeko izkuntz eta toki izenaren arrasto eukinda.

Gaiñera, Felix Zubiagak esaten dauan antzera: *Euskerea bere jaiocera argitzen dauan izkuntz bakararra dala*.

Gaur egunean, ez da edozelako gauza esate ori: Euskereak bere jaiocera argitzen dauan izkuntz-bakararra dala esateagaz, guk Paleolitiko-Neolitikoko jendekuntzaren *aitortzailleak* garela esaten daualako.

5.2. Oar txiki bat.

1.810-1.812ko kon stituzioaren asmatzail espainiar-katoliko-aherkide fazizta oneik, Erroman 325ean Nizeako eleiz-batzarrean, bereztasunaren aurka norkeriz katoliko asmatu ta legeztu egin zan lapurtza aundienetatik euren eskubideak artuta, orain daukien *ministerio de educación y ciencia* bidez, goi-maillako ikastetxearentzat idazten dabezan liburu guztietan eta nik aurrean daukan euren *edesti-aurreko* liburu onetan batez be, ezeren lotsa barik, **espainiar** izena ordukoa izan balitz-bezela idazten dabe.

Argi ikusten da emen, oraindiño XVn gizaldian *erriak-sortzen*, edo ta munduko erri guztiak menperatzen kolonizetako alegiñetan asi ziranen, eta orretarako eleiza katolikoaren aita-santuak emon eutsoezan baimenagaz, orduan asmatu ebezan legeekin dabizela orain be.

Lotsarik eukingo ote dabe ?.

Nik dakidanagaitik, Jaungoikuak gai-gizatutako iñori, ez dautso emon *jabetasunezko edo berentzako izan balitz bezela ezer*⁽¹⁾, ilten danean emen geratzen diralako gaiezko gauza guztiak.

Egia da orduan-ba, gure baitaren gogo-aulkitik jarraibide edo jarraidun agertzen jakuna, mundu onetan: *nor-bereren arduratik kanpo, ez dagola iñungo jabetasunik*.

Euskalerrria, benetako ardureagaz ibili zan, egin bear izan ebezanak, Jainkoak bere so-rraldian Ludi oneri ipini eutsozan baldintzakin adosten, eta lortu be *euskal aberriaren ardurea zein zan jakitea*, orregaitik dira bere buruzbide edo erabakiak eskubide osokoak, *bere nortasunezko arduraren, eskubide osokoa izatera eldu zalako*.

(1) *Jabetasunezko edo berea izan balitz bezela ezer = Dios en èsta vida, a nadie da nada en propiedad.*

Eta emen arrigarriena: Euskalerrriaren Nortasunak, Paleolitiko Neolitikoaren ereduazko *aitortza* euki, eta Izadi onen *etorkizunezkoa* izendatu barik, iñungo ondorengo eta esku-biderik ez daukan espainiar asmatzaille katoliko-berkide lotsagabekoagaitik menperatuta egon bear, Nizeako bide-tik aita-santuak bedeikapena emoten dautsoelako.

Ez da arritzekoa ba, gaur Europa, Ameriketara eta mundu osoan sortzen dana.

Euren agintaritzea norberiz, berezko arduratik kanpo ibilteagaitik, daukazan langille edo kide guztiak euren barneko ustez jabledunak sendituta, *danak lapur agertzea*, edo berezko errigizarteak menperatzeko, eta bizitzeko bear daben guztia euren kontrolpean eukiteko, *lapurretan ibili bear izatea*.

Orregaitik esaten dot sarritan, norberiz bizi gura daben jakintsu batzuk, mundu onen gizadia, *an-kaz-gora bizitzen ipini gura dabela*.

Gaurko katuak be badakie, ezin dala bizi alango legezko baldintzagaz, *Ludi onetara ez garalako etorri orretarako*.

Esan onegaz, guzurra dala esan leike edestiaren azalkean eta guzurtasunezko illuntasunak nastuta iraun dagian, gaurko edestilari eta izkuntzalarien artean oraindiño ainbeste maltzur-ganorabako ta irabazkoi⁽¹⁾ elementu egotea, ta maltzurtasunezko almen guztiagaz ibiltzen dabizela esaten dodanean, ez dot esaten lengo ta gaurko jakintsu guztiak dirala errudunak. (Naita geienak izan).

Menperatzaille aundi orreik, munduko gizarte ta gauzaren egiagaz maltzurtasunez sortu eben naaste-borrazteko illutasunaren zirriborroak ez daitezcan argitu, beti alegindu dira euren norberizko lege edo daukien indarraren eragipenagaz, ikertzailearen azterkuntzari eragozpideak ipinten, euren lanak denbora luzeetan edo egundo ez zitezen argitu.

Eta orretarako, ekanduz edo bereztasunaren jakintzazko oitura onenean ibili diran edestiko izkuntzalariei, egia dana, siñispidez edo frogapeneko eragozpenaren eskaeran eta indarrezko keiñadagaz argituteko bear tuta, zirri-borro aundi orreinan aurrean aurkitu ziranean, ez jakiñezko utsetik asi bear ebezan lan orreik egiten, guzur eta illuntasunezko zirri-borro orreik, margoaren askoko esku emanaldi azalaren goialdetik, kontuz eta banaka asi bear ebelako egia askatzen, geroago adieraziko dodan lez.

Norberiz dabiltezan sasi katolikuak, maltzurtasunezko guzurrak irabazkoi politiko biurtu gurean, egi-billa dabizenen ikerlarien lanak, zalantzazko eritzietan artzen eutseezan egiten ebazanak, lan orreik al eben denboran luzatuz, aspergarri edo gogaituta, ia bertan izten ba ebezan billaketa edo azterkuntzazko lan orreik, *gaur-be sortzen jakun lez*.

Luzatzeko eragozpen guzti orreik alperrik baiña, *Jainkoaren legearekin* oiñarrituta egonda, mugatuta-be gagozelako, eta eurak emonda egiaren jarraibidea, jakituri aundiko ikertzaile orreinan egizko lan guztiak, goian esan dodan lez, bereztasunezko egiaren egokitasunera, *gurabage bideratuta geratzen dira*.

6. Omosapiensen bizitzan, antolakuntzaren arlo-ezbardiñak.

6.1. Omosapiensen giza European sartu eta ugaritzen asi zanetik: senditasuna, izkuntza, legeak, erlijioa eta gizarte artean ardurazko artuemonak.

European sartuta eta euren ikaskizunezko azturan orduko otz edo bizitzaren garrazkeritik babes-teko, ainbat laguntzazko begipe edo nor-beren oarmenezko zentzuaren maitasunetik, leiñuzko maitasunera aldatu ziran, gure leentasunak premiazkoak ziralako.

(1) *Irabazkoi=interesados*.

6.2. Senidetasuna.

Berezkotasun onen aurrean, gure arritasun edo ustekabeko agerkeria itaun ugarikoa izan zan lez, estutasun orreitan sartuta, laguntza-be bear gendun, eta gaiaren mukulu txikerrenak gorputza ar-tzeko daukien *erakarrezko indarraren* antzera, guk *maitasunezkoak biurtuta*, beren bitartez asi giñan gure ordezeko zeregiñak sendotzen, eta egin bear genduzan antolaketak, maitasun orren bereizgarritasunetan egokituten.

Leinua agertzen da leen, eta bere antolaketatik asi giñan jakiturera zabaltzen, oraiñ argituko do-guzan arloen ulermeneko serbitzura.

Oar txiki bat emen.

Omosapiensek leenengo euskal ots edo berba egiten ebalá esaten dodanean, bardin esan neike sumer izkuntzaren leenengo ots, edo orduko beste leen izkuntza bategaitik, esan orregaz, oitura bardiñeko oiñarritik eta urruntasunagaitik beartuta, asieran sortu ziran naste bako leen izkuntzari buruz berba egiten dodalako.

Ortik aurrera, beste gauza bat dira, nai Europaren Ekialdean, Asian eta Afrikan Paleolitiko-Neo-litiko ostean, leinu edo erri-artean menpekotasunezko gudatan asita, sortu ziran nastezko izkun-tzak.

Leenengokoak, oitura bateko oiñarririk bereztasunaren azturan, sortutako izkuntz garbiko jende-kuntzazkoak diralako.

Bigarrenak, Asia-txikitik menpetasunezko guda-legez asi ondoren, sortu ziran mintzadar edo iz-kuntzazko naas-kumeak, gero, erromatarren latinkumeak sortu ziran lez.

6.3. Izkuntza.

Afrikatik mugi aldiak asi ziranean, jakintzaren arloetan, euskeraz edo alako oiñarrizko izkuntz, ots edo lenengo berba ta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik bage, ta millaur-te asko ondoren jakintzazko azturan, leinuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran, bakoitza bere demokrazizko batzar nagusiaren babespean.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur leinuetan Afrika, Eu-ropa ta Asiako lurralde guzti orreik egokitzen.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leinuek, gaur Euskalerrriak oraindiño eus-kal arbasoengandik daukazan nortasunezko izkuntz ta oitura demokratikoak, gure *lege zaarretan* daukaguzanen antzera.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztu-ra arloan ezin eben egin gaztelu bat bakarrik, eta orko bidetik asi ziran berexkatzen, oiñarri bateko otsitz'aren erpetik, izkuntz desberdiñetan.

Alan da guzti, nai eta gizarentzat ekanduzko zeregiñetan, oiturazko oiñarri batekoak izanda-be, mundu zabal areitan, mendi, aran, euri, izotz, egugiro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta lore-di antzeko ezberdintasunai, bizi ekintzaren bidez gauza guztiei bereziki, zentzunezko izenak emonda, euren urrunkeran ez dau esangura guztiz banakatu egin ziralá, euren batzar-nagusiekin leinutasu-nezko auzotasunaren urbiltasunak arremán edo alkar ikusteak, zaindu egiten ziralako.

Ortik ulertzen da, zelan Euskalerrriko izkuntza danona izanda, leinu bakotzak bere bakardadea-ren bereiztanunezko ikutuagaz, izkuntzan desberdintasunezko itxura baten agertzen ziralá, gaur Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Benafarroa Laburdi ta Zuberoaren antzera, edo lenauko ize-netatik aipatuz: Kantaurikoak, Autrigoiak, Karistioak, Barduloak, Taberlli, Konueni, Baskoiak,

Beroiak, Kelt-Iberoak(?), Edetanoak, Ilergeteak eta abar, desberdintasun orreik gero ta geiago nabarmenduta lurraren urruntasunetik.

Danon jakintzarako zeregiñezko ekintzan, gaztelu eder bat egiten egon ba ziranen antzera, bear genduzan gauzei, ondo atondutako izenak ipini eutsezan. Eta izen bakoitza, itz-guztien arteko esangurean ezagutu zedin, bere bereiztasun ederrenean.

Orduko jakintsuak, goi-maillako arduran eta lojikazko aztura-bidean zentzunduta, itzen arteko orekak zaintzen alegindu ziran ondo zaindutako ekanduagaz.

Eta berbak, txarrera eta ontzarako esangurak euki eben benetazko zer-ikusia, gure arteko ulermenera argi ta garbi agertu zitezen, eder-lanean landutako itzakaz eraiki eben euskerazko gaztelu-eder orregaz, zentzu-aundi eta irudimenaren argitasunezko berba ederrenen artean ezarri eben Europako mendebal guztia.

Bereztasunezko bizitza baten Demokraziaren arloak ondo atonduteko, gauza eder-bi ikasi ebezan azturazko iker bidetik lan eginda: Gure zeregiñezko arduraren *egi* edo ta *legezko ziurtasunak*, bereztasunezko legeditik zentzun eta zeaztasun aundiz bakanduta eratu egin bear doguzela, *itzak* euren ekanduzko leketan, *egiz* eta ondo *adiñonduta*⁽¹⁾ ezarri dagiezan.

Eta bigarrena: euskerea`ren izkuntzagaz gaztelu eder-ori egiteko, aditzak osagarritzko itzak diran-lez, guk be, Izadi onetan danon eta gauza guztien antzera bereztasunezko gai-lege bakarra dan orren barruan erperatuta egoteagaitik, *osagarritzkoak*⁽²⁾ *garela* ikasi gen-dun.

Eta zentzun aundiz artu eben bide ori, zuzentasunen ardurean bide onena eta bakarra dalako.

Begitu, *askatasunezko demokrazi arloan, zelako gauza ederra egin eben.*

6.4. Izkuntzari begira, jakintsuak esaten dabena.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu Omosapiens edo kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturan oiturtzeko euki eben izkuntza, *len ereduko euskerea* zala Afrikan, eta Atlant Itsasotik Indiaraiño.

Iñorentzat ez leuke izan bear sinis-gogorkeri bat, Omosapiens edo euskal kromañoi giza izan zalako zabaldu zana.

Besterik, egoan ba?.

Alan dala esan leike: jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda zein direzan, *euskerea*, asikoen sorkuntza baiño askoz aurreragoakoa izanda, galdu egiten jakiera, eta orregaitik, beste izkuntzetan bere oiñarrizko itzak euki bear, *euskerea* Omosapiens`en leen ozenezko itz edo abots`etik datorrena dalako.

Afrika, Europa ta Asian orregaitik, *euskerea*, ainbeste argitu leiken tokiaren izenetan aurkitzen da: Aran, Ur, Ibar ta abar asko.

Eta mendi toki, lur, ura, aize, eta eurak biziaren ulermenean sartzeko, izendu bear ebezan gauzetan agertzen da.

Emen, Euskerearen ziurtasuna zeaztuteko esan bear dogu, goian, Felix Zubiaga ta Legarretak maixutasunezko adierazkizunean esaten dauana: *izkin bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza, jatorriz sortutako izkuntza dala.*

Izkin bateraiño eltzea, eredu nagusien⁽³⁾ ozenezko iturria dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

Eta *euskerea* al dalako izkin bakarreraiño eldu leikena, orain ezin da esan alderatzaileak⁽⁴⁾ esaten dabena antzera: *euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala.* Bere izatean, bera dalako berezko aitortzaile, oguzpeneko mintzoeraren⁽⁵⁾ jaiokeran.

(1) *Adiñonduta* = *acomodarse, acoplarse, adecuarse.* (2) *Osagarriak* = *complementarios.* (3) *Eredu nagusiren* = *arquetipos.* (4) *Alderatzaileak* = *comparatistas.* (5) *Oguzpeneko mintzoera* = *pronunciación articulada.*

Gaur *euskerea* orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analogi arauz, beren jaiokera argitzen dauan *izkuntz-bakarra da*.

6.5. Zer izango ote da Euskerea, Euskaldunentzat ?.

Jainkoa ´ri begira milla urte askoren ikerpeneko atun-bidean⁽¹⁾ edo eta aztura bidetik⁽²⁾, ondo erindu ta biribildutako lanean, eta itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu zitezen, gure *arbasoak, euskerazko gaztelu eder au egin eben*, eta *bereztasunezko legean beragaz bizitz-oneri*, al eben *adierazpen* ederrena emon eutsoen.

Ez ziran txantxetan ibili, zentzun aundiko demokratik izanda, laztasun⁽³⁾ eta zorroztasun⁽⁴⁾ aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko esaerak, sorburuzko itzekaz osotutako almenean eginda dagozelako, esangura dan irudizko toki berberan kokatzen gaitu.

Zergaitik ? : Irudizko neurri ori, ia izkuntz gitxi baiño ez daukienak diralako, Euskerea bakarra dala, ez esateagaitik.

Alde batetik: Euskalerra, lenago askoz aundiagoa izan zanetik: Atlant-itsasotik Alemaniaren erdiraiño eta Eskoziatik Kadizeraiño zabalatasunean, gure bizitzarako agertzen diran zeru, laiño, euri, aize, lur, ur, itsaso, ibai ta mendiak daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta berton bizitzak agertzen eban landaretasunezko ezberdintasun guztia, bai aizetan, lur eta ur artean dabilen izaki bizitzak, gure arbasoek zentzu aundienean izendadu ebezalako.

Bestetik: Gure arbasoak, Euskal-leiñu edo errigizarteko arremantetan antolatzeneko *Lots aundi ta begirunezko*⁽⁵⁾ *itz-ekaz oituratu ziralako*.

Eta Jainkoak bereztasun oneri erperatutako legeak, lots andiko kontuan artu ebezalako, *ekandua-ren egizko ardatz-nagusienetan* kokatuta geratu ziran.

Egiaren azturazko ekintza orreik, berez bideratu ebazan gizadiaren eskubideak lots andiz zaintzera, eta egokitasunezko bide eder orreitatik *benetako demokrazi on-baten*, danon *askatasunak begirunez* artzen diran *jendekuntzazko*⁽⁶⁾ *erria izatera*, gure Lege Zarrak erakusten dauan lez.

Orregaitik da Euskalerra, Europan, *oraindiño Indoeuropeizatuta-barik geratzen dan azken erria*.

6.6. Zer esan nai dau Indoeuropeotu-baga orrek ?:

Europa, Asia ta Afrikak daukiezan izkuntzak, euren sorburuetan ezagututen dabezala, eta Euskerea eurak baiño zarragoa izanez gaiñ, ez dakiela non asten jakon bere sorkuntza.

Gure arbasoek, Omosapiensen asieratik eraiki eben Euskerazko etxegintza au oraiñ arte, ezer ikutu barik dagoela esan geinke zentzunezko izatasunean.

Eta leiñu edo alderraiezko erri guztiak gure lurraldetatik igaro arren, guk, gure askatasunezko demokraziaren zentzuagaz beti jokatuta eta bestien oiñarrizko eskubideak adeitasun andiz artuta, ez giñan besteak menperatzera joan, gure barnearen demokrazizko baitak ez dabelako on-artzen ezergaitik be alango iñoren menpekotasunik, gure izatasun eta lurraldeak babestuten aleginduta, eta edesti guztiko alegiñ orreitan menperatzaillaren etengabeko eraso-aldiari aurka eginda, gaur zazpi lurralde txiki oneitan gure naastubageko izkuntz eder onekin geratu gara.

Euskerea orregaitik da gaur, *munduak daukan jarraibideko*⁽⁷⁾ *altxor aundiena, bere oiturazko ekandua-ren izatasunean, etxea nastetasun barik daukalako, Jaungoikuak ipini euskun bere legearen ardureagaz*.

(1) *Atun-bidea* = camino del conocimiento práctico, procedimiento empírico. (2) *Aztura bide tik* = crecimiento en el conocimiento. (3) *Laztasun* = aspereza, desabrimiento severidad. (4) *Zorroztasun* = agudeza de instrumentos, agudeza de la punta, austeridad. (5) *Begirunezko* = respeto, consideración. (6) *Jendekuntzazko* = civilización. (7) *Jarraibideko* = modelo, ejemplo.

Gaurko mundu onen jaurkintzak, edesti guztian sortu diran nastutasunezko ondoriotik⁽¹⁾ agertzen diranak dira, ta bereala ikusten dogu: *ekanduzko orekaren antolakuntzan* zelan gabiltzan, *munduko giza ta errigizartearen eskubide guztiak zapaltzen*.

Kontu aundian euki bear dira, gure arbasoen azturazko lanean eginda agertzen jakuzan aztarnak, eurak erakusten dabelako gizaren edestiko asieratik, zelan joan gintzazan bereztasunezko aztura legean ikasten, gaur dakiguneraño eldu arte, eta daukien garrantzi aundiagaitik: *munduko gizatasunaren etorkizunezkoak*⁽²⁾ *dirala izendatu*, bestela, ereduzko arloetan geratzen jakuzan zentzuzko ulerpide apurrak ezereztu egiten badira, itsasgaitz baten, kaian lotuta dagozan itsas-ontzietan orakariak⁽³⁾ apurtzen jakozanean bezala agertuko gara, gaur zoritxarrez sortzen dan lez.

Nastu bako izkuntz bateri, geure euskerea lez dagonari, indoeuropeotugabe dagola esaten jako.

Indoeuropeotu-baga orren arrazoia.

Omosapiensen zabalkuntza Ekialde-Txikerraren inguruetatik eta Europaren Menbalera egin zan, Afrikatik urten eben oiñarri bateko oitura ta euren artean ulermentzeko euki eben izkuntz edo ots-itz'aren bardiñakaz, Europa erdiko lurralde zabalotzak bertan itxita.

Ekialdekoak eguraldi beroagaitik, mendabelekoak baiño 3.000 urte⁽⁴⁾ aurreratuagoak agertu ziran, eta Akadiako kaisertzaren Sargon menperatzaileak, ango inguruko erriak bere mendeko jaurkintzan batzeko ekintzan asi zala be bai.

Ekialdean, Sumerio izkuntza zan sorkuntzazko mintzoera, bere inguruan egongo ziran izkelkia-kaz, Europako mendebalean Euskereagaz sortu zan lez.

Arik eta Sargonon menpekoasunezko guda-legez, ainbat erri ta mintzadar barri agertuazota, gero Europako mendebalean K.a. 753ko urtean erromatar menperatzaileak agertuta latinkumeakaz sortu zan lez.

Eta jendekuntzazkoak ez diran izkuntz ta erri-barri orreri esaten jakie indoeuropeoak dirala, euren erri-izkuntzaren sorkuntzak dakiguzelako, Sumerio ta Euskaldunen erri ta izkuntzak, berezkotasunaren azturako sorkuntzazkotan utzita.

Euskerea, Europako mendebalean zabaldu ta sendotu zan Atlant-Itsasotik Alemaniako lurraldearen erdiraiño, eta Eskoziatik kadizeraño, arik eta Ekialdeko menpekotasunetatik alde egin da K.a. 2.000 urtean Keltiarrak eta jarraian beste leiñu batzuk alderrai, Alemaniako lurraldeetan agertu arte.

Euskalerrriak baita-lez lortuta daukazan zentzun oneko *sinismen-demokratikoak*, ez dausku euskaldunai izten beste erri edo ta izkuntzarik menperatzera joaten, ez da ta gogoratu bez, bere sinismeneko ardatz nagusian *zor-eskubideko ordezkariaren ardura daukalako "Elburu"*, eta ez dira izan naiko menperatzailearen 2.753 urtearen alegin guztiak, ainbateko zabaltasunetik Auñamendi ta Kantauriko itsasoaren lurralde txiker onetan nai inguratu arren, daukaguzan euskal-itx ta azturazko-oituran baitutako izatasunak ezereztu edo ta aienatzeko, sasi-jainkotasunezko eritzikoak gura daben lez.

Oar-txiki bat emen.

Euskalerrria, Paleolitiko-Neolitikorearen aitortzaille izanda, munduko jakintsuak zergaitik ez ote dabe omentzen munduaren "*Guraso-Ondoko*" lez ?.

Euskalerrriak euki eban lurraldeko zabaltasunetik gaurko lur txikerrean agertu arte, eta ainbeste erri ta izkuntzaren ugaritasunagaz, ez dau gura esan, Europa orren neurrian aberastu danik, Jainkoak

(1) Ondoriotik = consecuencia, secuela. (2) Etorkizunezkoak = Patrimonio Mundial. (3) Orakariak = amarras, o maromas para amarrar los barcos. (4) K.a. 9.000 urte Ekialdean, eta K.a. 6-7.000 urte Europako mendebalean.

bereztutako Legean lortu bear dan jendekuntzaren ekaduzko jakiturietan, ia guztiz itxarotu egin dalako.

Europak badauko bai, Euskalerrriari zer ezkertu, bera dalako oraindiño Paleolitiko Neolitiko alditan mundu onen gizakiak lortu eben “parebageko jendekuntza”ren Aitorlea.

6.7. Euskereak, zelako irudiagaz itxuratzen dau Euskalerrria ?:

Euskereak daukan *nortasunezko irudiagaz* zalantza barik.

Euskal-erkidetzan ulermentzeko, maitetasun guztiagaz egin gendun tresneri eder au, ez da gatz gabeko mesu-gaillu uts bat, gure artuemonetan ibilteko bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak:

- a) Jainkoari begira, Beren Legearekin euki gendun *oarmeneko*⁽¹⁾ *samurtasuna*⁽²⁾.
- b) Senitarte eta erri-maillan *maitasunezko* ulermen ona eukitea”.
- d) Gure *baita*-ren⁽³⁾ bake edo orekagaitik zentzun aundiz, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, *zeaztasunaren begirunezko ardura ta lots aundiagaz egin genduzela*.

Oiñarrizko azpiegitura⁽⁴⁾ orreik, euskal bizitzaren babeserako emoten dauskuzan indarrak, *euskereak* zentzunezko zeaztasunean daukan indarragaz osotuta, berez kokatzen gaitulako *gaitasunezko*⁽⁵⁾ *maitasunean*, bere barnean daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako, argitasuna emonaz.

Aita Santi eta Olazartar Martin´egaz Eibarrera Euskerazaintzaren batzarretara joaten nintzanean, kanpoan gengoza eta gora begira eskuagaz erakutsita *baserriak aipatuz*, baten baiño sarrriago esaten eban aita Santik: *Jakintsu batzuk itandu egiten dabe, Eibarren, nundik nora agertu ziran ainbeste injiñeru, maisu, ekonomilari eta abar*. Begitu non daukazuen lantegi-gintza *guzti orrein sorkuntzaren ardatzezko ikastetxea*.

Gure arbasoak, gauzak egin bitartez, ta euren arteko arremanak zentzun audiz eroanda, demokraziaren ulermen aundi bateko bizitzara eldu ziran eta sendimendu ber berori sartu eutsoelako euken izkuntzari, *euskerea* ez da edozelako tresneri uts-bat.

Bera da *ama*, euskal-izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Eta etorkizunean, bere *maitasunezko zentzutik* artzen doguzan *nortasunezko izatasunak*, mundu guztiko gizarteari, *euskaldunen nortasunezko egibideak zelangoak diran berez erakusten dautsaguz*.

Mundu oneri eta bizitzari zentzuzko ulermen-bidez, emon geuntsezan adierazpeneko erantzuerak, euskal-ekintzaren bereizkotasunak dira.

Gaur egunean, munduko errigizarteari erakutsi bear dautsaguna: Euskalerrria, Ludi onek daukan *berezko erri-zaarrena* dala.

Eta zaarrena izanez gaiñ, bere *jendekuntzazko*⁽⁵⁾ *jakintza, demokrazia* eder baten oiñarrituta dagoelako, naita espainiar eta frantzezaren menperatasunak gure gorputzan urdu-ritasun aundiak sartu, ez dogu zetan leergaillurik ez izkillurik erakutsi bear eta gitxiago erabili.

-Leen: mundu onek gaur daukazan arazoakaz, berezko legearen arrazoitasunera aokatuta dagoelako.

-Bigarren: Leergaillu orreik gure demokrazizko-izatasunaren aurkakoak izanda, eurak ibilteagaz, Munduko gizarteari, beste gauza-bat, edo *ikarabidezkoak* garela erakusten dautsagu, eta Euskaldunak sekula ez gara izan alangoak gure *askatasunezko euskalerrri demokratiko* onetan.

(1) *Oarmeneko* = atención, sentido de la observación. (2) *Samurtasuna* = frescura, ternura en su composición.

(3) *Baita* = conciencia. (4) *Azpiegitura* = infraestructura, subestructura. (5) *Gaitasunezko* = buenas dotes, talento. (5) *Jendekuntzazko* = civilización.

-Irugarren: aldi baten, izkillu orreik bearrezkoak izan ba-ziran be, gaur jokoz kanpo geratu dira, menperatzaile fazizta oneik edesti guztian indarka erabili ondoren, eurak, alperrezkoak eta gaurko munduaren bizitzarentzat oso okerrezkoak dirala erakutsi dabelako.

Orregaitik, mundu ta Europa onetan oraindiño, erromapeko katoliko merkantil antolamendu onetan egonda, eurak indar ta maltzurkeri geiago eukinda, izkillu orreik guk erabilterakoan, batzangotasunezko maltzur joko ori arrazoitu baiño ez dogu egiten, eta beragaz: *gu gara* legeztu egiten doguna gure *euskal menpekotasuna*.

-Laugarren: ezinbesteko gogo alegiñaren indarragaz, *gure erri-miñan, ainbeste zor dautzagun maitasunezko euskerea nortasundu*. Len berak, *gugaz egin eben antzera*.

Euskaldunak, or, daukagulako nortasunaren izatasunezko altxor aundiena, beste erriekaz batera, danon izatezko nortasunean, demokraziaren erantzun ederrenak emon dagiguzan.

Gaur naita jendekuntza aundian ezarrita egonda, badaukagu beste eragozpen aundibat be, betiko eta gaurko menperatzaileak bizitzarako bear doguzan tresneri ta gai-mozkin guztiak euren kontrolpean eukiteko, eraso aundietan sartuta dabizela, gaurko 2.013n urte onetan.

Osasun-bideak, aztetxe, ezilege⁽¹⁾, lur, aize eta itsasoaren era guztietako lantoki, ta baita zartegi⁽²⁾ eta inguru guzti orreik beretu gure dabez, euren sasi-jainkotasunaren gurketarako.

Eta edesti guztian gudaindarrez egin daben antzera, gaurko bizitza, xautzailletasunezko morroi-keriaren nastezko argibideakaz ganoragabetu egin gura dabe, euskal eta erdi-ugarte onen berezko errigizarteak espainiar zoraldiko nastetasun baten sartu, ta Europan bardiñ eginda, euren *sasi-nor-kerizko* asmakuntzan aurrera egiteko, saiatzen dabiltz.

Gu ez gara jausi bear, mendeku edo apentzak daukan lilluramenaren⁽³⁾ sarezko txebera orreitan, Jainkoak aginduta zentzunezko gauzak egitera etorri garelako, bestela gure morroitasuna, gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabe.

E

6.8. Euskerea zer dan ez-dakienengaitik entzuten doguzenak.

Gaur zoritxarrez esaten dabenagaitik entzuten dogu, Gaztelera eta Frantzez izkuntzak gureak be ba-dirala, eta ez da olan iñundik iñora begituta be.

Adibidez:

Gaztelera, lenauko Burgos ta Kantabria bitarteko euskaldun, ta erromatar menperatzaileak ekarri eben latiñagaz euren artean indarrez edo ta gudamende aitu edo ulermen baten ezartzeko, sortu zan latinkumezko mintzadar bat baiño besterik ez da.

Eta Afrika, Asia ta Europa osoan sortu ziran antzera, Asturiasen bable, Nafar egoaldean ta Aragoi-ipar bitartean nafar-aragonesa ta gaurko katalana, erromatarren menperatzailetasunezko gu-dakaz sortu ziran.

Latiñ kume orreik ez ziran izkuntzak, euren arteko arazoetatik urteteko, mendeko indarrean beartuta sortu ziran zentzunbako mintzadar batzuk baiño, besterik ez.

Beste gauza batzuk dira, Erromatar-menperatzaileak katolikotasunean batzagozteko eta berezko erriaren izkuntzak ezereztuteko ibili ebezan leentasunak, eleiza onek 2.000 urtetan Euskerea ta beste berezko izkuntzak debekatuz eta latiñ ta latinkumeak erri-izkuntza lez beartuta egin dauan antzera, berezko izkuntz oiek aienatu edo ezereztu zitezen.

Izkuntza, leiñu edo erri batek bere oiturazko azkuntza bidean ulermentzeko, sortzen dauan tresneria da, eta ez edozelakua, euren senezko tresneri biurtzen dalako.

Gure bizitzarako **EUSKALDUNEN AMA** izendatu gendun, eta bere izena artuta, euskal nortasundunezkoak izatera, biurtu ginduzan.

(1) *Ezi-lege* = educaciòn, urbanidad. (2) *Zartegi* = asilo de ancianos. (3) *Lilura* edo *Lilluramena* = fasciaciòn, alucinaciòn, engaño, ofuscaciòn.

Euskerea, euskal-nortasuna da, gure sen eta sendiaren arduraduneko ardatza bihurtu dalako, eta jakituriz ta bakezko ulermenean betetan badoguz gure azturazko eragilletasunak, urbillago euki-ko doguz beste erriak, Jaungoikuari begira gurea lez, bizitza oneri ulermeneko erantzun eder bat emondakoak diralako.

Baita, Jainkoaren legeagaz nortasundutakoak alkartuta ulermendu gaitazan, danok gai izadi onek bear dauan eragilletasunagaz arduratuta.

Ez dira edozer gauza nortasundutako izaera orrek, gure *euskal-arbasoen izaeran*, lur eta Jainkoari begira, oituraz egiten ebezan gauza guztien egokituagaz, lortu ebezalako gaur oraindiño daukaguzan askatasuneko demokraziaren zentzu eder orreik.

Orregaitik dira nortasunekoak Jendekuntzazko Izkuntzak, gure Euskalerrriaren arbasoetatik lez, euren mintzazko senetik gaur arte, oituraz eginekoak gogoratuz, agertu egiten doguzelako ikasitakoak euren ekanduzko izatasun ederrenean.

Gusti ori eukingo ete dabe, gudaindarrez eta menperatasuneko ekintzan sortutako latinkumezko mintzadar orreik ?.

Mundu onen gizadia, Jainkoaren Legean gauza orreik lortzeko, berezko nortasunaren zentzuan ulermenduta lortu bear dabez, danon arteko ulermenak parean ezarri ondoren ta aurkeztuta, bardingidu bear diralako, erabagi on orreik Jainkoaren Legean lortu gura badira.

Beste gauza bat da, nor beren sasi ulermenak beste buruetan sartu gurea, or ez dalako agertzen, ez Jainko Legerik, ez ezer, *norkerizko alegiñetatik kanpo*.

6.9. Euskereak daukan adierazpenaren⁽¹⁾ mailla aundia.

Latin-kumezko mintzadarrak, galdu edo ez ba-ebezan nortasuneko izaera orreik lortu, zelan bardingidu edo geiegitu egin-leikez euskereak bere garbitasunean irudimentzen dauan jendekuntzagaz ?.

Euren asmakuntzagaz beartuta: *orokortasunaren alambearrezkoagaitik* ?⁽²⁾.

Nungo jainkoagandik daukiez artuta opide edo eliz-opide⁽³⁾ orreik ?.

1.960ko amarkadan, espainiar ele-jakintzaren irasle edo sortzaille izan zan Menendez ta Pidaltar Ramoneri entzun neutson: *gazteleraizko latinkumea irudizko zentzunean sendotzeko, 1.971 euskal-itzekaz tartean sartuta egin bear izan ebela, eta ata guzti, ainbat itzezko irudiak zentzunezko gabetasunean geratu zirala*.

Adibidez: gazteleraizko *playa* itzak, zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?.

Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz⁽⁴⁾ edo ta areatutako arri ta maskor ondarrarekin ?⁽⁵⁾.

Euskerazko itza: *Laida, Ondarru, edo Mutrikuren itsas bazterreko ondartzak, ez ote gaitu kokatzen, ulermeneko zentzuan adierazi*⁽⁶⁾ *gura dogun irudimenezko lekuan* ?.

Euskereak, ez dau galdu bear, Omosapiens, kromañon edo euskaldunak, milla urte as-kotako azturan, bizitzari adierazpeneko ekintzan⁽⁷⁾ emon eutson zentzuzko xeetasunetik ezer, or, dagoelako gure jendekuntzaren garaipena eta batez-be: *gure nortasunaren oituran ekanduta, zentzu ederretariko izatasuna*.

Ondartza euskeraz: *arri ta maskor-ondarrarekin areatuta dagon tokian kokatzen gaitu*, eta Laidako itsas-bazterrean dagoela gaiñeratu egin ezkeru, or non agertzen jakun neurri aundi baten irudimenduta Laidako auzo edo erritxoan, maskor-ondarrarekin areatuta dagoan goragarritzko itsas-bazter ori.

(1) *Adierazpenaren mailla aundia* = grandes cualidades interpretativas-explicativas. (2) *Orokortasunean alambearrezkoagaitik* = por su destino en lo Univer-sal ?. (3) *Opide, edo eleiz-opide* = prebendas. (4) *Area-ren Leuntasunagaz* = tersura, o lisura de la arena. (5) *Maskor-ondarrak* = deshechos de las conchas de las ostras, mejillones, caracol, etc. (6) *Adi-erazi* = indicar. (7) *Bizitzari Adierazpeneko ekintzan* = interpretación que el vasco le dió a la vida.

Gaurko bizitza, ez da erreza euskaldunentzat eta gitxiago euskerearentzat, zoritxarrez gero ta geiagoko erreztasunagaitik edo ta alpertasunagaitik ?. Ez doguz gure zarren iztegiak eskuetan artzen, eta erreztasunera joaten garelako *gu gabiltz gazteleratuten euskerea*, bai eta, ori ez bada naikoa, ia erderaz edo gazteleratutako iztegiak agertzen doguz.

Euskal-esangurea edo ta sinismena galdu ete doguz ?.

Gaur gure *euskal-etxea* garbi eta argitsu agertu daiten egin bear doguzanak, bereztasun onek daukan *legearen* argitasunean egin bear doguz, maldaberan doan edo ta porrot eginda dagon Europa onen katolikotasunezko-merkantil eritzi gaiñetik, oraindiño danok dakigulako, zelako erreztasuna daukien zankartekoak ipinten maltzurrezko merkantil guzurti orreik, ekintzan ipini bear doguzan on-zentzunezko azpiegiturak arazotzeko edo ezereztuteko.

Euskaldunek baiña, eurak ez daukiezan iru gauza-eder daukaguz *elburua* lortzeko:

a) *Euskal ekintzan jainkoari begira, demokraziaren izatasunezko sinismena.*

b) *Arrazoia.*

d) *Arduradunak izan da, gogamen⁽¹⁾ bi orreik emoten dauskuen indarra.*

Ondo baiño obeto zaindu eta sendotu egin bear doguzanak, sasikatoliko-menperatzail onein morroitasunetik urteteko len bait-len, gure zentzuzko askatasunean bizi gura ba dogu.

Euskal seme-alabak, iñundik-iñora be ez doguz galdu bear gure ikusmenetik⁽²⁾ aztarna orreik, kontu aundian artuta: *Euskerea dala gure izaeraren ardatz- nagusia.*

7. Erljioa⁽³⁾.

Asieraren leen jaio barriko gizarteak, ezagutu ez eben gai-bereztasundutako izadi bateri aurka egin bear eutsoen, eta bere izaeran, ain gordiñezko ostagi-aldaketak⁽⁴⁾ ikusita, bildurtu be egin ziran.

Aukera orreitan, bildurrean ezartzea erreza dalako, laster asi ziran gogoratzen edo ta konturatu-ten, izadi onen gaiñean baten-bat egon bear zala, eta bizitzeko egin bear ebezan zeregin guztien eskeintzazko bidetik, Jaungoikuari babesa eskatzen asi ziran euren giza samaldarentzat⁽⁵⁾, bereratasunaren⁽⁶⁾ onezko aukerak danon aisetasunean⁽⁷⁾ egokitu zitezen.

Beste alde batetik, gure izpirituzko Arimak giza itxuran mozorrotuta, bat eginda agertzen dan gorputzagaz, ekanduan⁽⁸⁾ antolamendu on-bat bear dualako, ondo ulertutako zentzuan egokitu ziran, gai-gorputz orren egarrizko arrazoietan.

Eta danoen gogoetatik ez daiten suntsitu⁽⁹⁾, edo ta daukagun gai mozorrotutako gorputz au, epe labur baten iltzen dala ez gaitezcan aztu: *beste arrazoi, edo ez dakigun izaera batekoak garelako kon- turatu ziran.*

Orregaitik, beste gauzarik ezin dogulako egin, ta ezer egin gabe noraezean agertzen garelako, estuagotasunezko bide ortatik agertu zan, antolamendu on-baten bearkuntza elkar batzeko erli- jiñozko arloetan.

7.1. Omosapiensen antziñeko erlijiozko aztiketa⁽¹⁰⁾ edo sorginkeria.

Omosapiensen giza-seme-alabak leen, Ludi onen egille, goiko Jauna, edo Jaungoikua gurtzen eben, eta geroago ta oituran nastu ziranean, eurak usten eben agurgarrizkoak ziran abel, su, gauza, edo ta euren irudizko sasi-jainkoari gurtzen eutsoen.

(1) *Gogamen = pensamiento, consideraciòn, concepto, idea.* (2) *Gure ikusmenetik = desde nuestra consideraciòn o punto de vista.* (3) *Religiòn, (Religare) = juntarnos todos con una misma intenciòn costumbrista, en torno an un SER que consideramos DIOS para en nuestra ignorancia, pedir por nuestras necesidades vitales.* (4) *Ostagi-aldaketak = cambios atmosféricos.* (5) *Giza-samalda = grupo de personas.* (6) *Bereratasunean onezko aukerak = abundancia, prosperidad.* (7) *Aisetasuna = acomodo, desahogo.* (8) *Ekanduan = costumbre, uso, moral o moralidad de nuestros usos y costumbres.* (9) *Suntsitu = desvanecerse, desaparecer.* (10) *Aztiketa = presagio, adivinaciòn, augurio, prediciòn, magia, hechiceria.*

Illak lurperatzeko, euren erak euki ebezan, Arrindatar Anesen *Magia y Religión primitiva de los vascos*-en liburuan ekarten dauan lez, gorputzak baiña, beti ekialderuntz bideratuta.

Agurgarrizko jainko orreri otoitz egiteko, leiñuaren aitona izaten zanak, abadeenak egiten ebazan. Eta sasijainkoak ugaritu ziranean, baktzari egin bear jakozan gurketaren ospe edo andimandike-riak, izkuntz-berezi edo nortasun bakoitzarekikoak, euren jendekuntzaren zentzunezko neurriekin gurtzen ebezan, jainkotasunezko era ezberdin orreik.

Orregaitik, sasi-jainko askoko edo politeismo orreitan sartu zirenak ospe aundia emon gurean, asmakizun orreik egiz edo zentzunezkoak biurtzeko, abadeak be ugaritu ziran, eta danon gaiñetik, euren batzarren agindupean bideratzen ebazan ospe aundiz, eskeintzazko gurketa orreik.

Totem edo aberearen gurketara aldatu ziranean, Jaungoikua Eguzkiagaitk aldatzen dabe, eta egiten daben guztia, Eguzkiagaz nastu egiten dabe.

Lurgintzaren jendekuntzazkoak, Amaren-agindupera⁽¹⁾ aldatzen dira, eta Iletargiak daukazan al-daketa guztiekaz nastu ebezan euren gurketako zeregiñak.

Emen abadeenak, edo gurketa orreik bideratzen ebezanak, ama, andrea, edo atso sorgiñak izaten ziran. Buruko ezurraren gurketan be ibiltzen ziran, eta gorputzaren aragiak usteltzen ziranean burua kenduten eutsoen, gero eurak buruko ezur ori gurtzeko.

Artzaintzazko jendekuntzan, Zeruko Jauna, Eguzkiaren Jauntzatasunagaz ibiltzen dabe, eta amaren-agindupean sartuta, zezen, idi, bei, eta beste abere asko gurtzen dabez.

Jainko-askoren jendekuntzan sartu ziranean, irazi ebazan eleiz-ederretan, jainkotasunezko arri-iriduri asko gurtzen dabez, euren abesti, itzaldi, eskari eta eleizkizunetan, al eben arrotasunezko azalpen aundienagaz.

Eta emendik aurrera gizon-emakumeek bizitzeko bear ebezan guztietatik, ainbeste sasijainko agertu ziran.

7.2. Euskaldunen orduko erlijioa eta izkuntza.

Aita Henao, Cejador´tar Julio eta Luzuriaga´lakoak esaten dabe, euskaldunak, beti izan garala monoteismu edo jainko bakar baten eritxikoak.

Olan izan balitz, begitu nundik nora agertzen da Omosapiensen asierazkoak garela, eurak lenengo denbora orreitan, Egille edo lenengo Jaungoikuaren eritxikoak ziralako.

Baiña Anesek beste gauza bat diño: Jaungoikuaren izena, gramatikako arloetan gainberan doan itzaren zentzua dala, euskeraz izan balitz: *jauna* eta *goikua*, edo ta *goiko jauna* eta ez latinkumean idatzitako *jaungoikua*-ren itzagaz.

Eta itz ori geien, orain Xn gizaldikoa izango dala, XIIIn gizaldian Aymeric Picaud frantzez lekai-deak, IIIn Kalixto Aita Santuaren konpostelako *Aymerik en IIIn Liburu Zarrean* esaten dauan lez, euskaldunak Jaungoikuari *urtziaren* izenagaz deitzen eutsiela gero ager-tuko dan lez.

Bai esaten dabe, Euskaldunak Etruskoakin seniduta egon giñela, oneri be *oscas* esaten eutsielako, eta au izan leike, orain 6.000 urte Mesopotamiako Eufrates inguruan Sumeriotarrak kokatuta egon ziran lekutik urten ebelako Etruskoak, gero Arno⁽²⁾ ta Tiber ibaiaren bitartean kokatu ziranak, eta bateratasun guzti auek izan leikezala, irurak Omosapiensen leen oiñarrietako izkuntz eta oituratik etorten dirala esateko, geroago euskal toki-izenak esango daben lez.

Etrusko onein sinismenetan, jainko bat bakarrik on-artzen eben, eta iru ate zabaltzen ebazan, Jano, Jupiter eta Minerbari euren gurketak egiteko.

Jano, señor edo dios esan gura dau euren eraman-onaren⁽³⁾ zentzuan, *euskeraz jaun edo señor* esaten dan lez. Ortik esan leike datozela edesti aurreko *baskos-euskos*-en leiñu bi onein artu-emonak.

(1) *Amaren.agindupera* = *matriarcado*. (2) *Deban dago izen bardiñagaz "Arno-Mendia"*. (3) *Eraman-ona* = *filosofia moral*.

Euskaldunen artean Illetargieri **goikua** be esaten eutsoen, eta beraren gurketakoak aipatzen ba dituguz **jaun goikua (señor luna)** esangura eban.

Ez gintzazan naastu erri-aldan etorri edo emendik aldatu ziranarekin, gure izkuntza eta RH´ak aurkesten dauan lez, eta gitxiago kristautasunean sartu giñanetik **Jaungoikua**´ren sinismenagaz, danon gaiñetik **berari** eskatzen dautsaguzelako bear doguzenak.

Eta orren esangurean azaldu leiken gauzea dala: europeoak, euskaldunak baiño geiago nastu zirala, orain 5.000 edo 4.000 urte Ekialde-Erdetik erri aldan etorri ziran lur-lantzaille edo nekazari ta abelzaiñarekin.

Eta guzti au zeaztuteko, gure egunerarte etorri diran **etxearen** legeak aipatu bear dautsuedaz, zuek berotzeko gogoagaz, ia ausartzen zaretan Arrindatar Anastasioren liburua **Magia y Religión Primitiva de los Vascos** irakurten.

Lenauko euskaldunen artean, garrantzi aundikoa izaten zan sendiaren ekonomi edo buruzpidea zatigabekoa izatea edo etxearena izatea eukezan illobigaz batera, eta ondorengo izaten zanagaitik, ardura orreik aurrera eroatea.

A ta guzti, ondorengo kanpotik geratzen ziran etxeko guztiak, euren tellea eukiten eben, ezkondu arte eskubidea emoten eutsoena etxe artan bizi ta eukiten eban gelan lo egiteko, bai eta bertan ilten bazan, etxearen illobian lurperatzeko.

Eginkizun oneikaz argi ikusita, lenagoko euskaldunen oituran ez zala egon ezeren jabetasunik, bizitzaren ordezkariatzako arremantetan **ardurea** izaten zalako jabetasun guztia.

Askatasunezko demokrazi aundiagorik ikusi leike ?.

Iñork, jabetasunezko norkeririk euki-gabe, danok: sendi, erri, lurralde, ta aberriko etxearen **serbitzura edo arduran egoteko** ?.

Badago beste ikusgarri gauza bat-be **baratza**´ren itzagaz sortzen dana: guk baratz edo baratza, landu egiten doguzan lurrai esaten dautsogu. Eta izen edo deitura ori ez da lur landutik datorrena: **ilten ziran jaio-barriak, etxe alboko teillatupean lurperatzen ziran lurretik baiño**. Geienetan, landatutako ereiñotzaren gerizpean egiten ziranai, kronlekezen⁽¹⁾ antzera.

7.3. Sorgiñak, gezurrezko ipuiak, zitalkeria edo ta zantzailkeriak⁽²⁾ gure Euskalerrian.

Gure Euskalerria zarra da, eta bere sakonezko jakintzan naita zentzu aundienetan, zeatz eta egiz jokatu arren, eizako aberetasunen erasotik asita, ez eben ezagutzen gauzak ta illuntasunak emoten eutsoezan bildurretik alde egiteko, lan-uzteko denboran euren artean alkartzen ziran eta kondaira lez, gertakizunekaz eta ez ezagutzen ebazan gauzakin, asma eziñerarte irauten eben euren jakin-naian, eta bildurragaz gazteak latz-ikartzeko edo ta euren azle edo irakasle lez, gaztigu⁽³⁾ edo oarkizunetan emoten ebazan euren denborak.

Bide orretatik sortuko ziran asma-eziñerarteko aztikeriak⁽⁴⁾, Sorginkeriak, dantza, dantzari, ake-larre ta gure Euskalerriko kondaira zarrak, gauza guztiakin sortzen dan lez, baita onerako antzerki lez ikasteko ibiltzen ziranak, edo txarrerako, ostonduka zemai⁽⁵⁾, mendeku⁽⁶⁾, bildurtzeko begizkoa egin, gazkinaian gibel-asmu⁽⁷⁾, gaiztokerirako sirats⁽⁸⁾ ibiltzen ziranak eta abar.

Orren gaiñetik, eukiten ebazan arremantari eta txantxetan asten ziranean euren artean gatz apurbat emoteko artu-emonari, adarra jotea edo zantzailkerietan⁽⁹⁾ jolaztea izaten zan baserritarren euskal

(1) Kronleke = cronlech, monumento megalítico consistente en una cerca de piedras y de forma elíptica o circular.

(2) Euskaldunen Zitalkeria edo zantzail-keriak = picaresca delos vascos. (3) Gaztigu = aviso, mensaje, desengaño, castigo. (4) Aztikeria = magia, hechiceria, brujeria, encanto, sortilegio, presagio. (5) Zemai = amenaza. (6) Mendeku = tirria, espíritu de venganza. (7) Gibel-asmu = con segunda intención. Gibel-asmukoa izan = ser hombre desegundas intenciones. (8) Sirats = intención, deseo íntimo, bado destino. Gaiztokerietan sirats ibili = incrementar las malas intenciones en la adversidad. (9) Zantzailkerietan = pilleria, granujada, holgazaneria, truhaneria.

joko nagusiena, atzean edo lotsatuta ez geratzeko, ausartasun edo eurak eukiten eban trebetasun aundiena erakutsi bearrean geratuz, maltzur edo egi-biurrezko joko orreitan irbazle urteteko. Euskaldunak, siniskeritsuak⁽¹⁾ izan ote ziran ?.

Ez !!.

Nai-ta sorgingotasunaren ekanduzko arloetan, sorgin guztien irakaslea *anbotoko mari* izan.

Ala, illuntasunak emoten ebazan bildurragaitik izango ote zan guzti ori ?.

Dana dala, amarru-gabeko⁽²⁾ euskaldun edo kanpostar bat txantxetako joku orrean inguruan jausten zanean, burua naiko nastuta eroaten ebala bai. Euskalduna beti izanda egi-zalea, eta amarrubageko bide ortatik sartzen ziran adarra joteko maltzurkeri guzti orreik. Gure aitite-amamarentzat, sorgiñak eta sorginkeriak ez ziran guztiz egizkoak izan, euren arteko asmakizunetan joku lez ibiltzen ebazalako, baiña katolikotasunaren inkisiziozko menperatzaileak ezpata ta suaren legeakaz agertu ziranean, eurak asmatutako siniskeriak euskal eta munduko giza guztiaren buruetan sartzeko, berezko errigizarteetan ibiltzen ziran asmameneko joku orreik egi-lez artuta, ikaragarritzko triskantzak egin ebazan erritarren artean.

Ortik aurrera eta suaren oitura be kristautu egin eben ostean, euskaldunak Jaungoikoari egiten eutsoezan eskari guztietarako Gurutzea ibili dabe gaurko egunerarte.

Euskaldun guztiak irakurri bear leukie Anastasio Arrindak 1.985ean idatzi eban: MAGIA Y RELIGION PRIMITIVA DE LOS VASCOS.

7.4. Eta emem Iriondotar Mikelek arrazoiz esaten dauana:

Euskalerrian, Kristautasuna ta sartu ziran aurrerakuntzazko trebetasun guztiak, geiago sartu ziralako jakintzazko trebetasunaren artu emonetik, endak nastu bidetik baiño.

Orregaitik: gure jendekuntz aundiko euskal nortasunezko izkuntza, European Indoeuropeizatuta ez dagon azkeneko izkuntz bakarra dala, esaten dau.

Mikelek eritzi au nabarmentzeko: *Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo besteganakoa*⁽³⁾ *esaten dau*, eta Ludi onen gizakumeari kokameneko toki-inguruaren eragipenetik kanpo, etorten ziranakaz edozelan nastuteko zeozerk bereizgarritzen badautso, daukan trebetasun edo gaitasuna⁽⁴⁾ dirala. Eta euskalerrian onetatik, europatik bezala, danak aldatu dirala esaten dau.

Ez jakien gertatu bardiñ, leenengo Omosapiens edo euskal eragipenetik urrundu zirenai, euren leiñuen naasteakaz erlijioan nastuta, edozer gauzaren gurketara aldatu ziralako.

Begitu, nundik-nora agertzen jakun gaurko euskaldunai Omosapiensenekoa *arbasoen aitortza*, gure *Jaungoikua, izkuntza eta oiturazko sinismenak* orduetik daukaguzelako gure *askatasunaren demokrazizko izaeran*, gaur erakutsi egiten dogun lez, eta *oiturazko Lege Zaarretan* irarrita daukaguzenetik be, erreza atara leikezanak.

Orregaitik dakigu gaur Zubiaga eta Legarreta'tar Felix'ek esaten dauan lez: *euskerea* al dalako izkin bakarreraiño eldu leikena, orain ezin dala esan alderatzaileak esaten daben antzera: *euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala*.

Bere izatean, bera dalako berezko aitortzaile, oguzpeneko mintzoeraren⁽⁵⁾ jaiokeratik.

Eta *euskerea* orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan *izkuntz bakarra* dala.

7.5. Oar txiki bat.

Erri legean, edo demokrazian sartuta gagozela esaten dabe batzuk, baiña sekula ez gara aukera orreitan ezarriko, antziñatik etorten dan norkeriaren zentzuzko maltzurtasunean geiegi kokatuta gagozanen artean.

(1) Siniskeritsuak izan ziran ? = los vascos eran su-persticiosos ?. (2) Amarru-gabeko = ingenuidad, sinceridad, candor. (3) Besterekiko edo besteganakoa = relativo. (4) Andi-gaitasun = propensión a crecer. Gaitasuna = idoneidad, capacidad, habilidad, disposición. (5) Oguzpeneko mintzoera = pronunciación articulada.

Laster izan bear dana, Jainkoaren Lege aurrean, txarto egiten doguzan gauza guztiagaitik mugatuta egonda, premiazko larritasun oneri irtenbide bat emon bearrean gagozelako.

Euskaldunak, ez doguz galdu bear aurkezten jakuzan aukera oneik, gure nortasunezko eta ordezkoko ardurak berreskuratu gura ba-doguz.

Orretarako baiña, euskalerraren askatasunezko elburuari danok batera begitu bear dautsagu, nai ta politikaren ezberdintasun talde-kideetan lan egin.

Beti, lelokeri barik, eta buru belarri sartutako ekintzan, gure arbasoek emon euskuen *Lege Zarra-
ren* edo erri legezko⁽¹⁾ zentzuaren ardurean lan eginda, espainolaren menperatasunezko eragipenetik urten gura ba dogu (*len bait len izan bear dauana*).

7.6. Orregaitik salatu bear dogu emen, zergaitik ez garan munduko gizatasunaren *etorki* edo *guraso ondokoak*.

Orain, au da emen galdetu bear doguna: Zergaitik, Santimamiñe, Ekain eta Altzarri'ko arzulo edo leize zuloetan marraztuta agertu diran irudiak *Munduko Gizatasunaren ondorekuak izendatu*, eta izkuntz guztien artean zaar eta ederrena dana, baita gaiñera mintzatzeko berbearen leengo itz otsak eta berbearen irudimendutasunak ulertzeko euskeratik argitu leikezanen artean garrantzi aundienekoa izan da *euskerea, zergaitik gizatasunaren ondorekua izendatu ez* ?.

8. Legeak.

Ludi onetako gizaren edestiari, ezeren antolamendu barik begitu ezker, luzeegi, illun edo ta urrun agertzen jakuz gure irudiminetan bere gertakizunak, baiña gure antzera, ikertzailetasunezko begiakin begitu ezker, oso urbil agertzen jakuz beren garrantzienetariko zati edo gertaerak, jarraian gure doguzan edozein ondorioak argitzeko.

Orregaitik Omosapienseko arbasoek, Paleolitiko-Neolitiko aldiak amaitu orduko, lortuta euki bear izan eben gizarteko bardintasunak, eta Eneolitiko alditan agertu orduko, guztiz egokituta askatasunaren demokrazizko ekanduan.

-Bestela, gaurko euskaldunen baitak ez eban eukingo ekanduzko indarririk, edestian zear euki dauan eta gaur egun daukagun katoliko-menparatzaillaren zapalkezko alegiñetatik urteteko.

-Euskaldunak, ez gendulako ain sakon eukingo, daukaguzan askatasunezko demokraziaren egarriak, eurak ainbeste milla urtetan, demokraziaren ekanduzko oituran ez ba ziran bizi.

Leinuaren lurraldeko ardurean bizi ziran euren errigizartearen antolakuntzan, gure denboretaraiño eldu dana.

Bestela ez da ikusi baiño bear, gaur zer direzan Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Lapurdi eta Ziberotarrak, gure Euskalerrri onetan, eta zer zan Europa barruan Griegoaren antolakuntza, jaurkintzazko politikan sekula ez ebelako euren urietatik kanpo urten, arik eta domukeriaren⁽²⁾ menperatzailetasunezko ekintzak asi arte.

Europa osoa egon zan demokrazizko itxura orreitan antolatuta, euren leiñuzko batzordearen babespean. Euren ardurak zaintzeko, geiago bear ote eben ?.

Gaiezko mundu oneitan, iñor ez da nor, legeak, norberen gogoko burutasunaren irudimenetik sortzen diran lez legeztuteko.

Zergaitik ?.

Mundu onen len-gaia eta gurea lege bardiñean eginda dagozan lez, eta gure oiñarrizko sustriaiak bere lege-gaian erperatuta dagozelako, izaerazko egokitasun orreik dira guri debekatzen dauskuenak, lege arloetan nai-doguna edo gure naia egiteko.

Orregaitik, guk edozein gauzatarako egiten doguzan legeak, bereztutako Izadi onek erperatuta daukazan egizko legeditik bakandu edo argira atarata, bakarrik legeztu geinkez.

(1) *Erri-legezko* = *Demokrazia*. (2) *Domu* = *capital*. *Domukeria* = *capitalización excesiva, usura*.

Gure Kromañon-arbasoek ainbeste milla urteko ikas-bizitzan ondo baiño obeto ulertu eben bezko legetik-kanpo ezin zitekela bizi, eta oso-osoan artu eta oituratu ebazan ikasgai guzti orreik *Euskalerriko Lege Zarraren* bidetik.

8.1. Euren senidetasunezko izkuntzagaz, erlijio ta legearekin, aberri batekoak lez senditzen ziran ?.

Orduko Mundu ezagun guzti oneitan, Aberkuntzaren burutapenik⁽¹⁾ ez zalako egon, euren lurraldeko leiñu batzarrakaz, eta leiñu orreik euren auzotasunean euki ebezan izkuntz bateko batzar nagusien elkartasunean⁽²⁾, antolamenduta bizi ziran.

Zer gura-nai dau esan, egokitasun orrek ?.

Aberritasunezko itza oraindiño agertu barik egon arren, izkuntz batekoak izanda, ta leiñu bakoitzaren nortasunagaitik, euskalki antzekoetan zabalduta egon, baita sinismenean, odol, eta oitura batekoak izanda, senidetasunaren sendimenduzko arremarik ez ebela eukingo ?. Orduko Europaren Euskalerrria zabala izan arren, borrokak baiño geiago, artu emon onak euki bear ebezan, bestela ez eben lortuko, azturazko bidetik lortu eben izkuntza ta gitxiago, ekanduzko demokraziagaz lortu eben jendekuntzazko garaipen eder orreik, gaurko egunetan gu, ain sinismen sendokoak izateko.

Baiña geroago ikusiko dogun lez, ordezkartzaren zentzuzko ardua demokratiko orreitan, ain sendo oiñarrituta eta euki eben antolamenduagaz, auzotasunaren laterrizko egokitasunean ondo kokatuta egon arren, baten bat agertu bear zan garbitasun orreik lokaztuteko, eta agertu be ei ziran, beti sasi-jainkotasunaren mozorrotasunagaz.

Mozorrotuta agertu ziran batzangotasunaren zaleentzat edo ta menperatzaile asmakuntzazkorentzat euren *veni, vidi, vinci-gaz*, denbora baiño besterik ez eben bear, euren naaslarritasunezko guzur eta bakaltzale sakratuaren⁽³⁾ ziri bidetik, gure artean siñistu ezin diran okerkuntzazko alderdikeri ta maltzurtasunezko ondorio ganorabakoetan ezarri edo kokatu gaitezcan, euren mendeko garaipenak lortzeko.

Eta jarkera orreitan edo menperatzailetasunezko jarkera orreitan gagoz gaur be. Baiña, betiko menperatzailearen arrazoi-gabeko edo maltzurrezko esanari aurrera urtenda: Euskalerrria, Mundu ta Europa onen *errria dala* esan bear jakie, gaiñera, *garrantsienetariko* bat, oraindiño beragan geratzen diralako milla urte askotan ikasita, *bereztasunezko legearen ulermenak*.

8.2. Nun, edo nungo zabaltasunean bizi ziran Euskaldunak, Paleolitiko Neolitiko eta Eneolitiko aldian ?.

Omosapiensek goian esan dogun lez, Afrikatik urten ebenean, Europa eta Asiatik zabaldu zan euskeraren aurreko itz-ots edo leen euskerazko izkuntz ta oitura bardiñekin, gero ikusiko dogun lez, toki izenak alan esaten dabelako. Eta gaurko Euskerazko azturan, Atlant-itsasotik Alemaniaren erdiraiño, eta Eskoziaren erditik Kadizeraiño.

Orduan ezagutzen zan demokrazizko jendekuntza mundu osoarena izan arren, esan dogun azkeneko lurralde zabal oneitan sendotu ziran euskaldunak izan zirala, gaur arte ekarri dabezanak euskal izkuntz eta askatasunezko demokraziaren zentzu eder oneik.

8.3. Jakintsuen esanetan, ori da: *Aurreko jendekuntz-galdua dana?*

Ori esaten dabe, eta ainbesteko nabaritasunagaz gogoratzeko, Europako euskal arbasoen usaiña-gaz lortu eben jendekuntz ori, ederra eta sendoa izan bear zan, bestela ez eban eukingo gaur egunetan oraindiño daukan ainbesteko gogorapenik.

Eta gitxiago, orain argituko dodazan toki-izenetan, ainbeste euskal-eragipeneko ugaritasunik.

(1) *Aberkuntzaren burutapenik* = no se conocia la palabra o acepción de NACIÓN. (2) *Elkartasun* = o anficionia = a modo de las confederaciones de las antiguas ciudades griegas. (3) *Bakaltzaille-sakratuaren* = absolutismo-sacramental.

8.4. Mundu zabalean, Euskal toki izenak eta itzak.

Toki izenaren⁽¹⁾ zentzua ulertzeko, gure gogarketetan garrantzi aundian euki bear doguna auxe da: *Izen jeografiko batek asieratik gaur arte iraun dagian, izen ori errotsu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan*, eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Beko-Paleolitikotik asi ta gaur arte ikutubako berbak daukaz, Asia ta Afrikako leen gizarteak euren errekarari eta abar emon eutsezan izenak: Ibai-rio, Ibi-vado, Ibar-valle eta abar. Eufrates ibaia bera deitzen zan buranu = urnammu, zeru guztia *ura* izan zala gogoratzen ziralako: *ura = ur+anu = agua* del cielo.

8.5. Afrika, Asia ta Europan:

Erreka, mendi, toki ta erri izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko euskal itz asko dira. Orain jakintsuak argitzen dabizena, eta azkar esan leike, lendik eginda dagozan lanak, sakonak diralako.

Europan, erreka askoren izenak, itz bardiñakin emoten dabez euren esangurak ezagutzera, edo euren oiñarriaren sorburuzko itz bardiñakaz bai beintzat.

Susterrezko itz bat, *is* adizkia⁽²⁾ da: Noruegatik asi ta Italiaraiño, Espainatik Errusiaraiño, ta Bretaña Aunditik Balkaneseneraiño 200 errekatatan baiño geiagotan aurkitu diranak, adibidez:

-Noruegan Isselfjorden edo Isa Italian.

-Errusian Isainka edo Ieslà Lituanian.

-Txekiako Errepublikan Jizera edo Ijssel Beko Errietan⁽³⁾.

-Euskeran *iz* berbea, *s* lez esanda: *ura* edo *ur* lasterra esangura dau.

-Izen itzak, era bardiñetan agertzen dira ur (aur), var (ver), sal (salm) edo al (alm).

-Ur itzak ur geza⁽⁴⁾ edo ur gazi⁽⁵⁾ esangura dau, eta *ura* ur tira edo ur lasterra⁽⁶⁾.

-*Al* eta *sal* itzentzako be, esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko Izkuntza aldi baten, oso zabala izan zala erakusten dabela.

-Izen onein esaerak, beste ainbesteen artean, adibidez: Noruegan *urula*, Bretaña Aundian *irwell*, Beljikan *ourthe*, Alemanian *auerbach*, *ur-bach*, *aurach*, Austrian *irrsee*, Frantzian lenago *urofia* izan zana eta gaur *aroffe* eta *huriel*, espainian *urura* ta *urola*, Polonian *urwis*, Errusian *ura* eta abar.

-Alemanian *var* adizkia daukien izenak: *warne*, *werre*, *warmeno*, *warme*, *aue*, dira.

-*Sal* adizkia dauken izenak: *saale*, *sale*, *selz* (salusia), *selke* (salika).

-Eta *al* adizkiagaz: *aller*, *alm*, *bi alme*, bata *almana* eta bestea *almara*, *ahla*, *elte* (alantia) eta *elz*.

-Erdi-ugarte onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: *alba*, *alenza*, *almar*, *almanza*, *al-monte*, *almantes*, eta abar.

Lenagoko izkuntzaren izenak be, oiñarrizko itz orreitatik etorri leikez, orduko gizarteen leiñuak, erreka edo lurraldeek euki eben alderdi eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebezalako.

Erdi ugarte onen Iparraldean, Erromatarrak *iberus* esan eutsoen Ebro ibaiari.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko Itsasoan bota arte, danak euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran.

Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun aundirik egin, euskeraz *ibai* errekea dala esateko eta *ibarra*, errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan *ibar* zelaiari.

Guadalajarako erria, Segobia, Soria, Zaragoza⁽⁷⁾, Teruel, Kuenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, antziñan euki eben izena *arriaka* izan zan.

(1) Toki-izenaren=topònimos. (2) Is adizkia = elemento berbal. (3) Beko-errietan = Paises-Bajos. (4) Ur-geza = agua dulce. (5) Ur-gazi = agua salada. (6) Ur-Lasterra = corriente de agua. (7) Zaragoza=Bere antziñako izena Salduba zan.

Erromatarrak etorrira, Toledotik aldatzen zan Zaragoza Meridaraiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban, eta Mauritarrek etorrira Guad ilhijiarahren⁽¹⁾ izena ipini eutsuen, gaur euren gaur datorren Guadalajara izenagaz ezagutzen doguna.

Ernest Försteman alemanak (1.822-1.906) germaniar eta amerikar izkuntzalariak XIXn gizaldi erdian toki izenen azterketan ibili zala: errekaen antziñako izenak, *leunkatubako*⁽²⁾ bitxiak zirala esaten eban.

Vennemanntar Theo, germaniar ele jakintzaren maixua⁽³⁾, Fostertar Peter, Kanbridgesko Ikastetxe Nagusian genetikaren irakaslea ta Hameltar Elisabeth barrien idazleak esaten dabena:

Ebersberg erria, Babieraren goi aldiaren Ebrach ibaiaren ondoan kokatuta dagoenean baiño, aurre-ratsuago basalde zabal, abartsu edo ta oiantsua dagoen tokia, Erdi Aroan *Eberes-perch edo Epa-resperc* izenagaz esagutzen zala.

Uri orren izena, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber = basurde, bas-auntz edo orein eta Berg = mendi) esan leike, eta euren armarrarian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza baiña ez da olan, Ebrach izena eredu lez artuta, Ebersberg izena Ibai esan gure daualako, eta apur bat estututa Ibai Ibai ipini eutsuen azkeneko *ach* ori euren Ego aldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten *ibai* esangura daualako.

Frantzian, izenak gaiñera ainbat *eber*-ekin asten dira, nai ta beste izkuntz senditik etorrira doiñu ezberdiñak euki.

A ta guzti, ainbat: *ebreon, ibarrolle, evrune, ivry, ivors, averdon, avricourt, avrolle, yvre* eta ainbat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Frantzezez ez dagoz izen orreik, (nai ta Aleman izkuntzan *eber* basurdea izan) basurdearen izenagaz elkartuko dauzanik, basurdeci euren izkuntzan sanglier esaten dautsielako.

Orregaitik eber izen orrek berak bakarrik erakusten dau: Erri biak, bata besteagandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren errotik artuta, erreka edo *ibaiaren* adi-muga⁽⁴⁾ daukala.

Lenago adizkai oneik ez ziralako ondo adierazpenduta egon, Renfrewtar Kolin Ingles arkeologuak, beren adierazpenarekin bidera urten da, esaten eban: *Indojermanoak edo erri guztien artean ezagutzen diran indoeuropeoaren izenarekin, berandu etorri zirala eta Europara etorri ziranak nekazarien bardiñ antzeakoak zirala*, eurokaz Europaren Neolitikoa egokituta.

Zataraintar Anbrosio aipatu bear dot emen Euskerea-Aleman-Euskeraz itzultzeko egin eban *du-den* iztegia, askeneko orrazketak berak ezin ebalalako emon, arrigarrizko lan eder ori ametsezko bidean geratu da.

Berak aurkeztu eustan itzezko zerrenda aundi bat: idatz eta esan bardiñak euki ebezan Aleman ta Euskerazko itzak, eta damu naz aren bir-idazki bat orain ez eukitea.

8.6. Krutwigtar Federikok esaten dauana.

Krutwigtar Federikok esaten dau, Europara indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa eta Asiaren zati batean, jendekuntz aundi baten, oiñarri bateko izkuntz ezberdiña-kaz mintzatzen zirala eta nastu egingo zirala, agertu ziran erri lapur edo sartzailleakaz⁽⁵⁾.

Krutwigek, alkarganatu⁽⁶⁾ egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertu ziran Troya⁽⁷⁾, Sumeria edo ta Babiloniakoakaz.

(1) Moruen izkuntzan arriaren erreka esangura dauana. (2) Leunkatu-bako = sin pulir. (3) Catedratico. (4) Adi-muga = definición. (5) Sartzailleak=invadores. (6) Alkar-ganatu = relacio-nar. (7) Troya'ren ariñagoko izena Ilion izan zan, Euskeraz ili = iri, Uria esan gura dau.

8.7. Italian Euskerazko toki izen eta itzak.

Italian, euskerazko toki izenak: Liguria⁽¹⁾, Etruria⁽²⁾, Oszia'n⁽³⁾ egon zan kokatuta Osko erria⁽⁴⁾, guztiak Sizilia ta Alpesetan dagozenak.

Alpe itza, euskerazko Arpe (Arpe, aizpe = cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatic datorrena da.

Alpeseke toki izenak *aostan*:

-Artavoz: arta = roca⁽⁵⁾, naba = planicie, otz = fin.

-Ayas: aia = vertiente, as = de atrás.

-Arbelei: arbel⁽⁶⁾ = pizarra, ei⁽⁷⁾ = punta.

-Arieta: Arrieta (arri tokia)

-Arroil: garganta montañosa (euskeraz bardin).

-Arrobi, arpe, aran, arpeta: nido de aguilá (arrano abi), bajo la piedra, valle y valle bajo las piedras (euskeraz valle=aran da).

-Gane: cima (euskeraz bardiñ esaten da).

-Lesache, lessona, lezetta: sima (euskeraz: lezea, lezona eta lezeta dira).

-Loy: loi (euskeraz: barro, tierra húmeda).

-Orio: Gipuzkoako errekea bezala.

-Oyace: oiane (selva).

-Oren: orein (ciervo), eta abar.

Lonbardian: izen asko dira *ate*´an amaitzen diranak eta euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin:

-Puerta, paso esan gura dau.

-Albizzate, alzate, lazate, velate, lurate, lainate, azzate, eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.

8.8. Elexpurementzat:

Iru lurralde dagoz euskal-izen oneik argi erakusten dabezanak.

-Andiena: Piemonteko Iparraldea (italieraz *piamonte=arpe*=al pie de la montaña, euskeraren antzera Auñamendi lez (al pie de la montaña) eta Oñamendi Pirineosen euskerazko izena.

-Lombardia, Aosta⁽⁸⁾, eta Suizan, Ticino edo Tesinoko erri-aldean.

-Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: *azasca, andrate, aranno, artore, arbedo, arese, ariz-zano, arona, arola, arrobio, arzo, ascona, balzola, barasso, bettola, biasca, gabiola, gauna, gazza, gordola, landarenca, lesa, oria, ossola, zubierna, eta bar.*

Liguria lurraldean, batez be Savona inguruan eta bere Iparraldean⁽⁹⁾: *aiona, albissola, ardola, berri, carcara, olano, orba, ormea, sabona, varezze, eta abar.*

Ladinian⁽¹⁰⁾: *agordo, andraz, arabba, ardo, arta, gardena, gares, lasa (tirol), maia, mendola (trentino), padola eta abar.*

Milanetik, erreka bi aldatzen dira: Lambro (euskeraz niebla esan gura dauana) eta Olona (avena´ren lurraldea ?).

-Frantziagaz muga egiten dauan *ubaye* errekea.

-Ladinian: *ega* ibaia.

(1) Liguria, Genoba inguruan, III.n. Gizaldian erromatarrek menperatu eben erria. (2) Arno eta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria. (3) Oszia, Erromaren Ego Ekialdeko Kanpianian. (4) Len euskerazko orde izenak Erdi Ugarte onein tokietan dagozenak eta Asturias ta Galizian batez be. (5) arkaitz = roca. (6) ar-bel = pizarra. (7) Ei = punta. (8) Milan eta Milaneko Iparraldean. (9) Jenobatik urbil. (10) Ladinia, Tirol ta Trentotik ur.

-Dolomitaseko mendietan: *bai de doneseke aintzira edo ur geldia. aiarnola, arlas, arblatsch (tz doñuagaz), atalalta, cima de gana bianca (euskeraz bardin), ormea, eta abar.* Alpe-seko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz –ascaren amaieragaz, euskeraz bardin esan gura dauanak: *val di anzasca, val di verzasca* eta abar.

Lurralde orrean Izkuntz ta mintzadarren artean be sortzen dira bateratasunak: asciola = acha (euskeraz aizkora).

-Astore = cernicalo (euskeraz aztore).

-Baita = borda (casa del pastor).

Txistuka esaten diran *tz* eta *z* geiago dira euskerarenak orko izkuntz latínoarenak baiño.

8.9. Emen, derrigorrezkoa da aitatzea.

Alpeetan, Aleman, Italiano ta Frantzes izkelki edo mintzadarretan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.

Adibidez:

-Romance, Suizan % 0'7, 50.000 giza seme/alaba.

-Ladino, aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitasen erdian 10.000 giza seme-alabak berba egiten dabena.

-Friuli, Austria, Eslovenia eta Italiaren muga 500.000 giza seme-alaba.

-Occitano, Piamonteko lurraldean 200.000 giza seme-alaba.

-Esloveno, Piamonteko mugan, Trieste eta Gorizian 80.000 giza seme-alaba.

Alpes eta Kaukasoren gertakizunetan mendi andien babesean, izkuntz geiago bizi dirala eta euren nortasunak obeto zaintzen dirala ikusten dogu.

8.10. Alpe-seko errietan euskal mitolojian bezela, antzeko gauza asko dau-kiez artean.

Italian beste toki izen batzuk: Ligurian: venasca.

-Genovan: benasco.

-Pavian: beaschi.

-La Chapelle: benêche.

-Vaucluse: venasque.

-Napoles ta Kampanian: ausona ta liberi.

-Salermon: orria.

-Potenzan: anzi, abriola, banzi, eta abar.

Siziliari buruz, garrantzizko gauza da, 25urtetik 101era bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana aipatzea: Siziliako alor edo soroak⁽¹⁾ leenengo landu ebezanak Oñamendi edo Pirineosetik bera joan zirenak zirala, eta euren lurraldearen erreka aipatzea bearrezkoa izanda, euren ezagutzazko gogoketan ulertu egiezan: *zikanos* zirala esan eben.

Zikano berbea, baleike Oñamendian⁽²⁾ dagon Zinka ibaiaren izena izatea.

Naita ziurtasun guztiagaz egon ez.

(1) Alor edo soroak = campo de cultivo. (2) Oñamendian = Pirineos. (3) Toki-izenak = topònimos. (4) Landa = nai-ta keltiar berbea-be ba dala, gogoratuz.

8.11. Eskozia, Gales, Irlanda ta Ingalaterran Euskerazko toki izenak⁽¹⁾:

Zalantza aundiko berbak dira: barri edo berri adizkietan amaitzen diranak.

Landa berbea adibidez⁽²⁾, edo Irlandan, Gara ibaia.

Eskozia eta Irlandaren meaguneko lurretan: carrick berbea (karr = piedra) edo scoth (-sk doñuan, eusko, ausko edo basko lez) ta Glasgow (gasko doñuan).

8.12. Kaukasoan:

Zalantzazko berbak eta sinisgabekeria artu bear diranak dira, Jeorjian adibidez: Gorbeya (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra lez).

-Armenian: Ararat mendia (Araba, Gipuzkoa ta goi aldeko Nafarroaren bitartean dagoan Aralar mendi eta edo mendi besanga lez).

-Edo Gora (lurralde orrean izkuntzan Montaña esangura dauana eta Euskeraz Arriba).

8.13. Bereber inguruan:

Zalantzazkoak dira: Magdalenienese garai alditik datozen berbak barri abotsean amaitzen diranak, adibidez: *Sugabarri*, *Zuchabarri* (Ptolomeo), edo *Sucbar* (Pliniok).

-Eta beste batzuk, euskal toki izenak osotzeko ekarten dauan adizkiakaz⁽³⁾, adibidez: gar)a (altura), garb, garian, gardaya eta abar.

8.14. Karl Bouda aleman⁽⁴⁾ euskalaria, eta errusiaren izkuntzako berarizkoak⁽⁵⁾, esaten eban:

Euskerea eta Siberiako izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu⁽⁶⁾ egin ebazala, argi ta yrgi (luz) berbaren arteko legez.

-Bele (cuervo), lepo (cuello), gurdizka (carreta), elur-lera edo elur-narraren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen⁽⁷⁾ artean esaten dabe: euskerea ta uraleseko izkuntzarekin, Fines, Ungaro, eta Siberiako Obi ibaiaren ibarrean bizi diran errien *fino edo sendi-ugriara*⁽⁸⁾, *suomiera*⁽⁹⁾, *laponiera*, *ungariera ta abar*, *Ostiaren izkuntzakaz*, *kidetuta dagozela*.

Mitxel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxeniketik be ikertu ebezan zitekezen orreik, eta iztegitiko zenbaketari biderearen emonak beti izan ziran %tik 5 baiño gitxiago.

A ta guzti euren esana: Euskerea, Uralo Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoena da.

8.15. Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokিতuta arri-aldia amaitu zanean 1.000.000-3.500 eta Eneolitiko edo arri-alditik Tupiki edo brotzezko aldian K.a. 3.500-1.400 sartu ziranen ?.

Ikusi dogu, zelan aize ta lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billa aurrerakun-tza aundia emon ebela, zitu, bii, ale edo Fruituak ugari artzeko.

Orregaz batera, euren denborak be nasaitzen asi jakiezan, giza legean aurreratzeko eta bear ebezan arri landuak trebetasunean egokitzeko.

(1) Toki-izenak = topònimos. (2) Landa = nai-ta keltiar berbea-be ba dala, gogoratuz. (3) Adizkiak = elementos verbales. (4) 1.901ean Anburgon jaioa ta 1.979an Erlangen il. (5) Berarizkoak = Especialistas. (6) Argiratu = Descubrir. (7) Bera-rizkoen = especialistas. (8) Uraletako izkuntz ugariaren artean adar nagusienana dana. (9) Suomiera = Finlandiako erriaren izkuntza.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, bakoitzaren batzar ta izkuntzapean Atlant Itsasotik Urruneko Asiaraiño, ta Europaren Iparraldetik Afrikaraiño.

Orduko lur zabal aiek, mutur batetik bestera joateko oiñez ibilita, lar urruti geratzen ziran lez, leen Euskerazko errotik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten azkortu ziran, eta denbo-rearen irauntasunekin asken baten, naita erpe batekoak izan arren, eta leiñuaren auzotasunagaz arremanak euki, izkuntz ezberdiñetan egokitu ziran.

Eta milla urte askoren igarotasunean, euren arteko jakintzak aldagarri edo trukagarritasunezko ekintzan bizi ziran, nortasunezko askatasunaren arteko *lots edo begirune* ta demokraziaren ekandu bidez, bakezko zentzu aundiak lortuz.

Euskalerrria ikusi dogun lez, or, Atlant-itsasotik Alemania erdiraiño eta Eskoziatik Kadizeraíño lortu ebal bere jendekuntz aundia, Ekialdetik norkeriaren menperatzailetasunezko gogo ta oiturak agertu ziran arte.

Eta Euskalerrriko edesti au aurrerantza joaten danean argi ikusiko doguna, gure euskal lurra zelan joaten dan murrizten, naita Euskalerrria berak, bere nortasunaren ekanduzko zentzunetik ezer galdu-gabe, eta batera, menperatzailearen alegiñak bildugarrizkoak izan arren, ez dirala izan gai, euskaldunak Jainkoari begira lortuta daukaguzan ekanduzko sinismenak ezereztutea, toki-izenaren aztarnakin sortzen dan lez, irugarren zatitik aurrera ikusiko dogunez.

Eta emen K.a. 3.000ko urtetan eukiten dogu lurraren lenengo murrizketa, Iberoak Afrikatik urten da^{(1)(?)} eta erdi ugarte onen erdi-aldean, Ipar Mendebal eta Egoaldean kokatu ziranean.

Nik ez dodana sinistuten, Ibero orreik leen Omosapiens edo euskaldunak ziralako, eta edestilariak esaten dabezan aldaketak, euren ugaritasunean agertu jakiezan zabaltasunen bearrezkotasunetik sortu ziralako.

Europara ez zan agertu bigarrenez ekialdeko alderraiezko leiñutasunik, arik eta K.a. 2.000 urte inguru Alemaniako lurraldeetan Keltiarrak agertu arte.

3. Zatian

1. Aurkezpena.

Neolitiko Mesolitiko denborak edo askeneko arrilanduen legunketako⁽²⁾ aldiak K.a. 10.000 urtetik 5.000 urterarte izan ziranetik, gero Eneolitiko edo menast⁽³⁾ aldiko denboran sartzeko, aldaketa aundiko denborak izan ziran, eiztariak izatetik, artzain izatera, eta landarearen mozkiñak batzeagaitik lurgintza edo nekazaritzara aldatu ziranean, xautzaille izatetik⁽⁴⁾, egille izatera aldatu ziralako, eta emendik aurrera sartzen gara Mundu onetan sortu ziran jendekuntzetan.

Jendekuntzatan sartu ziralako, estal-it⁽⁵⁾z edo esateko era-bat da, jendekuntzatuta beti egon garalako, edo gai-mundu onetara jaio gintzazanetik bai beintzat.

K.a. 8.000 urteetan Saarako basamortua be, belar-zelai edo bazkalarre aundi bat izan zan denbora orreitan. Neolitiko denborak, bigarrenengo arri erinduaren denborak dira eta Mesolitikoaren aldiak askeneko arri-landuarenak, gero Eneolitiko edo tupiki denboretan sartzeko.

Menast alditan sartzeko denborak, Ekialde Urbillean eguraldi beroagaitik orain 9.000 urte asi zan eta Europan 6.000 urte inguru, negu-giro edo otz aundiko eguraldiak euki ebalalako oraindiño.

Eta 4.500-2.000 urte bitartean sortu ziran orduko gizartearen aldaketa aundienak berotasunezko eguraldiak agertu ziranean.

(1) Iberoak = ez ziran euskaldunak izan, edo euskaldundutakoak ?. (2) Arri-landuen legunketako = piedra pulimentada. (3) Menast-aldia = edad de los metales. (4) Xautzaille = consumidor. (5) Estal-it⁽⁵⁾z = disimulo, eufemismo.

Eguraldiaren berotasunezko aldaketa oneikaz, eizaren oitura apur-bat bastartuta, etxegintzan eta erriak sortzen asi ziran, eta bete beterik arri-landutik, bei, txerri, ardi ta basautzaren eziketara⁽¹⁾ aldatuta, artzainketan edo abere zaintzan asi ziran, domu bidean⁽²⁾ oso osoan sartuta.

-Eltxegintza edo buzingintzan be asi ziran, eta ortik aurrera barazki ta okelak egosiz gain, ura be etxe barruan irauñ-eraziten⁽³⁾ zan.

-Zumel edo mimenezko⁽⁴⁾ otzarak.

-Lumentzan aurkitutako errotea, bii, zitu, edo aleak esagutzen ebezala esangura dau.

-Baita errekan ibilteko zuaitzak ustuten.

-Errioxako Añes, Gazteizeko zelaietan, Elgetan, Atzania, Kalamua, Gorriti, Belate, Landarbaso, Jaizkibel, Ilbardin, Abarratein aurkitu ziran illobi edo illetako-arripil, tregoarri edo trikuarri, jentillarri eta Neolitikoaren aldiko Mairuelegorretan, Surbi, Santimamiñe, Lumentza, Urtiaga, Jentiletxeta, Kastelar, eta Isturitz'eko leize-zuluzko aztargunetik, etxegintzara aldatu ziran.

Euskalerriko seme-alabak bear eben guztirako, oso trebeak izan bear ziran, gauzak egokitzen, eta gauza guzti oneik ez ziran kanpotik etorritakuak, indoeuropeo alderraien aztarnik ez dalako euren euskerazko izenetan aurkitzen.

Emen eta iñoren elkar-naste barik jendekuntzatu ziran Euskalerriko seme-alabak, euren aztura-bideko oituran, eta egiaren edo egizko askatasunaren demokrazian lortu be Ekan-duaren mailla ederrena, gure gaurko egunean oraindiño be *euskal baita lez* agertzen jakuna, fazizta-katoliko-menperatzaillaren zoraldirako.

Orañ, guazan menperatzailletasunak sortzen asi ziranetik zer gertatu zan ikustera.

1.1. Sarrera.

Eneolitiko, edo denbora iragankorra azkeneko arri-alditik, tupiku edo Menast-eko aldiraiño⁽⁵⁾.

Eneolitiko edo Tupiki aldian sartzen garanean orain K.a. 4.000 urte, Altunatar Jesusek esaten dau, ezbardintasan txiki batzuk aurkitzen dabezala, mendi ta ur edo itsaso ta mendi orren erdi-inguruan bizi direnarekin, baiña ezeren garrantzi barik.

Beste gauza bat esaten dau, Ebro ibaitik bera bizi zirenarekin, orduko denboretarako Lurrarteko itsasoaren bidetik sartu ziranakaz nastuten asita egon zirala.

Gertakizun au K.a. 5.000 urte ariñago sortu zan, Iberoak Afrikatik urten da, erdi ugarte onen erdian, Ipar Mendebalean eta Egoaldean kokatu ziranean. (Onek euskaldunak ziran)

Ez eben Euskaldunakin arazo aundirik euki eta eurak jabetu ziran (?) lurralde orreikaz.

Ala euskaldunakaz bat egin edo menperatu ebezan ?.

A ta guzti ez dot uste aiñ erreza izango zenik, euskaldunak urte mordo bat bizi zirelako oraindiño lur orreitan, toki izenak eta euki ebazan euskal itzak esaten daben lez.

Dana dala eta konturatu gaitezana, ikus-begian gorago ipini dogu, zelan Ekialdeko giza, egu-giro beroagaitik, Mendebaldekoak baiño 3.000 urte aurreragoatuta egon zirala, eta nundik asi ziran gizarateko menpekotasunetan, gero mundu zabalean zabaldu zana, eta Paleolitiko-Neolitiko alditan lortuta euki eben jendekuntz ederra, zelan berezko erriak menperatzen asi, ta euren Askatasunezko Demokraziak zirriborrotuz, alperrik-galtzera bota ebela Paleolitikoan lortutako jendekuntz eder ori.

(1) Eziketa = *doma de animales, amansamiento, domesticación*. (2) Domu = *importe, valor, coste, capital, caudal, fortuna, empeine del calzado*. Domu-bide = *capitalismo*. (3) Iraun-erazi = *hacer durar, conservar*. (4) Zumel edo mimen = *mimbre o bara de mimbre*. (5) Tupiki aldia = *edad del bronce*. Menast = *metal*.

1.2. Emen, 2.010ean karmeldarrakin Israelera txangolari joanda Karmelo mendia ikusten joan giñanean, Negreltar Franzizko edo Pako karmeldarrak esan euskuna.

Karmeloren izena ebreutarren izkuntzan, Jainkoaren baratza edo lorategia esangura dau, eta Pako⁽¹⁾ karmeldarrak danon aurrean ipinita Eliasek Jainkoari egin eutson eskeintza irakurri euskun, auxe esaten dauana:

Israeleko Ajab erregeak egun areitan, Isrrael guztia eta Baaleko igarle guztiak, Karmelo mendian batu zitezen agindua emon eban.

Eta Elias jendearengana urbilduta esaten dautse: noiz arte ibiliko zarie besapeko makuluakaz ?.

-Goiko Jauna egizkoa izaten bada jarraitu ezasue, eta Baal izaten bada, Baaleri jarraitu.

Jendeak ez eban erantzunik emon, eta orduan Eliasek esaten dautse: ***Neu bakarrik geratu naz Goiko Jaunaren igarle, Baaleko igarleak 450 izan da.***

Zekor bi emon daizkugula eskatu eban, eta zuek gura dozuen zekorra aukeratuta, zatitu ta egurraren gañean sua biztu barik apainduta ipini egizue, nik bardin eginda.

Zuek, zuen Jainkoari dei egingo dautsazue, eta nik ***goiko Jaunari***, eta sua bialduta erantzuten dauan jaunak, a izango da benetako ***Jainkoa***.

Eta jende guztiak baietza emon ondoren, Eliasek Baaleko igarleari esan eutsen: Zuek geiago izan ezkeru aukeratu egizue zekorra eta apaindu, sua piztu barik.

Alan egin eben eta goizeko lenengo orduetatik eguerdirarte ibili ziran euren jainkoari sua bialdu egian eskatzen: ***Baal jauna, sua bialduta entzun egizuz gure eskariak*** aldare ingurutik saltoka ibilita.

Eliasek eguerdirantza, euri begira barreka asi zan, berba oneik esanda: ***Baal jauna da, baiña arrabots zaratatsu geiagorekin deitu deutsezue, baleike gogaketan, lanpetuta, bidai baten, edo batek badaki lo egiten egonda esnatzen bada.***

Baalen igarletarrak etsitasunean, euren oiturazkoa zan lez arrabots aundiagoak eginda, eta gorputzetan aizto ta burni-ziriakaz ebagiak egiten asi ziran gorputz guztia odolez bete arte.

Eta eguerdia igarota, larri aldiko zorian⁽²⁾ sartu ziran, areik eta eskeintzaren ordua eldu zan arte.

İnungo erantzunik ez zalako agertzen, Eliasek jendeari esaten dautso: ondoratu zaitezte, eta Jainkoari eskeintzeko apurtuta egon zan aldarea, konpontzen asi zan.

Baiña ez edozein eratarra, Jainkoak berari len Isrraelen izena artu bear eben eran baizik: ***Eta Jakob-en Isrraeldar amabi leiñuaren itxurapenean amabi arri artuta, aldarea konpondu eban.***

Aldare inguru guztian erretena edo urbide andi bat eginda, zekorra zatitu ondoren, aldareko egur gañean ipini ebazan zatiak ondo apainduta, ta jendeari esan eutson: lau txanbil-ontzi aundi, uragaz bete egizue eta bota zekorra egurraren gaiñetik.

Iru bider egin eben orretara, zanga guztia uregaz bete arte, eta Elias igarlea ezkeintzaren ordua elduta, aldare ondora otoi egiten urbildu zan: ***Jauna ! Abraan, Isaak eta Isrraelen Jainkoa, Jende auek ikusi dagiela Zu zarala Isrraelen Jainkoa eta ni zure serbitzaria, eta eskeintz au, Zure aginduz egiten dodala. Erantzun Jauna, jende guzti onek jakin dagin zu zarala benetako Jainkoa.***

Eta jainkoak zimizta bat bota ondoren, ura, aldare, zekor zatiak ta arri guztiak kizkalduta geratu ziran.

Jendeak a ikusita, danak aldarrikatu eben ***bera*** zala egizko ***jainkoa***.

Eliasek orduan, Baaleko igarle guztiak arrapatu egiezala agindu ondoren, eta Zison ibaiaren ur-amillera⁽³⁾ eroanda, danari buruak moztu eutsezan.

(1) Pako karmeldarraren izena Aita Negrel'tar Franzizko da, eta Jerusalemenean ezagutu neban. (2) Larri-aldiko zorian = en situacìon de trance. (3) Zison ibaiaren ur-amillera eroanda = llevados ala torretera del rio Cison.

Gero, euren lekaidetxe edo beko eleizaren inguruko zuaitz eta lorategira bialdu ginduzan, Idazti Deunan esaten dabezan orrein gogoetak egiteko.

Esan orregaitik, argi ikusten da emen, Jaungoikua ez zala Izadi onen irazale edo sortzaillea, menperatzaillaren kide edo laguna baiño.

Gaurko erlijioek, zelan jarraituko leukie adibide orreikaz ?.

Siñest-eziñezkoa da.

Egia da, gaur egunean alango adibideak ipini ezker, ez daukagula biderik alderdikerizko norke-ritasunaren menperatzail eritzitatik urteteko, eta ordua da goimaillako jakintasunean daukaguzan buru jakintsu orreik argitu daitezzen. Ala jakintasunezko itzak esangura dauanagaitik, ez ote dabe ikasiko ezer ?.

Nik uste dot bigarrena dala egizkoa, Izadi onek daukan lilluratasunezko gai-kutsukor edo koipe-tsuaeren gaiñetik, ez dabelako ikusten ezer.

2. Ekialdeko jendekuntza, eta zelan asi ziran menpekotasunak.

Orretarako, Asia, Ejipto, eta Greziaren edesti laburrak aurkeztu bear doguz, jakin daigun, zerk eragin ebazan Europaren Mendebalerantza indoeuropeo edo alderraien etorkerak.

2.1. Asia, Afrika, eta Europa'ko gizartearen leen jendekuntzak.

Leinuen auzotasuna ardurazko antolamenduan ta leen euskerazko izkuntzan egokituta egoteaz gain, egu-giro gozotasunagaitik, goian esan dogun lez, Europa baiño irumilla urtearen aurrera-kuntza artu eben, bai ta nortasunezko bidetik alde eginda K.a. 4.000-3.000 urte inguruan norke-rietan be asi ziran.

Mundu onen leen jendekuntzak⁽¹⁾ egu-giro onak lagunduta, Ekialde Urbil eta Ekialde Erdi inguruan sortzen dira.

-Indo ibai eta Nilo ibaiaren bitartean, eta apur bat estutu ezker Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean.

-Sumeriako erria, orain K.a.4.000-2.500 urte bitartean sortu zan.

-Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, arkeoloji lanaren bitartez aurkitutako ondarrak, ziri antzeko⁽²⁾ irudiaren⁽³⁾ idazkerea asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre edo ta zillar lanean, obekuntzazko edertasun aundia erakusten dabe eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin⁽⁴⁾ ureztatu egiten ebenetik, Sargon erregeak menperatu ondoren eta erri lez ezereztuten joanda, ortik aurrera ordezko lez, Babilonia sendotu zan azturazko jakintzan.

2.2. Asiaren edesti laburra.

Goian Eliasen kondaira lakuak ikusi ezker, Paleolitiko-Neolitikoaren alditan lortutako demokrazizko jendekuntz aundiak baztertu ebazan, eta edestiko une onetan azten dira Norkeriaren guzurrezko bide maltzurretatik ibilten.

Ala eurak ote ziran, lenengotik maltzurrezko eritzi orreik bideratu ebezanak ?.

Asia-txikia edo Anatolia: antziñako denboretatik izan zan jendekuntzaren gurutzebidea, K.a. 2.000-1.200 urte artean, Ititen kaisertza gaienduta.

(1)Jendekuntzak=civilizaciones. (2)Ziri antzeko = cuneiforme, en forma de cuña. (3)Irudian= ideogràfica. (4)Egindako tresneriekin = artificialmente. Egitezkoa = mètodo empirico.

Geroago: Urartu⁽¹⁾, Frijia, Lidia eta beste erreinu batzuk agertu ziran, euren arteko gizabidean oso ezberdiñak ziranak.

Dana dala K.a. 4.000 urte inguru, Mesopotamiaren Ego aldean Semdarren erri zarretik, K.a. 2.600-2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan, Akkad'eko⁽²⁾ kaisertzaren sortzaillea izan gu-rean, eta bereala asi zan Sumeriotarren aurka, menperatzeko alegiñetan.

I Sargonek, K.a. 2.025-2.010 urte artean, Asiriatik asi eta lurralde aundi baten sargonidaren kaisertza sendotu eban.

Gero, K.a. 722-705 urte bitartean II Sargonek, sargonidaren errege leiñua ezarri edo irasita, Samaria, Israel, Ejipto, Armenia, Kaldea eta Babiloniako errialdeak menperatzeko alegiñetan ibilita, K.a. 710ean Babiloniako errege egin zan, beren jauretxe edo gaztelua, Niniberen⁽³⁾ Iparraldeko mendietan eraikita.

II Sargonen ostean, K.a. 705-681eko urte bitartean bere seme Senakerib izan zan errege edo kaiserra, eta 689an Babilonia ezereztu edo ondatu ondoren, Ejiptoren mugatara elduta, jauretxeak edo gaztelu batzuk eraiki ta Akkabeko urian Nesrok sasijainkoaren izenean egon zan eraikitako eleiza edo jauretxean, beren semeak il eben.

Urrengo errege, I Kanbises K.a. 600-559 urte bitartean errege izan zan.

Gero bere seme Ziro aundiak K.a. 559-529 urte bitartean, gaur Irak dan Media Erria⁽⁴⁾ 553-550 (549) urteetan menperatu eban.

547-546 urte bitartean Kresori irabazi eutson, eta Lidia mendetuta, 540-539an Babilonia ta Juduak askatu ebazan, eta oneri Palestinara joaten itxi ondoren, Kaspio Itsasoren zelaietan Mesajetaren leiñuen aurka dagoela, il eben.

K.a. 529-522 urte artean bere seme II Kanbisesek igon eban erregetzara, eta 525ean Ejipto mendetu ta euren XXVIIIko errege leiñua ezarri ostean, bere kaizertza Nubiaraiño zabalduta, Nilo ibaiaren ibarragaz bat egin eban.

Baiña Ammon eta Etiopian porrot egin eban eta Ejiptora urten orduko, bere anai Smerdis il eban, bera gudan ibilita, erregetza kenduko eutsolakoan bildurragaitik, ta bitartean Gautama apaizak, beren anai Smerdis izenean, erregetza lapurtu eutson.

II In Kanbises, K.a. 522an Persian egiten ziran lapurketak zuzentzeko, itzultzen egoala il zan.

I Dario aundia 558-486 urte bitartean bizi zanak, 522an erregetzara igon ebanetik Indiaraiño elduta, kaisertzaren zabalkundezko asmo aundiak euki ebazan eta Europa menperatzeko be, alegintzen asi zan.

Europan sartzeko, Greziaren demokrazia ezereztu egin bear lenengo, ta or agertu ziran aurka, oituzazko sinismenetan eta eritzizko ulermenean, guztiz ezberdiñak ziran jendekuntz orre in indarrak.

Persak: morroitasunean batzangotzeko Menperatzaille gogoko, oso osoan zirenak.

Eta Griegoak: Azturazko giza bidean ekanduzko mailla aundira elduta, Askatasunezko Demokrazia aundi bategaz sinismenduta egon zirana.

K.a. 499-494ko urte bitartean Dario persitarrak Joniko erri batzuk bakeztuta, 490ean Maratonen, Greziari emon eutson leenengo eraso aldia, eta Milziadesen aginduan egon ziran greziatarren gudalozteak 9.000 espartar gudariak babeserako oartuki, Dariok eroan ebazan 20.000 gudariak menperatu ebazan.

Darion seme I Jerjesek⁽⁵⁾, Ejiptoko iraultza bakeztuta, 480an Greziaren aurka Termopilaseko lurraldeetan bigarren eraso aldi an garaille agertu arren, 480an bertan eta arratsalde orreitan, Temistoklesek, I Jerjesen itxasontzidiari Salaminako itsasoan emoneko astiñaldiagaz, I Jerjesek gudalozteak bere lengusu Mardonioen agindutara itxi ebazan, eta Ekialde Txikerreko Susa errira, euren kaizar jauregira alde egin eban.

(1) Urartu = ibai edo ur-arte an dagoena ?. (2) Akkad'eko = Acadio. (3) Nimibe'ren = Khorsabad. (4) Media Erria = Medos. (5) 519-465.

K.a. 479an Mardoniok Plateako⁽¹⁾ borrokan, Pausaniasek Espartarren Alkartasunezko gudaloztea bideratzen eban aurka be, galtzaille urten eban, eta Mikalan egun berean, itsas ontzidi edo guda ontzidien itsas borrokan Persak ondamenduta geratu ziran.

Eta emen bitxi bat: Mardonio, Jerjesen lengusua zan, eta galtzaille lez, Greziak eukiko eban urrengo satrapa edo jaurlaria il da, griegoak bere oialpe edo oial txabolara joan ziran, eta an egon ziran diru ta urrezko altxor aundiak ikusita, euren arritasunezko itaunean: gizon onek baiña, zertarako gura dau ainbesteko premiatusunagaz gure erriak menperatzea, ainbesteko aberastasun aundia berak eukin da ? esan edo itaun eben.

I Jerjes il eben, eta bere seme II Jerjes asi zan Greziaren aurkako erasoan, baiña au be alperrik, euren artean trebetasunezko nor geiagoan asita, 424an, beren agintaritzta artu ondoren aste gitxi baiño ez, il ebelako.

Greziaren demokraziari ezker, faziztak Europa menperatzeko euki ebezan asmakuntzak, or geratu jakiezan lenengo aldiz, eta batera, Eki aldetik morroitasunezko itxuran agertu zitekezan alegin guztiak.

Europaren zoritxarrez baiña, artean eta K.a. 753ko urtetik aurrera, beste gauza bat asi zan aundi egiten, eta ez zan besterik, Etruskoak irasi edo sortzen ebazan urietan, euren salerosketak babes-teko, erromatar gudalosteak sortu ebezala espartartarren antolakuntzan, eta erraldoi aundi baten itxuretara eldu zanean, bidetik aurkitu ebazan guztiak iruntsi ebazala, bera ta bere norberkeriagaitik porrot egin arte.

Erromatarren menperatzailletasun orreik, ez ziran amaitu eurak egin eben porrotaren bidez, katolikotasunezko garaionzale andiki-be begira egon ziralako, ia erromatar merkantillezko kaizartza ori edo antzeko bat, zelan aurrerantza eroan, goimaillakoak senditzen diran jakintsu orreik, gura eben andi-mandikerian bizitzeko.

Zoritxarrez, gaur egun be, gure lepo gainetan daukaguzenak, Jaungoikuaren lege serbitzura egin bear doguzan ardurazko ordezkariak, euren gai-gezurrezko jainko edo urrezko-zekorraren serbitzura egoteko.

2.3. Ejiptoren edesti laburra.

Kamitak, Nilo ibai inguruan Suezeko lur besotik⁽²⁾ sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaino alboratu ebazan, ta K.a. 4.500-4.000 urte inguru, jaurkintza legez erregetzako giza bide sendo baten antolamenduta, K.a. 3.200 urtean Menesek erregetzara igon ebanean eta Menfiseko uria eraiki ondoren, Ejiptoren goiko ta bealdeko lurak alkartu ebazan, faraoien jendekuntzari bideak zabalduta, ogeita amar errege leiñutan iraun egien.

Ejipto, Asiaren antzera, jendekuntzazko jakintzan azkera aundikoa izan zan.

Ikusi dogu zelan Asiatik agertuta, Kamitak sartu zerala bertakoak basamortura baztertuta, eta K.a. 4.241 urtean Menes erregetzara igon orduko, lortuta euki ebela 365 eguneko Eguzkiaren egutegia, ta irudizko idazkera.

IVn eta Vn Faraoi leiñuekin, trebetasunean goraldtu egin ziran ezin obe, eta ainbat txuntxurrezko⁽³⁾ etxegintz aundiak egin ebezan.

VI In Faraoi leiñutik onantza, erregeen jabetasunak berakada aundia emon ondoren, feudotza asi zan goratzen eta kaizertzaren batasuna ezereztu eben.

Erakleopoliseko printzeak agintaritzaren jabetasuna eskuratuta, IX eta Xn leiñuari emon eutson iraunkortasuna, baiña Tebaseko printze edo buruzagiak alkartuta, Erakleopolisekoak bota ebezan, eta K.a. 2.160-1.570 urte bitartean, Erdiko kaisertzari emon eutsoen indarragaz, XI In leiñuetatik XVIIgarrenerañoko leiñurarte iraun eben.

XII In leiñuak, ostera berrezkuratu eben orokorrezko agintaritzta, eta Nubiaren bealdeko lurak erri-tu ebezan.

(1) *Greziaren antziñako uri-bat izan zana eta Tebas'eko Ego-Mendebalean kokatuta egoana.* (2) *Lur besotik = istmo.*

(3) *Txuntxurrezko = piramides.*

XIIIIn leiñuko agintaritzan, Asiatik agertuta Iksoen sarraldia⁽¹⁾ euki eben, ta oneik Niloren ibai artean⁽²⁾ ezarri ta Uri nagusia Abarisen kokatuta, Kamitak euren faraoi erregetzagaz aurrera egin ba eben be, XVn eta XVIgarrengo leiñuak Iksorenak izan ziran.

K.a. 1.600 urte ariñago XVIIIn leiñu aldi, Faraoiak Iksoren aurka asi ziran, eta Almesek Faraoien XVIIIgarrengo leiñuaren sortzailleak 1.570-1.075 urte bitartean kaisertza barriari irauteko indarra emon ondoren, Iksoak bota ebezan.

Ortik aurrera eta 1.570-1.304ko urte bitartean, Ejiptoren jendekuntzari esaten dautsoe urrezko aldi bizi zirala. Ejiptiotarrak, beste sarraldi baten bildur, Siria ta Palestina Iparraldetik Eufrates ibairaino mendetu eben, eta Ego aldetik Nubiako jabeakuntzak Napataraino zabalduta, Lurrarteko itsaso⁽³⁾ inguruan egon ziran errien antolatzaile edo artekari⁽⁴⁾ nagusien lanak egiteko izatera eldu ziran.

K.a.1.375-1.358 urte bitartean, IVn Amenotepek euki ebazan indar guztiak, erlijiozko monoteista gurketak gaintzeko alegiñean ibili zanean, Ititak Siria kendu eutson.

K.a. 1.290-1.223 urte bitartean, XIXgarrengo leiñuen Faraoiari IIIn Ramses´etik asita, basamortuaren etxe gabeko edo alderraiak⁽⁵⁾ Palestinan asi jakiezan sartzen.

Faraoiak Siria ta Palestina berrezkuratu ebazan, eta Libio ta ejeotarren sarraldiak geratzeko, Ititak alkartu ziran.

Libio eta ejeotarrek 1.190-1.158 urte arteko IIIIn Ramsesen denboran, Siria ta Palestina oster berrezkuratu ebezan.

Faraoiai kanpoko lurralde orreik galtzeak, diru arloetan naasiak ekarri eutsezan, eta euki eben aginpidea makaltzen joan jakien.

K.a.1.075-940ko XXIIn leiñuen urte artean Faraoiek, Ejiptoren bealdeko Tanisetik jaurkintzen eben bitartean, Amonen apaizak Tebasetik asita, Ejiptoren goialdi agintzen eben eta etsaigo edo zatiketa au, Iparraldean K.a. 940-730 XXIIIn leiñu eta K.a. 725-710 urte bitartean XXIVn leiñuagaz iraun, Ego aldean K.a. 761-715 urte bitartean XXIIIIn leiñuagaz garatu⁽⁶⁾ ziran.

Areik eta Etiopitarrak Ejiptoren jabetza artu eben arte, eta Etiopetar oneik XXVn leiñuagaz K.a. 657ko urterarte jaurkitu.

K.a. 670n urtean, Asirioak asi ziran Ejipto menperatzen eta K.a. 654 urterarte bertan egon ziran.

K.a. 664-525 urte artean Faraoiak, denbora gitxi orren barruan jaurkintza berrezkuratu naian egonda, Persiako IIIn Kanbises agertu jakien, eta Ejiptiotarrak menderatuta, Kanbises onek Satripi jaurleri baten azpian ipini ebazan.

K.a. 332an Alejandro Aundiak Persak bota ebazan Ejipto´tik, eta Alejadriako Uri Nagusia eraiki ondoren, bera, K.a. 323ko urtean il zanean, Alexandroren gudal nagusi izan zan Tolomeoren aginpean geratu ziran. Eta Tolomeo Faraoi izendatu ondoren, Tolomeotarren leiñuari asiera emon eutson.

Tolomeotar leiñuak, Elenikako jendekuntzaren eragipenean⁽⁷⁾ indartu ta Siria ta Palestinagaz jabetuta, euren agintaritzan, K.a. 30ean Kleopatra beren burua eraill eben arte iraun eban, eta ortik aurrera Erromatarren kaisartzapean geratu ziran.

Ortik aurrera erromatarrek, Bizanziotik jaurkitu eben Ejipto, areik eta K.o. 641ean Mauritaren mendean geratu arte.

Ejiptoren Islamizaziñoa asi zan aurrerantzean, eta arabiar izkuntza geratu zan izkuntz bakar lez.

K.o. 969-1.171ko urte bitartean, Fatimitaren mauritar leiñuak, Kairo, uri nagusi lez izen datu eben, eta K.o. 972an Azhar mauritar eleiza islamitarren ikastetxe nagusian biurtu ebenetik, munduko leen goi ikastetxe⁽⁸⁾ edo Ikastetxe Nagusia eraiki ebala esan leike.

(1) Sarraldia=invasiòn. (2) Niloren ibai artean=delta del Nilo. (3) Lurrarteko-itsasoaren = mar Mediterraneo. (4) Artekari = arbitro. (5) Alderraiak = nòmadas. (6) Garatu = medrar, crecer, desarrollarse. (7) Elenikako jendekuntzaren eragipenean = en la influencia de la civilizaciòn elènika. (8) Munduko leen goi-ikastetxea = la primera Universidad del mundo (Alejandria).

1.170-1.250 urte bitartean, Ayubitarren mairu errege leiñuek Siria berrezkuratu ondoren, mameluko gudariak baztertu ebazan, eta oneik gero, euren goraltasunean, etorriko ziran mairu erregearen⁽¹⁾ jagole izatea lortu eben.

1.517an Ejipziotarrak, Otomanoen⁽²⁾ menpean jauzi ziran, eta oneik ejiptotarren jaurkintzarako Baja⁽³⁾ jaurleri bat ipini eutsen.

1.798an Napoleonek Ejiptoren menperatasuna asi eban, Ingelesak Indiagaz euki eben salerosketaren gora berak moztuteko.

Baiña au be, Ingelesak Otomanoakaz bat eginda 1.801ean bota eben.

1.805ean, Mohamed Ali izendatu eben Ejiptoren Baja jaurleri lez eta mamelukoak ezereztu ondoren, onek leiñu ondore bat irasita, Faruk erregeagaz 1.952ko urterarte iraun eban.

1.820-1.822 urte artean Mohamed Alik, Sudanen egoan Funji erreñua menperatu eban.

1.866an Ismail Baja jaurleriak Baja baiño Jedibe izen aundiagoa artu eban, eta bere jaurkintzapean 1.869an Suezeko itsas xidor edo ugaska⁽⁴⁾ zabaldu zan.

Ismail Jedibe onek, Sudaneko menpetasunari-be amaiera emon eutson, baiña ortik aurrera Ejiptoren barneko jaurkintzan, Frantzia ta Ingelesaren eragipenak asi ziran garaipentzen.

1.882an Ingelesak Ejipton, guda legezko eskua sartu eben sortu zan iraultza bakeztuteko, eta ortik aurrera eurak izan ziran jaun eta jabe, Ejiptoren jaurkintzan.

1.885ean Sudanek, Ejiptoren kanpo geratzeko lortu ebazan askatasunak, 1.898an Ejipto ta Ingalaterraren gualosteak alkartuta, ostera menperatu ebezan, eta euren bien arteko mendekuan ezarri eutsoen.

Turkiak munduko leenengo guda nagusian, batzango zale kaizertzakaz bat egin ebane-an, Ingalaterrak amaitutzat emon ebazan Turkiak Ejiptogaz eukezan artu emon guztiak, Ejipto bere zaindaritzapean ezarrita, 1.922ko urterarte iraun ebana, Ingalaterrak ondore Suezeko Ugaskaren kontrolagaz eta eta Sudanen arteko mendekuagaz iraunda.

1.868-1.936 urte bitartean I Fuad bizi zanak, 1.917-1.922 urte bitartean Ejiptoko Sultan egin eben, eta errege lez 1.922an izendatuta 1.932an mauritar ikastetxea irasi eban, eta 1.936an il zanean, bere seme I Farukeri aldikatu eutson mairu-erregetasuna edo sultantasunezko erriagintaritza.

I Faruk (1.920-1.965) 1.936-1.952ko urte bitartean errege egin zan ondoren, Ingelesen aurkako politika eroan eban, eta ez eutson Europako ardatzaren indarrari aurkako gudarik agertu 1.945eko urterarte.

Ejipto, Palestina zatituaren aurkako agertu zan, eta 1.948-1.949 urte bitartean Israelegaz borrokatu zan.

1.952ko Uztaillan, Mohamed Naguib gudal nagusiak bideratuta eta Gamal Abdel Nasser koronel ordezkariak antolatuta, I Faruk erregea kendu eben jaurkintzatic eta bere seme II In Fuad (1.952-1.953) izendatu, gero 1.953an au be erregetzatic kenduta, Naguib ´ek euren agindupeko errepublika irasi eban.

1.954ko urtean Nasser ´ek, Nagib ´eri aldikatu eutson Ejiptoren jaurkintzazko lendakaritzan, eta ez eban euki ezeren eragozpenik 1.956ko urtean ostera be Ejiptoko agintari nagusia izateko.

1.958an Faruk erregea, erritik kanpora bialduta, 1.959an lekaide sartu zan.

Badakigu zenbat eztabaida euki dabezan Ejipzioak Israelekin, 1.979ko urtearen Epaillan bakezkoak egin arte.

Ejipto gaur, ONU, OUA eta Mauritarraren Alkargoko kidea da.

(1) Mairu erregea = sultan. (2) Otomano = Turco. (3) Baja = título de honor en Turkia, que antiguamente equivalia al título de virrey o gobernador. (4) Suezeko ugaska = Canal de Suez.

2.4. Greziaren edesti laburra.

Paleolitiko-Neolitikoan esagutzen zan munduan, eta orduan bizi ziranak, demokrazizko arloetan lortu eben askatasunezko jendekuntzaren ondorioz, Eneolitiko edo Tupiki aldiaren agertuta, Greziaren jaurkintza, Lurrarteko Itsasoaren inguruko erri edo leiñu guztiak lez, auzotasunezko laterrietan eta demokrazizko batzarrekin antolamenduta bizi ziran bakez, ordezkartzaren aztu-razko ekintzan.

K.a. 3.500-1.400 urte bitartekoari, esaten jako Tupiki edo brontzezko aldia dala.

Greziaren, K.a. 2.800 urtearen Tupiki edo brontzezko denbora orreitan asita, ta Elenikako erdi-ugartean, laterritutako Uriak ezarri ziranen artean, erri jakintza asko sortu eta gaienduta⁽¹⁾ ezereztu edo aienatu ziran.

Garrantzienetarikoa Kreta ugartekoa⁽²⁾, geroago Europa guztitik zabaldu zana, eta Mizenasekoa K.a. 1.600-1.100 Akeos´ak eskuratu edo eurengeatik bideratuta egon ziranean.

Kretan lortu zan goimallako jakintza, ez zan eurengeandik sorturikoa, Asia ta Ejiptoko jakituriaren alkartasunezko eragipenetik, eurak artu ta edertu egin ebena baiño.

Europa edo Lur nagusi onen erdiko Tesalialtik Akeo edo Elenotarrak Greziaren lurraldeetara joan ziranean, an bizi ziranak Kretaren jendekuntzazko jakintzaren eragipeneko⁽³⁾ mende egon ziran aintziñako denboretatik, bai eta Iparraldeko errineolitikoaren jendekuntzagaitik.

K.a.1.700 urte inguru Kretak jakintzan euki eban jendekuntzazko bereketaren⁽⁴⁾ ondorioz, Mizenas, Tirinto, Korinto eta Tebaseko Uri nagusiak eraiki ziran.

K.a. 1.400 urtean Akeotarrak, Kretako ugartean egon zan Knosos gaztelu edo jauretzea ezereztu ondoren, Mizenaseko jakintza sartu zan bere ederrenetarik jendekuntz garaian.

Gizaldi bi geroago, Peloponeso, Greziaren erdian, Asia Txikiaren itsas-bazterretan eta Txipreko ugartean zabaldu zana.

K.a. XIIIn gizaldian, Iparraldeko Doriotarren eraso aldi edo sarraldia euki eben, eta jakintzan, Akeotarrak baiño atzeratuagoak egon ziralako, Greziaren jendekuntza berakada galanta emon da, jakintsuak, Greziaren erdi mendea izan zala, esan eben. Dorioak, Peloponesoan kokatu ziran batez be, eta bere Espartako Uria, bertora elkartuta eldu ziran Akeo ta Dorio jendekuntzaren⁽⁵⁾ laburpeneko⁽⁶⁾ adierazpenbat da.

Joniotarrak batera, egunaren neurria artu-bage eta itsas aldetik astiro, Atikako Uri nagusietan eta batez be Atenasen asi ziran bakezko goxotasunean sartzen.

Eleno, Akeo, Dorio, Eolio ta Joniotarrak, sekula ez eben lortu Greziaren erri guztiarentzak agintza bakar bat, politikako jaurkintzan guztiz, askatasunaren laterritasunezko Urietan oitura zar lez antolatuta egon ziralako, euren artean beste loturarik eukin gabe, enda, izkuntza, erlijioa eta euren jakintzak emoten eutsoena baiño.

Ardurak ondo zaintzeko, menpeko batzangotasunik bear ote eben ?.

- Argi ikusten da emen, orduko Europaren antolakuntza zelangoa izan zan, naita izkuntz eta erlijio antzeko baten, eta baita odolezko senditasunean bardiñezkoak izan arren, auzotasunezko laterritasunean, bakoitza bere batzar-nagusiekin jaurkituta bizi ziralako.

- Jendekuntz orren aitortza gaur, urte milla askotako oituran Euskalerrriak eroaten dabena da, eta egiñez eroan bear leukena, "espainitar Nacional katolicismo fazixtaren erri iraslepetik"⁽⁷⁾ aske egon bagin.

- Izadi ta Europa onen biztanle, edo ta berezko errigizarte guztiari, nortasunezko eskubidez, Jaungoikoagandik daukien "arduradunezko jabetasuna emon bear jakie" danok beartuta daukaguzan

(1) Erri-jakintza asko sortu ta gaienduta = sobresalir resplandecer de esas culturas. (2) cultura kretense. (3) Eragipeneko = influencia, impulso de la cultura Cretense (4) Bereketaren = asimilación. (5) Jendekuntza = civilización. (6) Laburpena = sinopsis, o, compendio, unión, resumen. Akeo ta Dorio jendekuntzaren adierazpen labur bat da = expresión reducida de estos dos pueblos o tribus. (7) Erri-irasle = colonizador.

zor-eskubidearen ordainezko ardurak, ondo, bakez eta Jainkoaren Legeak erakutsiagaz batera, ordaintzera deitu edo ta eskatzen daukun lez bete dagiguzan.

- Eta or ez da "batzango edo globalizazioarik bear", bakotzari nortasunezko eskubidez, daukan ardurazko jabetasuna emon baiño, mundu onetan zentzuz bizi gura badogu.

K.a. 800-600 urte bitartean, laterritutako Uri oneik erri-irasletu edo Uritu ebazan Ejeo itsasoaren ugar-teak, Asia Txikiaren itsasbazterrak, Joniko itsasoaren ugarteak eta Lurrarteko itsasoren⁽¹⁾ izpazterrak:

- Italian, Napoles eta Tarento.

- Frantzian, Marsella.

- Erdi Ugarte onetan eta Jeronaren lurraldeko Rosaseko itsas golkoan, Ampurias eta Rosas.

- Eta Afrikan, Libiaren Iparraldean Lurrarteko itsasotik 15 kilometrora dagozan, Zirene koloniak edo salerosteko Uriak.

K.a. 600-300 urte bitartean, Greziatarren jendekuntza, beren urrezko garaipenera eldu zan: Etxa-gintza edo Eraikintzan⁽²⁾, Irudigintza edo zizelkaritzan⁽³⁾, Olerki⁽⁴⁾, Eraman ona edo Jakin zale-tasunean⁽⁵⁾, Antzerkian⁽⁶⁾, Matematiketan eta Natur Jakintzan.

Atenastarrak euren jaurkintzarako, Demokrazizko legean antolatuta geratu ziran.

Espartarrak alderantziz, bikaintasunezko gudaren antolamenduan.

Eta beste Uri batzuk, Korinto, Kalzis, Korzira⁽⁷⁾, Mileto, Sardes, Fozea, Lesbos ta abar, goimallako goraldi edo aurrerapidea lortu eben.

Asiaren lur-arloetan ikusi dogun lez, K.a. Vn gizaldian Persak, Europaren mendeko bideak zaba-lik eukiteko, Griegoak menperatu gura ebezan.

- Griegotarren Uriak alkartuta baiña, eta guda indarrak Atenas ta Espartaren aginpean bideratuz, Persak, Maraton, Salamina ta Platean⁽⁸⁾ euki ebezan Medikas'eko gudatan astiñaldi ederrak ar-tuta, alde egin bear izan eben.

K.a. 448an Kaliaseko bakeagaz amaitu ziran Persa eta Griegotarren aurkako gudak⁽⁹⁾.

Espartarrek, euren indarrezko arrotasunean, Atenasen nagusitasunezko jakintasunagaitik be-kaitz⁽¹⁰⁾ eta jeloskor⁽¹¹⁾ edo ixterbegituz⁽¹²⁾ urdurik ibilita, Uri guztietatik Atenasen etsai guztiak batzen asi ondoren, K.a. 431-404 urte bitartean Peloponeson, anai arteko gudak asi ebezan⁽¹³⁾.

Espartak irabasle urten ebalako, beste alkartasun batzuk be egin ziran eta or asi ziran etenbako borrokak Greziako Urien artean.

Uriak guztiz indargabetu arte ekin eutsen, eta Greziaren Iparraldeko Mazedoniatik In Filipino⁽¹⁴⁾ erregea agertuta, ez eben euki indarrik espartarren mendetik iges egiteko, erdi ugarte ta Grezia osotzen ebazan ugarte guztietatik be.

Bere seme Alejandro aundiak⁽¹⁵⁾, K.a.334an Granikon, eta K.a. 333an Issuseko gudatan

Persak menperatu ebazan, eta K.a.326an bere agintaritzza Greziatik Indiaraiño zabaldu eban.

323an Alejandro Aundia il zanean, Grezia, Alejandroren gudal nagusiaren eskuetan geratu zan eta barriro lengo urien jaurkintzazko antolamendua artu barik, aurkako alkartasunetan geratu zan bananduta.

Zori edo egoera orreik, Greziako atear erromatar indartsuari zabaldu baiño besterik ez eutson egin eta erromatarrak K.a.146an Mazedonia menperatuta, Grezia osoa erromatarren lurralde lez geratu zan.

(1) Lurrarteko itsasoa = mar Mediterraneo. (2) Etxegintza edo eraikintza = arquitectura. (3) Zizelkaritzan = escultura. (4) Olerki = poesia. (5) Eraman ona edo jakin zaletasunean = filosofia. (6) Antzerkia = teatro. (7) Korzira = gaur Korfu dana. (8) Medikaseko gudak. (9) Periklesen denborak ziran oneik. (10) Bekaitz = reajo, envidia, emulacion. (11) Jeloskor = escamòn, (re)celoso, desconfiado. (12) Ixterbegi = enemigo, celoso, envidioso. (13) Greziaren anai-arte-ko gudak, edo Peloponesoko gudak. (14) K.a. 382-336, In Filipino, Pausanias il eban Greziako erregetza artu gura ebanean eta orre-tarako sortu ebazan K.a. 357-338'ko Mazedonikako gudatan. (15) K.a. 356-323ra bizi, eta 336an erregetzara igon.

2.5. Etruskoaren edesti laburra.

Etruskoak, euskaldunakin berdinkatu⁽¹⁾ egiten dabez edestilariak, eta inork ez daki nundik nora agertu ziran Etrusko oneik esaten dabe.

Batzuk esaten dabe, Etruskoak indoeuropeoren erri bat zala, eta alderrai agertuta Alpesetik bera etorri ondoren, Po´ren lurraldetan geratu zirala eta geroago Apeninoak aldatuz, Tiber ta Arno ibaiaren bitartean gaurko Toskanaren lurraldeetan ezarri zirala⁽²⁾.

Tito-Libiorena da eritzi au, eta berak idatzita Erroma´ren edestiko liburuan dago esanda, Etruskoen sorterria, apeninosetan kokatuta egon ziran indoeuropeo guztikoen antzekoa zala.

Erodotok Etruskoari, Tirrenokoakin antz emoten dautso, eta Asia Txikian Frijia, Misia, Karia eta Ejeo itsasoagaz mugatuta dagon Lidiatik, K.a. XIIIIn gizaldian alderrai, Italian agertu zirala esaten dau.

Beste batzuen esanetan Europaren erditik agertu zirala, eta oraingo edestilarien gora beran, K.a. VIIIIn gizaldian, Arno ta Tiber bitartean bizi ziranarekin apur apurka sortu zala. Dodekapolis edo amabi laterritasunezko Urietan jaurkintzazko antolamenduan kokatuta, eta erlijiozko alkartasun edo batasun baten danak arremanduta.

Beste batzuen esanetan, Etruskoak Ekialdeko erri-bat dala esaten dabe, eta euren itsaslaritzazko lan bidetik, Toskanako lurraldeetan ezarrita, Ekialdeko Asia Txikiaren erri eta Greziagaz saleros- teko arreman aundiak euki ebazala.

Asia-Txikiako Sumertarren erriagaz be antz emoten dautse, izkuntza arloan Euskaldunakaz lotuta dagoelako, eta baleiteke or zoezer egotea, irurak asierako Omosapiensen leenengo itz-ots eta ekandu edo oikuntza bardiñakaz alkartzen dabezelako, baiña Etrusko elkarte au ez zalako politiko edo ta militarra, uri bakoitzak bere askatasunezko aginduan jaurkintzen zan, Europako leiñu guztien antzera.

Dana dala, Erromako Klaudio kaiserrak, Etruskoaren gora beran idatzi ebazan 20 liburutik, geienak galdu ziran, eta or akats aundiena.

Andi-Mandiko⁽³⁾ eritzian bideratzen eben, sortzez, odolez edo ondorengo⁽⁴⁾ iraspenean egokituta euki eben euren jaurkintzazko agintaritzza.

Etruskoari erlijio arloetan, Sumeria, Kaldea eta Ejiptorekin be lotzen dabe, ta baleiteke orren esangurea bakarrik izatea, nundik etorrita agertu ziran Arno ta Tiber ibaiaren bitartean.

Etruskoak, mariñelgintzan eta bai lan-ederretan oso trebe ta zentzun aundikoak izan ziralako, Lurrarteko Itsasoaren erri nagusi guztiakaz euki ebezan arreman sendoak, eta ez euken bildurrik euren gizabidea aberastuteko, Italian, ekialdeko Sirio, Ejiptio eta Greziatarren jakintzazko aurre- rakuntzatik bear ebena artzen.

K.a.753an ta euren salerosketarako eraikiten ebazan uriak lapurretatik babesteko, Ramnes, Tizioak eta Luzereak alkartuta, Espartarren itxuran gudalozte bat antolatzea erabagi eben, gero Palatino mendian kokatuta Roma-Kuadrata deituko zana.

Ez ziran erabagi orregaz bakarrik geratu, salerosketetan danoen artean aituteko, Greziatarren izkitegi edo iztegiagaz Latiñ izkuntza sortu ebelako.

Eta VIIIn gizaldi erditik onantza, euren zabalkuntza erabagi eben, Erroma gizaldi bateko agintaritzan zuzenduta.

Etruskoak, Adriatiko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzikako ugarte menderatuta euki arren, Paleolitiko-Neolitiko alditan lortuta eta orduko Uri nagusiak euki ebezan oiturazko bereiztasun demokratikoak, ez eutsen izten batzango edo batasun batera eltzen, eta K.a.VIn gizaldeen Erromatar gudalozte orreik menperatzaillezko indarra artuta, euren esku jaurkitzen asi ziranen, Etruskoaren maldabera asi zan.

(1) Osko itzaren bidetik berdinkatu egiten dozkuna. (2) Tirreno itsas-bazterrean, gaur Toskana dana. (3) Andi-mandiko = blasonador, suntuoso, ostentador, fastuoso, aristokratico. (4) Odolez ondorengo = sucesión familiar.

K.a.545eko urtean Etruskoak, kartajinesarekin alkartu ziran griegoaren aurka.

K.a.509an, greziarrak, samnitak eta galoak alkartuta, etruskoaren erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K.a.Vn gizaldian etruskoak, keltiar, griego ta kartajinezaren artean sarritan erasotzen ibilita, erromatarrak zain egon ziran, menpetasunezko joku orreitan eurak baiño geiago izan zalako, eta emon eutsoezan aukera orreikaz, bera jabetu zan orko onura guztiagaz.

K.a.IVn gizaldian eginda, Erromako irudia izatera eldu zan Kapitolinoko otso emea be Etruskoarena zan, eta K.o.XVIn gizaldean Romulo ta Remo umeen irudiak, otso emearen xafla orreitan zizelkatuta sartu ziranean, batera ezarri eutsoen kondaira, ez eben zer ikusirik euki, Etruskoak egin ebenagaz.

Etruskoak, itsas aldeko lurak ondo landuta eukinez gain, langintzan trebetasun aundiak artu ebezan eta merkataritzazko salerosketan maixutasun aundia.

K.a.IVn gizaldian eta 300garren urte inguruan etruskoak, elenoakaz alkartu ziran erromatar eta kartajinesaren aurka.

K.a.IVn gizalditik onuntz, erromatarrak Etruskoen Uri nagusi guztiakaz geratu ziralako, euren-gandik babesteko premiña euki eben.

K.a.295an etruskoak, sabino, unbro ta zizalpinako galoakaz alkartu ziran erromatarren aurka, indar oneik erromatarrengaitik guztiz menderatuta geratu ziran arte.

Eta K.a.90n urtean erritarreen gizarteko guda ostetik, etruskoek erromatarren uritargo edo erritargoa⁽¹⁾ artu bear izan eben.

Etruskoaren jendekuntza, bere inguruan egon ziran Unbroak, Liguritarrak eta Sabinoen erri guztietatik bereizpenduta⁽²⁾ bizi zan, eta maitasun geiago emoten eutsoen apainkeria⁽³⁾ ta oporraldeari⁽⁴⁾, gudako zaletasunari baiño.

Antzoki-biribillaren⁽⁵⁾ jolas-toki edo antzezketaren zaletasun aundikoak izan ziran, gero erromatarrak artu ebena, baiña ez antzerkiko irudikatze edo antzezketak egiteko, ezpatalarien odoljariozko borrokak egiteko baizik.

Etruskoak, erromatarren sortzailleak izanez batera, euki eben greziatarren jendekuntzazko jakituriagaz, euren irakasleak be izan ziran, eta erromatar-gudaloste orren sorraldiko ekanduan zeozegaz uts edo oker egin ebelako, euren babeserako irasi ebezan guda-sume oneik menderatzaille bihurtuta, euren-gandik asita, danak irunsi ebazan, Europa, Asia ta Afrikako gizarte guztietan erromatar kaisertza ori ezarri edo irasi gurean.

2.6. Europan, Ibero edo ta Tartesoren bigarren txandako agerkeria egongo ote zan ?.

Iberoak: Omosapiens-giza K.a.30.000 urte Afrikan sortu, eta 15.000 urte geroago Asia ta Europan zabaldu ziran ezkeroztik, oraiñ 7.000-5.000 urte artean Afrikatik ostera urten da, erdiugarte onetara bigarren alderraiezko agerkeria egingo ebenak zizala esaten dabe edestilari batzuk.

-Erdi Ugarte onen Ebro ibaitik berantza eta Europaren erdi edo egolurraldearen Galia eta Italia-ko Iparraldearen itsasbazterreko zati baten kokatuta geratu ziranak, toki izen bidez, ainbat euskerazko izen ugari agertzen dan lurraldean, izango ote ziran Ibero oneik.

Ez dot uste, erdiugarte onetara etorri ziran Iberoak, Mendebaleko Europa zabaletik zabaldu ziran euskal leiñuak ziran, bestela, Ibero Tarteso ta Turdetanoak, nungo erpetik eukingo ebezan, euki zituzten euskal izaerazko lotura aundi orreik ?.

Greziako leenengo idazleak Iberotarren izena, erdiugarte onen erdikoak, goiko biztanlegandik bereiztuteko, ego ta ekialde edo sortaldeko biztanleari ipini eutsoen izena da.

(1) Erritargoa = ciudadanía. (2) Bereizpendu = distinguir. (3) Apainkeria = lujo. (4) Oporraldi = ocio. (5) Antzoki-biribillaren = teatro circense, o, circo.

Oituran eta jendekuntzan bestelakoak ziran ala ?.

-Greziaren idazle Miletoko Hekateo, Herodoto, Estrabontarrak, eta Rufo Festo Abieno oneik, izen oneikaz deitzen eutsien iberoai K.a.VIn gizaldeen: sordones, zeretanos, airenosinos, andosinos, bergistanos, ausetanos, indigetes, kastelani, lazetanos, layetanos, kossetanos, ilergetas, iazetanos, suessetanos, sedetanos, ilerkabones, edetanos, kontestanos, oretanos, bastetanos edo ta turdetanos.

-Iparraldekoagaitik baiño bestelakoak dirala esango dabe Greziako idazle orreik, baiña or euskarazko izen geiago agertzen dira ostantxeoak baiño, eta orretarako ez dago beste zeregiñik, toki-izenetatik asi-ta Iparraldekoak euki genduzan izenakaz berdinkatu⁽¹⁾ baiño.

Jendekuntzazko bultzakada aundia artu eben mendebaleko euskaldun guztiak eta batez be erdi-ugarte onen lurraldeko euskaldunak, Keltiarrak K.a.IX-VIIIn gizaldi bitartean goiko aldetik eta Añamendiak aldatu ta erdi-ugarte onen lurralde guztitik zabaldu ziranean, eta Duero ibaiaren Iparraldetik ta Ebro ibai bitartean kokatu ziranak Keltiberoetan biurtuko ote ziran ?.

Keltiarrak, Ipar ta Egoaldeko euskaldunakaz, bakez eta bakotxaren nortasunezko izatasunean bizi ziran, gero erromatarren eraso bidez eurak aienatu ziran arte.

Omosapiensien giza Afrikatik urtenda lenengo zabal aldietan Euskaldundu egin ebezan lurak, Eskoziatik Kadizerañño eta Atlant-itsasotik ia Europa erdiañño, ortxe nortasundu zalako euskerazko izkuntzaren eragipena.

Eta or, gaur jendekuntzazko arloetan gagozan azterraldi-neurrian, ez ziran egon bear, zalantzazko galderarik beste amurruen baten bat ez bada agertzen, gai Ludi onen giza kontrolpean ezartzeko, norkeriaren bidetik sasikatoliko-aberrikoi-merkantil-batzango zale asmatzailleak erakusten daben antzera.

Ala geiago ote dira ?.

Ez dot uste, euskereak daukalako ugaritasunez gain, eragipen bakarra alde oneitan.

Oar-txiki bat, batzango edo menperatzailletasunezko serbitzura dagozenai.

Eta emen, sasi-katoliko ta merkantilista menperatzaillearen agindutara dagozan edestilari guzurti ta maltzurari esan bear jakie, Euskaldunen izena aipatu ez egitearren, Iberoaren izena ipinten dautsoela, euskaldunagaitik artuta egon zan erdi-ugarte onen lurralde guztiari, eta agertu ziran Kamitaren leiñuzko gizarte orreik, euskaldunak zirala edo bat egin ebela beintzat euskaldunakin, antz ori emoten dauelako, arri ta toki izenetan agertzen diran idazkiak eta toki-izenaren azterraldietan, geiago argitu leikelako euskerearen aldetik, eurak esaten daben iberotasunetik baiño.

Tarteside edo Tartesoaren leiñu oneik, Erodoto, Greziarrak K.a. Vn gizaldeen lenengoz aipatu ebazanetik, Europaren ego-mendebaleko leen jendekuntza zala uste eban, bai ta, Atlantiko jendekuntzan Tupikiaren azken alditako ondorengoak, erdi-ugarte onen ego-ekialdearen itsas-bazterreko Uelba, Sebilla ta Gadir edo Kadizeko⁽²⁾ lurraldeetan bizi ziran leiñuak.

Tarteso izena, bertan egon zan Tarteso ibaiaren izena eukiteagaitik izan zala uste zan, gero erromatarrek Betis, eta mauritarrak Guadalkibir deitu eutsoenari, mauri izkun orretan ibai-aundia esan gura dauana.

Asko idatzi da eurengeit, baiña iñork ez daki ezer oraindiño, edo *merkantil nacional katolicista* orrek 325ean Nizean, batzangotasunezko eritzi orreik artuta ipinten dauan eragozpenagaz, egia argitu barik, geiago lokaztu egiten daualako.

Eta 1.492an Granadan sortutako Bake errian: *guzurrezko espainiar izena aurrera eroateko aberri lez, bereztasundutako Euskalerrriaren eskubidezko egiak kontuan artubage, Kolonen nortasunezko izena ixilpean eukiteko bezela onetsi edo ontzat artu eben*, Jainkoak ipinita daukazan legearen aur-

(1) *Berdinkatu* = *comparar*. (2) *Gadir o Kadiz* = *recinto amurallado, esan-gura dauena*.

ka joan arren ez daukielako ezere ardurarik emoten. Euren batzangotasunaren asmakuntzan ez dabelako atzerakadazko pausurik emongo, ote da ?.

Kristauak edo Goiko Jainkoaren siñezle edo sinismendunak izango ote dira alango jende oneik ?.

Herodotok ez ebelako jakin Ibero edo Eusaldunak bat izan zirala (?), eta ondorengo edestilari es-paintarrak, euskaldunak zirala esan orduko, lenau *moro* esaten dabelako ?.

Ez dauka ardura aundirik, 32-37 orri aldietan agertzen diralako Afrika, Asia ta Europa osoan dagoezan euskerazko itz eta toki izenak, sasikatoliko batzangozale orreik guzurti lez ipinten da-bezanak.

Ejipzio eta Fenizioak itsasbazter orreitarra eldu ziranean, gaiendu egin ebela Tartesoaren jende-kuntza esaten dabe batzuk, beste batzuk alderantziz, egokituta geratu zan Tartesoaren jendekun-tza, Fenizioaren jendekuntzatik artu ebezan jakintzakaz jendekuntzatu zala esaten dabe, euren jendekuntzan berakada aundi bat eginda.

Begitu non dauan beste argibide bat, Tartesoak euskaldunak zirala esateko.

Tarteso oneik euren jendekuntzan berakada andia emon ba-eben, Euskerearen aldetik ondo ai-tuten dan gauza da, *euskerearen sorraldiko nortasuna, ez dalako ulertzen askatasunezko demokra-ziaren aztura bidetik kanpo.*

Tartesoaren lurraldeetan ezagutzen diran Uri batzuk: *Turta* turdetaniako Uri nagusia, *Mastia* gaur Kartajena dana, *Molybdan* Uri izena bakarrik ezagutzen dana, eta Granadaren lurraldean *Elibirge* gero euskerazko *Iliberri* izenean geratu zana, eta *Iliberri* izenetik *Elbira* ren izenera alda-tu ebena. Errege, artekari edo antolatzaile baten bidetik jaurkintzen ziran tarteso oneik, eta Ero-dotoren esanetatik: K.a. 630-550 urte bitartean, Argantonio izan zala tartesoaren azken erregea eta Asia Txikiaren Joniko itsasoan gaur Esmirnako urkolkoan kokatuta egoan greziatar fozensea-ren Uriagaz, 40 urtetan aukeratu ebezala euren arteko salerosketak.

Euren bizi bidea, nekazaritza, arraintza eta abelazkeratik zuzentzen eben, baiña euki eben aberas-tasuna, menasta⁽¹⁾ bidetik lortzen eben: urre gorri, zidar⁽²⁾, ziraida⁽³⁾ eta menast onekaz lortzen ebelako Tupikia⁽⁴⁾ ta egiten ebazan zillarrezko diruaren salerosketatik.

Zillar eta berunaren ornilaria⁽⁵⁾ aundienak izatera eldu ziran Lurrarteko Itsasoaren izparter guz-titik, eta Britania Aundiaren Kasiterides´eko ugarteetaraiño⁽⁶⁾ joaten ziran ziraida edo eztañua ataraten, gero tupikian⁽⁷⁾ biurtzeko.

Errigizarte lez eta aberastasunean sartuta egon ezkerro, eurak gizon emakume lez nai askatasun osokoak izan, lana, menperatzailezko jaurkintzan euki eben, goimaillako gizonak gudal aginta-ritzan atonduta.

Gizarteko maillan, salerosketatik bizi ziran printzeak eta abadeak izan ziran goi aldekoenak, eta orrein ostean, nekazari edo lurlangille, eskulangille edo ederzale, salerosle, ta itsasoko mariñelak askatasunesko gizon lez, gizarte orren askeneko mailla, yopu edo menpeko gizonarekin egokituta.

K.a. VIIn gizaldean aienatu ziran Tarteso oneik iñork ez dakiela zergaitik.

Tartesoaren suntsitzea edo aienatzea, Kartago eta beste Fenizioaren bultzadagaitik zala esaten dabe batzuk.

Beste batzuk Kartago ta greziatarren artean egon zan Alaliako borroka bitartez, Kartagotar oneik irabazle urten da, eta Tartesoak greziatar-fozeosekin euki ebezan salerosketaren arremnagaitik, Kartagotarrak bekaiz ta mendekari, Tartesotar leiñu orreri, eriotzagaz ordainduazo egin eutsela esaten dabe.

Ba-dago beste eritzi bat, Keltiarrak etorri ziranean Tartesoak aienatu zirala esaten dauana, naita gaur, lurralde orretan egon ziran lurrikararen ondamendi bidetik izan zala beste batzuk uste edo sinistu.

(1) Menasta = metal o metales en plural. (2) Zidar = plata. (3) Ziraida = estaño. (4) Tupiki = bronce. (5) Ornilaria = prooveedor. (6) Kasiterises´eko ugarteetaraiño = los Fenicios tambiense dedicaban en esas mismas islas ala extracción del estaño. (7) Tupikia = bronce.

2.7. Tartsoen ostean, Turt, Turdetano edo Turduloen agerpena.

K.a. VI In gizaldian Tartesotarrak ez ziran aienatu guztiz Alaliako borroka orren ostean, edo beste batzuk esaten dabenez, lurralde orreitan sortu ziran lur-ikararen ondamendi bidez, bereala agertu ziran Tarteso leiñu ondorengoak ziran Turdetar oneik Guadiana ta Guadalkibir ibaiaren bitartean kokatuta egon ziranak, eta erromatarrak agertu ziranean Betikako lurraldea deitu eutsiena, Guadalkibir ibaiari Betiseko izena ipini eutsoenean.

Tartesoak, grezitarrakaz euki ebazan salerosle ta jendekuntzazko arremanak ezereztu ondoren, Kartajinezak euki eben indarrezko eragipen barruan izanda, ibero edo Turdetar euskaldun onein agerpera, ez eben eragozpenik euki, orduko politikari men egin ta era orreitan ezartzeko.

Erromatarrak agertu ziranean, Turdetar oneik ez eben galdu eurak euken euskal edo iberotar nor-tasunezko izatasunetik ezer, eta Estrabon erromatar edestilari ta lurrak bere neurrietako jarkean margoztu⁽¹⁾ egiten eban gizonak, eurogaitik esaten eban: Iberotarren artean, jakitun aundienetari-koak lez euki ebezala Tarteso oneik, idazkera ezagutuaz gain, 6.000 urte baiño lenagotik etorten jakiezan lege ta kondairak itzneurtuko bertsoetan abestuten ebezalako euren artean, norgeiagoka lez. Nekazaritzazko lanean, goldea⁽²⁾ ta aultzi edo narra⁽³⁾ ezagutzen ebezala eurak etorri orduko esaten eban Estrabonek, eta lurra landuz, zitu, bii⁽⁴⁾ edo aleak ereiteko, oliondo⁽⁵⁾ eta matsondoak⁽⁶⁾ egokitu egiten ebezala, olio aran eta maatsa artzeko, idi, zaldi, ardiaren artzaintza ta abel azketaren ekintzan bizitzeko, mealangintzaz gain.

Askatasunaren demokrazizko gizasemeak izan ziran, eta erromatar menperatzailearen aurka-koak ziralako, keltiarrekin alkartuta, Jaeneko lurraldean Mengibarreko errian ta beren *Iliturgin eko*⁽⁷⁾ mendizkan, gaur Makizeko mendizka esaten dautsoen mendizkan, aurre egin eutsoen Marko Porzio Katonek bideratzen ebazan erromatar gudalozteari ta galtzaille agertuz, meazte-giren jabetasunezko ardurea kendu eutsoen erromatarrek, luraren lan bidetik bizi izanda andik aurrera.

Estrabonen esanetan, Tartesotar⁽⁸⁾ oneik 6.000 urte baiño ariñauko kondairak ta legeak abestuten ebezala bertsoz. Ez ote da argiago ikusten, Omosapiensenen leen zabaltasunezkoak izanda ta gero euskaldundu zirenak zirala, inguru guzti orren toki-izenak ikusita ?.

Illiberri, Iliturgin, Garun⁽⁹⁾ toki izen ta janari izenak ikusten doguz amen bertan, ta Iberoak izanez gain, zer geiago ote bear dogu, euskaldunak zirela esateko ?.

Katoliko Aberkoi zale edestilari edo istori-idazle onei esan bear jakie, *Iberriako* seme alabak Euskaldunak baiño besterik ez zirala izan, ta ordua dala, gure leen arbasoengandik gaigauza guztiari ipini jakiezan izenetatik deitutea, Jaungoikuaren seme zintzoak izatea gura ba dogu.

Badago esan zar bat: “*Maitasunezkoak dirala egizko ekintzak, arrazoikeri guztien gainetik*” esaten dabena.

Turdetaniaren amaiera. K.a 237ko urtean Gadir edo Kadizen, Amilkar Barka lurreratu zanean ta Turdetanoen Istolazio ta Indortes erregeak menperatu ebazanean sortu zan.

Amilkar Barka gero gorantza joan zan Akra-Leuke Uri barria irasita, gaur Alikanteko izenakin ezagutzen doguna, ta erromatarrak sartu ziranean Luzentun romana izango zana.

Bere Uri nagusietatik: *Ispalis*⁽¹⁰⁾, *Ilipa, Asta, Onuba, Astigi, Karmo, Korduba, Urso, Asido, Iptuzi, Ostippo*. Eta Lusitanian edo Portugalen: *Salazia, Kaetobriga, Myrtilis, Ossonoba, Balsa, Baesuri*, ta abar izan ziran garrantzitsuenak.

(1) Geografo. (2) Goldea = arado. (3) Aultzi edo narra = trillo para trillar el trigo. (4) Zitu edo bii = cereales. (5) Olivo = Oliondo, olio-zuaitz, olibondo. Oliva = oli-aran, olio-ale. (6) Mats-ondoak = cepas del viñedo. (7) Iliturgin, Illiberri = Euskerazko izenak. (8) Tarteso-Turdetano onengaitik Estrabonek esaten eban, jendekuntz aundienetarikoak zirela, ta lur mozkin ta abere, ta itsas-untzietan be bai. (9) Garun = orduan Lur-Arteko (mar Mediterraneo) itsas-bazter guztietatik jateko ibiltzen zan, arraiñaren tripak edo garunaren barrukoekin egindako saltsa bat zan. Gaur guk garunaren edo barruki orreri “garu” izen bardiñagaz deituta. (10) Ispalis, euskal-berbea da “Is” = euskeran “iz” berbea, s lez esanda: ura edo ur lasterra esangura dau = Sevilla.

2.8. Europako lurraren zabalkizunera, indoeuropeotarren etorkizuna.

Europaren Ekialde eta Afrikan, Sargonek Akkad kaisertzazko Sargonida errege leiñuaren sortzaille izan gurean eta K.a. 2.600 urtetik asita Sumeriotarren aurka asi zanetik, gero Ziro, Dario, I Jerjes, II Jerjes eta Mardoniok egin eben odolkerizko sarraskiakaz ango errigizarteak larritasunezko egoeran ezarrira egon ziranetik, leiñu asko asi ziran andik urtenda alderrai itxuran Afrika ta Europatik zabaltzen, Etrusko eta keltitarren antzera.

Jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan, edo ta sikoneurri aundi baten Omosapienseko asierraren oiturari jarraituz, askatasunezko demokraziaren oiturazkoak izan ziralako, euren oldozmenezko asmakizunetan ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen, eta Asia, India eta Afrikako menperatzailetasunaren jarraibideak gogortzen asi zirala ikusiz, euren etxeak bertan itxita ta euren bizitzak erdi alderraiezkoenak⁽¹⁾ izanda, errez iruditu leike zergaitik izan ziran euren leiñuen erri aldak. Nik, jakitunen artean ibilita sarritan entzun neban, Munduko gizakiaren edestia, sei tximu mota ezberdiñakaz osotzen zala, eta gaur Theo Wennemann jermaniar ele jakintzaren maixua, Peter Foster, Kanbridgesko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea dana, eta beste jakitun askori esker, danok dakigu, azken gizakiak *makakus Rhesusetik* gatozela, euren azterketak alan emoten daualako, eta euren artean ulermenezko lortu eben leen euskerazko mintzoera bidetik dala.

Elejakitunai, burukomin aundiak emon eutsoezan indoeuropeotarren izkuntzazko arlo onek.

Mundu onen menperatzaillle-maltzurak, sekula ez dabelako gura izan egirik argitu daiten, edo ta euren maltzurrezko guzurak Jainkoaren lege argiekaz agirian geratzen diralako, alegiñ aundiak egiten dabez billakarien azterlan orreik, bereztasunezko legera ez daitezen urbidu.

A ta guzti, jakitunen izkuntzazko azterlan bidetik, izkuntz orreik daukien azpiko edo oiñarrizko bardintasunagaitik, izkuntz bakar batetik sorturikoak dirala deritxe.

Goiko edesti laburretan ikusi dogu, menperatzaillleak euren sasi eritxiak aurrera eroateko, zelako erak edo arauak⁽²⁾ erabilten dabezan besteak daukien nortasunaren ordezko ardurak ezereztuteko.

Izkuntzalari batzuk⁽³⁾ orregaitik, guzuraren mugara elduta eta adierazpenik gabe geratzen diranean alde batetik, eta bestetik, menperatzaillleak goi aldetik Damoklesen ezpata dindilizka eukielako prest, izkuntzaren zalantzazko gauza guzti orreik Indoeuropear zorroan sartutako erabakiaz, garbituta geratzen zirala gogoratu ziran.

Ekintza orreik baiña, urrin dagoz egitik.

Adibidez: Zergaitik Gaztelera eta Katalan latin kumeak indoeuropeo zorroan sartu ?.

Ez ziran sortu biak latin eta Euskeraren bitartez ?.

Edo, latiñaren mendeko ekintzatik ?.

Barragarria da zorro orreitan danak nastuta sartzea, jakinda gaiñera, Latiña, Etruskoak grezitar izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebela, eta Etrusko ta Sumerioa izkuntzak, sustrai batekoak dirala.

Felix Zubiagak ondo argitzen dauz orren gora berak. Adibidez: atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zala berbea, *esan/izaneko elburua bete daiten* esaten dau, eta oiturazko arau zaletasunean oroi-menaren atzekadarik egon ez daiten, izadi onen berezko antolakuntzagaz ondo baiño obeto egokitu zala, bere galduerak, danoen oarkabeen atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dana bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean kokatuta dagolako.

Oar txiki bat emen.

Orregaitik nik, azterkuntz guzti onetan ikusi dodanagaitik, ezin dodaz aipatu barik itxi, izkuntz, izen toki, azur, margo, giza izti eta abarrezko billaketaren azterkuntzan ibili diranai, nai ta egiaren billa ibilita, menperatzailllearen berekoitasunarengandik edestian zear oztopo aundiak eukiaz, arri-garrizko azterlanak egin dabezelako.

(1) *Erdi-alderraiezkoak = semi-nòmadas.* (2) *Zelako erak edo arauak = formas o leyes.* (3) *Izkuntzalari batzuk = algunos linguistas.*

Azterkari maisu andi oneik, Asia ta Afrikan lenengoz, toki izen ta edestiko lan bidez Izadi onen Omosapiensenen asierara joanda, arrigarrizko egoarriagaz eroan⁽¹⁾ bear izan eben, ikusi ebenean ondorengo kaizar aldiko menperatzaileak eskuetan pintzel edo ixipu⁽²⁾ aundiak artuta, zelan margoztu ebezan euren asmaketazko eritziakaz⁽³⁾ erri baktzaren edestiak, euren etenbako azterkuntzazko lan ederrakin, arrazoi edo egiaren illuntasunak argira agertzeko.

Arritzeko da, aldiko kaisar-menperatzaileak erri baktzaren edestigaiñean ainbeste margo esku emon eta gero, maisu aztertzaile oneik, ebaketariak⁽⁴⁾ egiten daben antzera, margoaren esku aldi bakoitza kontu aundiagaz zati txikietan erauzita⁽⁵⁾ azpikoa ez daiten ondatu, urte askoren ondorioz zelan eldu diran oiñarrizko egira.

Gaur erdikusten baiño askoz geiago asi dana, eta emendik aurrera jakintzazko arlo guztietan eta dagozan almenakaz, gero eta errezago izango dana, eurei esker.

Joan gaitezana ba jakiteko, nun ta noren norkerizko asmakuntzarekin asten dira mundu onen erri-gizarteak klonezko batzango baten jaurkitu gurean, txandako menperatzaile orreik ixipua eskuetan artuta, Europako lurra eta erri-gizartearen nortasunak ez daitezana ezagutuak izan, ainbat alegiñ egin ebezalako euren eritziakaz gaiñetik margotzen.

2.9. Keltiaren etorkizuna.

Kontu andian artu bear doguz keltiar oneik, gure lur edo Europaren sartaldera etorri ziranean, eurakaz menast aldiko⁽⁶⁾ jakituria ekarri ebelako guretzat eta beragaz aurrerakuntz aundiak sortu ziran lez zeregin guztietarako, euskal biziarentzat erreztasun aundiko pausoak emon ziran, bai eta zelan kokatu ziran gure artean ezeren eragozpenikbage eurak aienatu arte, gero adieraziko dodan lez.

2.10. Nortzuk ziran keltiarrak ?.

Keltiarrak, indoeuropeoaren izkuntzak mintzatzen ebazan leiñu alkarte bat zan, Galia, Britaniako ugarteetan, Iberiako ugarte-erdi onetan, Italian, Trazia eta Asia Txikitik zabaldu ziranak.

Eta iparralde ta ekialdeko jermanoaren aldetik erasotuta egon arren, erromatarrak menpetu ebezan euren lurralde aundienak, naita Britaniako ugarteetan askatasuntsu bizi gizaldi askotan.

Senidetasunaren elkarteko antolakuntzan bizi ziran, eta euren jendekuntza, tupiki ta burdiñezko langaiaren⁽⁷⁾ eskulaneko lantegi⁽⁸⁾ ta euren onaurkitik⁽⁹⁾ artzen eben bidetik, zorion eta bakez bizi ziran, Europako Mendebal onek euki ebezan euskaldunezko leenengo biztanleekin.

Euren erlijioa, ez zan Izadi onen gai-gauzazko jainkotasunaren gurketatik⁽¹⁰⁾ gora joaten.

Keltiarrak, ez eben uste arimak ilten zirenik, eta gorputz batetik bestera aldatu egiten zirala oldozten⁽¹¹⁾ eben.

Izarrak eta euren arteko jainko aundiagoak gurtzen ebezan, adibidez: jainko aundienari

YUN, gudarako jainko **Hesus**, eguzki ongillearen **Bell**, aizearen jainko **Kirlo**, eta **Javai** odei, oztots, ortzantz karraska edo trumoiaren jainkoari.

Erre egiten ebazan euren agintari ta gudako zuzentzaile ildakoak, euren abadearen⁽¹²⁾ gudako dantzakaz, illak erre egiten eban ingurutik jauzika ibiltzen zirala.

Beso bitan banandu zan euren izkuntza, bata: Europako lur aundiaren **galoa**, IVn gizaldian erromatarren eraso eta latiñak euki eben eragipenagaitik ezereztu egin zana, eta bestea, Britaniako

(1) Egoarriaz eroanda = llevado con paciencia. (2) Ixipua = brochas. (3) Asmakizunezko eritziakaz = opiniones inventadas lejos de lo que entendemos como verdad. (4) Ebaketariak = operador quirurjico. (5) Zati txikerretan erauzita = hacer saltar entozos pequeños. (6) Menast-aldia = edad de los metales. (7) Langai = herramienta, instrumento de trabajo. (8) Esku-laneko lantegia = fabricaion o fàbrica de trabajos manuales. (9) Onaurkitik artzen ebena = beneficio tanto en dinero, como aprendizaje en la elaboraciòn de los instrumentos que hacian. (10) Izadi onen gai-gauzazko jainkotasunaren gurketatik = sistema panteista que identifica a Dios con el universo. (11) Oldozten eben = que ellos pensaban. (12) Britaniako abadeari = Druidas esaten jakien.

ugarteetan, gales, korniko, breton, ta galeikoak ziran irlandes, eskozez, ta antziñauko manx edo manxerako ugarteetan mintzatzen zan Keltiarren galeiko izkuntza.

Trebetasun aundira eldu ziran, tupiki, burdiña, urre eta zillar lanetan, leenengo Hallstatt denboran, eta bigarrena K.a. Vn gizaldian Tene aldia esaten jakonai, erromatarren aldiraiño iraun ebena. Eta eurori ezartzen jakie txirrinkadun goldea.

2.11. Keltiarren agerkeria.

K.a.2.000 urte izango dira Leenengo-Keltiarrak, Alemaniaren Ego Mendebaleko lurraldetan agertu zirala, eta denbora askotan egon ziran bertan kokatuta, euren izkuntzakaz leiñuzko auzoetan laterrituta.

Ortik, leen Britaniako ugarteetara zabaldu ziran, gero Mendebalderuntz Iberiako erdi-ugartera, Ego alderuntz Italiaren Iparraldera eta Eki aldetik Danubio ibaiaren bealde baiño urrunago.

K.a.1.800-1.600 urte artean, Britaniako Ugarteetara egin eban leenengo errialdaketa.

K.a.1.200-800 urte artean, Galia edo Frantziaren Britaniako lurraldeetara⁽¹⁾, Frankoak Loira ibaiaren goialdean kokatuta.

Eta K.a.900-500 urte artean, Hallstatt deitzen jakon burdiñezko asierari eta Alemaniaren Ego aldean Renaniako lurraldetan kokatuta egon ziranean, Keltiar-jendekuntza⁽²⁾ Europaren Sarkal-detik zabaltzeko gertatzen asi zan.

K.a.VI-In mendeen artean, Tene deritxon goimaillako Keltiar jendekuntzak egin eban zabalkuntza ori, Europako lurralde guztietara eldu zana.

Tene deritso jendekuntzazko aldi onetan, keltiar izena ta ospea, aundieneko goimaillara eldu zan. Britanoek, Goideloak bota ebezan Britania-Aundiko ugartetatik Eskoziako euskal Piktoakaz bakez bizita, arik eta erromatarrek joanda, euren artean bat egin arte, eta Akitaniako lurraldeetatik zabalduz erdi ugarte onetara aldatu ziran, keltiberoaren edo Iberiako keltiberoetan biurtuta⁽³⁾.

Euskaldunak ziran Ebroko bealdean egon ziranak, ta edestiko azterbidetik ikusten danagaitik ondo baiño obeto konpondu ziran antza, gero erromatarrek agertu ziranean, gure artean urtu edo aienatu ziralako.

K.a.Vn gizaldian La Armonikagaz⁽⁴⁾ jabetu ziran.

K.a.IVn gizaldian, Alpeseke mendikateetaik aldatuta Po´ren zelaikadean sartu ziran ta Italiako Iparraldean kokatu ziran, lurralde orreri Zisalpina izena ipinita.

K.a.280ko urtean, Asia Txikiatik zabaldu ziran, galataseko⁽⁵⁾ izenagaz ezagututa.

K.a.279ko urtean, Grezian sartu ziran.

K.a. IIIIn gizaldian, Keltiarrak guda-indar aundia euki arren, abizenaren senidetasunezko leiñuetan bizi ziran, eta arro erakutsi be, bakoitzak jantzi lez eroaten eban senidetasunezko zirrikitona⁽⁶⁾.

-Batera tupiki, burdiñ, urre eta zillarra landuten ain trebeak izanda, eta borrokalari baiño larraketaren artzaiketaren ta nekazaritzan geiago ibilita, errez ikusten da ez zirala menperatzailleak izan.

-Euren nekazari, arrantza, abel-zaintza ta lantegiko trebetasunean ain zabaltasun aundia eukinda, ez daukelako zentzurik menperatzailleak zirala esatea, euren senidetasunezko zintzoasunean bertan egon ziran euskaldunakin bakez bizi ziran, eta baten batzuk leporatu egiten badautsiez

(1) *Frantzia`n ariñagotik Britania`ko lurraldeari deitzen jakon izena eta gero erromatarrek galia`ren izena ipinita.* (2) *Keltiar Jendekuntza = civilizaciòn celta.* (3) *Goian aipatu dogu, eleiza katolikoaren baime-narekin zelango zaletasuna daukien espaintarrak, Euskalerraren izena ez daiten inõndik agertu, eta lan guzti onen ondorioa idazten dotenean, bera bakarrik eukingo dau bere argigarritzko laburpena.* (4) *Galia`ren antziñako izena, Loira ta Sena-ibaiaren erdian kokatuta egon zana.* (5) *Galatas`en izena = Galazia-koa, edo ta galo, erromatar eta Asia-Txikerrean sartu ziran keltiarrari, grezitarak ipini eutsen izena.* (6) *Zirrikiton = tartàn, tela de lana a cuadros, identificandose cada clan en la variedad de su color.*

menpekotasun orreik, konturatu daitezala, menperatzailetasunezko batzangotasun orreik ezin leikezala aurrera eroan, indarrezko guda antolamendu gogor bategaz izan ezik.

-Eta erromatarrek menperatzaile edo batzangotasunaren antolamendura jokatzeko ebelako, Keltiarren sendiak menderatzen joanda emon eutsoen bultzakadagaz, aienatu edo urtu egin ziran, keltiar leiñuak euskal leiñuen artean, Eskozia, Irlanda, Gales, eta Galizian bakarrik geratuta.

Orañarte ikusi dogun lez, ondo baiño obeto konpondu ziran keltiarrak euskaldunakaz, leen erromatarren bultzakadagaz gure artean bakez aienatu ziralako, eta bigarren, ainbeste aurrerakuntza nekazaritzan, urre, zillarra, tupiki, eta burdiña lantzen irakatsi ebelako.

Oar txiki bat.

Emen, gogaitgarrizkoa dalako, espainitar edestilariaren buruz zeozer aipatu bear dogu berriro: *Euskalerrria*, jakin erri zaarrena dala Europa osoan eta iñungo liburuetan aipamenik egin ez !. Nortzuk ote dira espainitar orreik edestiari buruz, alango illuntasunezko isiltasunak egiteko ?.

-Eta aipatuak izaten ba-gara, guzurrezko maltzurtasunez, beti iñoren menpean egon garela esateko ?.

-Gaiñera, Paleolitiko-Neolitiko alditan, orain milla urte asko lortu eban izkuntz ederrenean eta paregabeko demokraziaren jendekuntzan agertu ondoren, bereztasunezko erri guztietatik bera bakarrik geratu danean?.

Aberkoi katolikoaren alde ekintza ori egiteko, eurak eritzi orren morroipekotasunetik urten ezin egonda, danok serbitzu orren menpe bizi gindezan, ez ote dabiz jolasten ?.

Bestela, eritzi ori edo ta, orren serbitzura daukiena ote da, eurak daukien jainkoa ?.

Zergaitik ez ote dabe esaten argi, eurak direla *jaungoikuak* ?.

Eta emen ez dau balio esatea, guzti au Europaren jaurkintz onerako egiten dabela, K.o. 2.014n urte onetan, menperatzailetasunezko asmo orretatik eta *gizaren eskubideak guda bidez ondo lotuta daukiezelako*, edozein arloetan arakatu ezker *norkerizko bidetik agertzen dan sasi-jainkoaren lapurtza eta ustel usaiak bakarrik agertzen dalako*.

Gaur egun dakigunagaz, guzurra esan leike dala, ainbeste menpekotasuna, danoren jakin gaiñean eta burua lurpean ostonduta egiten dabezelako, norkerizko lapurtza orreik.

Buruaren ostondukera orreik ez ote dira, eurei be lotsa emoten dausiela umekerizko lapurtzan egiten dabezan zentzunbakokeri oneik ?.

Jakintzazko goimaillatan, maltzurtasunez jokatzeko dabizen nagusientzat, ez bakarrik Mundu, Europa ta espainitarren artean, bai gureak edo euskaldunak diranentzat be, lotsagorri aundiena⁽¹⁾.

2.10. Lenengo, bigarren eta irugarren zati onen ondorio labur bat.

Orañarte emen ikusten doguna, zelan Ludi onetan Omosapiesen bizitza orain 30.000 urte sortu ondoren eta euren arremaneko ulermen onenean kokatzeko, ezerezetik lenengo itz-ots´akaz gauza ta egoera guztiari izenak ipiniagaz batera, arremanen ulermenerako eta bai jateko bear eben tresneri guztia egokitzen joan bear izan ebela.

Gero, 15.000-10.000 urte artean Paleolitiko asken denborak, edo ta Arri Aroko aldiak Wurm deritzon azkeneko izoztasun andi orrekin ostetik, gesaltze aldiak agertu ziran eta izozti andi orreik urtzen joan ziran neurrian Afrikatik urtenda, zelan zabaldu ziran Asia ta Europako mendebalaren eguraldiko lur-bero guztitik, erdiko edo Alemania ta ortik goiko lur otsak bertan itzita areik eta inguru ori, bizi leiken eguraldi on baten sartu arte.

Eta milla urte askotako azturan, nai oituran eta itzaren aotseko oiñarri batetik urten arren, zelan euren leiñutasunezko urruntasunagaitik lortu ebezan, eurei gero nortasunezkoak bihurtuko jakie-

zan izkuntz bereziak, gitxi baiño ez ziranak lenengoetan, euren auzotasunezko laterritasunaren artu emonetan, lur zabalekoak ziralako.

Bai eta, zelan danon arteko adeitasunaren⁽²⁾ oiturazko ekintzagaz, eskubideen arloetan demokrazizko ekandu ederretan egokitu, arik eta Ekialdetik Europaren Sartaldean baiño eguraldi beroagoak euki ebezalako, 3.000 urte aurreratuagoak egoteagaitik.

-Eta norkeriaren menperatzailezko maltzurkerietan be ariñago asita, sortu ziran kaisar menperatzaile bakoitzak, ixipu lodiak euren eskuetan artuz, zelan asi ziran margozten euren norkeriz euki ebazan asmakerizko eritziakaz, berezko errigizarteak ararte, lortu ebezan demokrazizko jendekuntz ederren gaiñetik. Eta orren guztien ondorioz, Ekialdeko Kaisar menperatzaile orreik, euren norkeri bidez ango errigizarte guztiak goitik bera eta joputzazko agintaritzan menperatuz gaiñ, domugarritasunezko⁽³⁾ araubide bateko kontrolpean jaurkitu gurean, errialdaketara bultzatu ebazan ango leiñu edo errigizarteak, Europa, Arabia eta orduan ez ziran ezagutzen alde guztietako lurraldeetara zabalduz.

Ez eben lortu domubide⁽⁴⁾ ori European sartzerik, Greziaren erri-zaleak bota egin ebezalako, baiña Etruskoak gura ezdala, edo eurak irasi ebezan salerosteko uriak lapurkerietatik babesteko, zelan eraiki eben erromatar gudalozte ori.

Azken baten, ikusten ta ulertzen doguna iru zati onen emaitzatik, Paleolitiko Neolitiko aldi zabal onetan, gure arbasoak jakiturizko jendekuntz, eta errigizartearen demokrazizko jaurkintzetan, ezin obetoko oiturak⁽⁵⁾ edo ekandu oneko ekintzan jaurkintzen ebela, leiñuzko auzo lez, irasi ebazan demokrazizko batzarrarekin.

Euskaldunak, daukagun nortasunezko Peleolitiko-Neoitiko euskerarekin, erakuspide edo argibide ederrena emoten dautsogu mundu onen gizasemeari, gauza oneik argituz:

a) *Gaurko Euskaldunak, arri aldiko aitorleak garela..*

b) *Euskerea berak, erakusten dauskula, Ludi onen edesti guztiko aldi, denbora, egunak ta ekintzak, bardiñak dirala guretzat, gizakiren zeregiña mundu onetan, kundeatzailearenak edo, zor eskubidearen ekintzan, txar, gaiñki edo ta on ordezkatzeko arduradunak garela erakusten dauskuelako, Jainkoak bereztu egin eban gai onen izakizun edo ta beragaz amaibako eratan egin geinkenagaz.*

d) *Norkerizko alegiñetan dabizenak, alegintzen dirala egizko aztarna edo arrasto guztiak ezerez-tuten, euren sasijainkerizko naikerian bizitzeko.*

Eta orretarako, edo ta mundu onen gizakiari Jainkoaren agindua bete dagigun apur bat laguntzeko, Jainkoari begituta lortu genduzan ulerpideak edo Beren legeagaz aztarnatzeko baimendu egiten dauskuzan ulerpideak, lortutako "euskerazko mirari aundi onegaz sortzen dan lez" ezereztu gure dabela, Jainkoaren legebidean egindako tresneri orreik, dabizen bidetik artez, artzez, "oker dabizela agert araxten dautsielako".

e) *Konturatuko ote gara egunen baten, mundu onetara ez garela etorri dirua irabaztera, "berak bereztutako legeakaz txarto edo oker egiten doguzenaren barkamena irabaztera baiño ?".*

Batzuk baiña, diru irabazteagaz uste dabe antolaketa onenak egiten dabezala, eta urriñetik begituta be, ez da ori, "zor eskubidearen ordezkartzazko buruzpideetan, erdiko edo alderdibagekoak izan gaitzean eskatzen dauskulako".

Mundu onen gizon jakintsuak "apalkiro", gogarpeneko eten txiki bat egin bear leukie, norkerizko bideak albo baten itxita, Jaungoikoaren "nortasunezko" bideak artu dagiguzan, Bere aginduak zentzunez beteteko.

Bai eta Sargontarrak, norkerietan asi ondoren, menast⁽⁶⁾ aldian sartuta eta eurak emon eutsoen aurrerakuntzagaz aldi orreri, zelan artu ebezan euren menperatzailezko ixipu aundiak, Ekialdeko errigizarteetatik, euren asmakerizko margo eritziegaz jaurkitzeko, eta Europa etorri ziranean ta Grezitarrak geratu ondoren, erromatarrakaz zelan bizkortu zan gure artean nerekoikeri ori.

Baiña ori laugarrenengo zatiaren mamia dan lez, bertan agertuko da.

(1) *Lotsa-gorri = sonrrojo, vergüenza, afrenta, descrédito, deshonrra.* (2) *Adeitasuna = cortesía, atención, deferencia, miramiento, consideración.* (3) *Domugarritasunezko = sistema capitalizador.* (4) *Domubide = capitalismo, o, sistema capitalista.* (5) *Oitura, ekandua = costumbre, moral.* (6) *Menast-aldia = edad o conocimiento de los metales.*

4. Zatian

1. Aurkezpena.

Ikusi dogu:

Zelan Paleolitiko Neolitiko denborak menast aldian sartu orduko, gure arbaso edo orduan bizi ziran gizakumeak, ondo ordezkaturako arremantatik, oreka eta arduradunezko zentzun andian lortutako bakezko biziera onbat itzi euskuela.

-Eta Europa oneri batez be erakutsi, euskal nortasunaren oiturazko zentzun aundian eginda-koagaz, eurak ezarri ebela eukezan batzar demokratikoarekin, gizaren eskubideak alderdikeribage antolatu bear direla.

-Sargondarrak egin ebezan zarraskiakaz, zelan ipini ebazan Ekialdeko leiñu demokrati-koak alderrai, al eben lekuetatik zabalduta, Europara leen etorri ziran keltiarrek lez.

Eta len, naita Ekialdetik agertzen ziran menpekotasunak ezereztu arren, zabaltzen asi ziran nor-keriekaz, Etrusko eurak salerosteko lanetan ibilita sortarazi ebezan Uriak babestuteko, sortu eben erromako gudaloztea espartar eritzian, eta Grezitarren izkitegia artuta, latiñ izkuntza be asmatu ta ekintzan ipini ebela, salerosteko arremanak erreztuteko.

Zelan joan ziran galtzen arreman onak, eta norkeriaren irudi zakar orreik, illuntasunezko mamu-tzar baten antzera joan zirala aundiagotzen.

Ekintza au da, danak edo geienak beintzat oker ulertu ta artzen dabena, berezko izkun-tzak, nor-kerizkoak gura dabezan erreztasunagaitik ezereztu gure dabezelako, eskubidearen ordezkari-tzak guztiz latz biurtuta.

Zentzuzko neurri ori dalako Jainkoak ipini euskuna gure ordezkari-tzaren ordainketara-ko, errez ulertu leike: mundu fisiko onetan, alde batetik zeozer kentzen dotenean, alde ori, kentzen doten neurri-gabetasunean geratzen dala, eta kentzen dozun zati ori beste leku baten ipini ez gero, gaienduta geratzen dala neurri orreitan.

Eta neurri onetan ikusten dan lez, alderdigabe-koak izateko: ***gauza edo bakotzari, zorjakona emon bear dautsagu, "ezeren aitzakia barik".***

Bakotzari berea, sarritan esaten dau gure Klaudio lendakariak.

-Kundeatzaileak egiten dabezan salerozketak, edo ta batzangotasunak eta abar, ez daukie nortasunik, gauzak ez direlako nortasunezkoak.

-Bai errigizarteak, euren azturan sortzen dabezan izkuntzak, beragaz lortu egiten dabelako nortasuna, eta batera daukiezan jendekuntzazko zentzu demokratikoakin, kundeatzaile lez egin bearezkoak, ulermeneko zentzu demokratiko orreitan bat edo urtu egin bear dira egiten dabezanak, igarri igarrian eta Jainkoaren lege onenean jokatzen dabil-tzan zentzu andiko nortasunezkoagandik eginda dagozela, errez ikusi dagiguzan. Kontu aundian euki bear doguz nortasunezko ekintzan egiten doguzan gauzak, norkerizkoetan biurtu ez daitezen, gauza eder bat, garratz biurtzen dalako.

Orregaitik emen ikusiko doguna, zelan Etruskoak nortasunezko gauza bat egin gurean, danoren eskubideak begituteko ez ebelako egin, euren babeserako sortu eben guda talde au:

-Izugarritasunezko mamutzar baten biurtuta, danak iruntsi edo menperatu gurean, berezko leiñu, erri, edo errigizarteak eten-bageko ta odoljarioaren ekintzan danak milla zatitan apurtzen asi zala, eta ez bazan naikoa egiten ebanagaz, ekintza orren ondore ekarri eben latiñagaz, berezko izkuntzakin ulermenean ezartzeko, izkuntzatan be, ainbat ganorabako latinkume sortu ebezala.

Guzti ori geure zoritxarrerako izan dana, ekintza orreik beste ainbesteko lanak ekarri dauskulako gizabidean ondorengoak garenei, okertutako gauza guzti orreik, euren berezko lekuetan ezarri bear diralako oster, mundu onetan ekanduzko oreka baten bizi gura ba dogu.

1.1. Sarrera.

Erromatarren artean sartu aurretik, eta Euskalerrian egin ebezanak, bai zelango artu emonak euki ebazan euskaldunekin azaldu orduko, Etruskoaren edestiagaz len aipatuta egon arren, nortzugaikitik, nun, eta zelango asmoagaz jaió ziran erromatar onek aipatu bear doguz, gero urteroko azalbide lez edestuko dodana, lotu edo bateratuta geratu daiten asieratik amaierarte.

Etruskoaren edesti laburra argitu dogunean ikusi dogu: Tito Libio edestilariak esaten ebala, “iñork ez dakiela nundik nora agertu ziran Etrusko oneik”.

Herodotok, Tirrenokoakin antz emoten dautsoe, eta Asia Txikiaren Frijia, Misia, Karia ta Ejeo itsasoagaitik mugatuta dagon Lidiatik, K.a. XIIIIn gizaldian alderrai, Italian agertu ziralako diño.

Beste batzuen esanetan Europaren erdian agertu ziralako, ta oraingo edestilarien gora beran, K.a. VIIIIn gizaldian, Arno ta Tiber bitartean bizi ziranekin apur apurka sortu ziralako.

Dekapolis edo amabi laterritasunezko urietan jaurkintzazko antolamenduan kokatuta, eta erlijiozko alkartasun edo batasun baten danak arremonduta.

Beste batzuentzat, Ekialdeko erri-bat dala esaten dabe, eta euren itsaslaritzazko lanbidetik, Toskanako lurraldeetan ezarrita, Ekialdeko Asia Txikiaren erri ta Greziagaz salerosteko arreman aundiak euki ebazala.

Asia Txikian Sumertarren erriagaz be antz emoten dautse, izkuntza arloan Euskaldunakaz lotuta dagozalako, eta baleiteke or zoezer ikustea, irurak asierako Omosapiensenen leenengo itz ots eta ekandu edo oikuntza bardiñakaz alkartzen dabezelako, baiña elkarte ori ez zalako politiko, edo menperatzailetasunezko batzangozale militarra, uri bakotza orduko askatasunezko demokrazia- ren oiturazko aginduan jaurkintzen ziran.

Dana dala, Erromako Klaudio kaisertzak, Etruskoaren gora beran idatzi ebazan 20 liburutik, geienak galdu ziran, eta or akatz aundiena.

Andi mandiko⁽¹⁾ eritzian bideratzen eben, sortzez, odolez edo ondorengo⁽²⁾ iraspenean egokituta euki eben euren jaurkintzazko agintaritzak.

Erljio arloetan, Sumeria, Kaldea eta Ejiptorekin be lotzen dabe, eta baleiteke orren e-sangurea bakarrik izatea, nundik etorrita agertu ziran Arno ta Tiber ibaiaren bitartera.

Mariñelgintzan eta bai lan ederretan oso trebe ta zentzun aundikoak izan ziralako, Lurrarteko Itsasoaren erri nagusi guztiakaz euki ebezan arreman sendoak, eta ez euken lotsarik euren gizabidea aberastuteko, Italian, Ekialdeko Sirio, Ejiptio ta Grezitarren jakintzazko aurrerakuntzetatik bear ebena artzen.

Itsas aldeko lurrak ondo landuta eukiaz gain, langintzan trebetasun aundiak artu ebezan eta merkataritzazko salerosketan maixutasun aundia.

K.a. 753an eta euren salerosketarako eraikiten ebazan uriak lapurretatik babesteko, Ramnes, Tizio eta Luzereak alkartuta, Espartarren itxuran gudalozte bat antolatzea erabagi eben, gero Palatino mendian kokatuta Roma Kuadrata deituko zana.

Ez ziran erabagi orregaz bakarrik geratu, salerosketetan danoen artean aituteko, Grezitarren izkitegi edo iztegiagaz Latiñ izkuntza sortu ebelako.

Etruskoen salerosteko jakintza aundian baiña, leen asmakizuna latiña sortzeko, baliteke mundu zaba- lean jakintzaren ibil-gaillua izan zedin egin ebela. Greziatarren laguntzagaz erindu eta argituz⁽³⁾ biribilduta⁽⁴⁾, elerti arauzko izkuntz andi bat biurtuta geratu zan gure gaurko egunerarte iraun dauana.

Baiña beragaz-batera, mundua batzangotzeko menperatzailetasunezko asmakuntza eroan eban lez, naita 2.261 urtetan iraun, ezerezean geratu da, ezin izan dualako berezkotasunari edo Jaungoikoaren legedian sortu ziran izkuntzari geiago egin.

(1) *Andi mandiko* = *blasonador, suntuoso, ostentador, fastuoso, aristokratico*. (2) *Ondorego* = *hereditario, sucesor*. (3) *Erindu* = *refinar*. (4) *Biribildu* = *perfeccionar*.

Erromatar asmakutza au, norkerizko menperatzaille asmakuntz guztien antzera, menperatzen ebazan errigizarteari, ez zan gai jendekuntz lez ezer erakusteko, eta bere ibilkeran bakez batzangotu, zuzendu, edo ta gauzak konpondu baiño, birrindu edo milla zatitan banandu egiten ebazan ikutzen eban guztia, euki eban asmakuntza norberkeriaren aldeko lapurtza egitea izan zalako, Jaungoikoak, danon bizitzarako ipini euskuzan elikagarri guztiak, eurak gozatu edo xurruptatu gure abezelako.

Bestela ez dago begitutea baiño, egin ebana: *Ekialdeko Sargonen Akadiako kaisertzak menperatzailletasunezko ekintzan, berezko izkuntzetatik Akkad'eko izkuntzkume edo indoeuropear izkuntz gitxi sortu ba ebazan, erromatar oneik, izkuntz orretatik asko ezereztu edo latiña gaiñeratuagaz geiago naastekatuta, izkuntz orreik berriz aldatu edo ta bestelakotu egin ebazan, Ingles eta Aleman izkuntzagaz egin eban antzera, eta ez zan gitxiago Euskerea berba egiten zan Europaren mendebal lurraldetatik egin ebana, beste ainbeste latinkume sortuazota.*

Erromatar menperatzailleak Etruskoak egindako-latiñagaz, berezko euskeraren izatasunezko nortasunagaz naastekatuta, Europaren mendebaleko euskal lurraldeetan ainbat latinkume sortu ebazan, erdi ugarte oneitan sortu eban antzera: Lusitanian⁽¹⁾ *portugesas*, Asturiasen *bable*, Burgo-seko goiko Ekialdetik eta kantabriaren bitartean *gaztelera*, Nafarroaren ur bazterreko ibarrean eta Aragoiko Iparraldetik *napar aragoiko* latinkondoak lez.

Europako euskal lurraldeak or galdu ebazan askatasunezko zati aundiak, naastetasun orreikaz nortasunezko demokraziaren ulermeneko oiñarrietan atzerakada aundia egitea zalako, izkuntzak naastekatuz gain batera, bereztasunezko legeen ulermenak be aldatu edo ta galdu egiten diralako.

Euskalerrian argiago ikusiko doguna, gure errege jaun denboretara eltzen garanean.

Eta emen Jainkoaren legeari aipamen bat egin bear dautsagu: *Bereztasunaren aurkako asmakizun orreik aurrera eroanda be, beste nortasunezko aurrerakuntza bateri bideak zabaltzen jakozelako.*

Guk sinistu ez arren ulermen orreitara ez garelako eltzen, ulertu leikezan amaibako

Era barri orreik, beti joango dira nortasun barri orregaz jokatzera, Jainkoak Izadi oneri beren legeakaz bide zuzena erakusteko, daukagun "baitari" beartu egiten dautselako, joko barri orren antzezlarri on bat izatera.

Orregaitik bide barri orreik, naita ez beren lege bidera joan bear diranak dira, *mundu oneitan nortasunaren antzezlaritzatik kanpo, ez dagolako aukerarik guretzat.*

Danok bardin jaiota *antzezlaritzaren arduran bardiñak garelako* eta *nortasunik gabe*, ez litzakelako antzerkirik egongo.

Jaungoikoa da mundu onen arduradun bakarra. Ez gaitezana sartu gu, bere gauzatan.

Eta K.a.VIIIn gizaldi erditik onantza, Etruskoak euren zabalkuntza erabagi eben, Erroma gizaldi bateko agintaritzan zuzenduta.

Etruskoak, Adriatikoko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzikako ugarte menderatuta euki arren, Paleolitiko Neolitiko alditan lortuta, Uri nagusiak errigizarte guztiak lez, euren jaurkintzarako euki ebazan oiturazko bereiztasun demokratikoak, ez eutsen izten batzangotasunezko menpetasunetara eltzen, eta VIIn gizaldean Erromatar gudalozte orreik menperatzaillezko indarra artu ondoren, Etruskoen maldabera bideratu eben, irasi eben guda indar orren aurka asi ziranetik onantza.

K.a.509an, Griegoak, Samnitak eta galoak alkartuta, Etruskoaren erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K.a.Vn gizaldian Etruskoak, keltiar, Griego ta kartajinezaren aldetik sarritan euki ebazan erasoaren bitartez, eta erromatarrak menpetasunezko joku orreitan besteak baiño guda indar geiago eukinda, emon eutsoezan aukera orreikaz, bera jabetu zan euki ebazan egitarau eta onura guztiagaz.

K.a.IVn gizaldian eginda, Erromako irudia izatera eldu zan Kapitolinoko otso emea be, euren da, eta Romulo ta Remo umeen irudiak, otso emearen zizelkatuko xaflan K.o. XVIIn gizaldean zizelkatu ziran, eta or erromaren jaiotasunari ipini eutsoen kondaira, guztiz ezereztuta geratu zan.

(1) Lusitania = Portugal.

K. a. IVn gizalditik onantz, erromatarrek Etruskoen Uri nagusi guztiekaz geratu ziralako, euren erromatarren babesteko premiña euki eben, eta K.a. 295an erromatarrengaitik guztiz menderatuta geratu ziranean, K.a. 90n urtean erritarteen gizarteko guda ostetik, erromatarren uritargo edo erritargoa⁽¹⁾ artu bear izan eben.

Etruskoak ata guzti, eragipen aundia euki eben erromatarren artean, eta Erromak euki ebazan azkeneko iru erregeak Etruskoak izan ziran.

Etruskoaren jendekuntza, bere inguruan egon ziran Unbroak, Liguritarrak eta Sabinoen erri guztietatik bereizpendu⁽²⁾ zan, ta maitasun geiago emoten eutsoen apainkeri⁽³⁾ ta oporraldeari⁽⁴⁾, gudako zaletasunari baiño.

Etruskoak, erromatarren sortzailleak izanez batera, griegoen jendekuntzazko jakituriaren irakaskintzagaz euren irakasleak be izan ziran, eta erromatar gudalozte orren sorraldiko ekanduan zeozegaz uts edo oker egin ebelako, euren babeserako irasi eben gudazko seme onek menderatzaille biurtuta, euren erromatarren asi ta, danak iruntsi ebazan, Europa, Asia ta Afrikako gizarte guztien kaisertza ezarri edo irasi gurean.

1.2. Erromatarren sorkuntza, kartajinesaren aurkako borrokak, eta euskaldunak aldebiekaz euki eben artu emona.

1.3. Erromaren sorkuntza.

Italiako erdi ugartearen Lazioko lurraldeak 5.352 km laukiak ta 3.678.548 biztanle daukaz. Eta Erromak bere uri buru lez, 2.883.996 biztanle daukaz Tiber ibai bazterrean.

Etruskoak ibaiaren izena ipini eutsoen Erromari, euren izkuntzan Rumon esan gura dauana, eta ortik Erroma deitzera aldatu zala esaten dabe.

Beste kondaira be badago, Erromako izena Romulotik be badatorrela esaten dabelako, Romulo, Roma txikia esan gure daualako, eta abar.

K.a.8.000 urte inguru Italiako lurraldearen Iparraldean ligurak eta Ego aldean zikuluko leiñukoak euki ebazan biztanle lez, eta euskaldunak izan bear ziran oneik, lurralde orreitan gaur arte geratu diran euskal toki izenak, alan esaten dabelako.

K.a.2.000 urte ariñago keltiarrak Ekialdeko Asia Txikiaren aldetik Alemaniako lurraldeetan agertuta, gero Europa erditik jatsi edo beratu ziran Lazioko lurralde oneitara.

Leiñu bien ondorengoak bizi ziran or: osko unbroak eta latinoak, au da, etruskoak, bolsko, sabino, ekuos, rutulos eta ausonioak, argi ikustenda emen, danak ez ba ziran be, keltiar leiñu orreik euskaldunen artean kokatu zirala.

Gaurko jakintsuak, erromaren sorkuntza, palatinoko mendiak Iparraldean daukazan jermalo, palatiun, ta beliaren buruak deritson tokietan esaten dabe egin zala, sortu eben Lau kantoiko Erroma orretan aurkitu dabezalako beren leenengo aztarnak.

Edestiaren kondairarako, Romulo ta Remok K.a.753ko urtean Joarraillaren 21ean egin ebela esan arren.

Erroma, bere bizitzaren ibilkeran, munduak euki dauan kaisar menperatzailetasunezko uri nagusia izatera eldu zan, bere barruko izakeran Aita Santuaren bizi etxe; mundu guztira katolikotasuna zabaltzeko dirdai zilborra⁽⁵⁾; legegilletasunezko politikan eta ele eder ta antzezko arloetan ardatzezko sorburua; eta bai Grezia ta Ekialdeko jendekuntzaren ordezkoko izatea ondorengo, mendebal jendekuntzaren aolkularitzazko zilborra izatera biurtu zalako⁽⁶⁾.

(1) Erritargoa = ciudadanía. (2) Bereizpendu = disgregación, separación. (3) Apainkeri = perifollos, adornos superfluos. Apainkeriz = lujosamente, suntuosamente. (4) Oporraldeari = ocio, asueto, vacaciones, descanso. (5) Dirdaiezko zilbora = centro de irradiación. (6) Gero beste gauza baten biurtu zana, kondaira onetan agertuko dan lez.

K.a. 753tik 510era egin zan Erromatarren sorraldia, **etruskoak**: Palatino, Kapitolino, Eskilino, Biminal, Quirinal eta Abentinoko mendizkaten artean, Sabino ta Iszerezak al-kartu ondoren, Serbio´tar Tuliok inguru ori zarratzeko egin eutsozan ormakaz.

Abenduaren 11n ospatzen zan zazpi mendizka orreïn jaia, baiña azken baten kondaira guztiak Jorraillaren 21ean egokitzen ziran lez, berau geratu zan agintezko jai lez, artzaia-ren Pales, andre-goiko edo jainkosaren⁽¹⁾ omenez.

Eta gero, Tiber ibaiaren beste aldeko Janikulo, Batikano, Mario, Sakro, Pinzio, Kanpi-doglio mendizkartean egon ziran auzuneak alkartu jakozan.

K.a.715ean Ponpiliotar Numagaz asi zan, ta leenengo zazpi errege eukinda, K.a.510ko urtean, Tarkinotar Luzio azken errege eukala, amaitu zan leenengo aldi au.

Erromatarren merkantil eta diru kontuetan, bai-ta jakintasunezko aurrerakuntzan, zer ikusi aundia euki eben Etruskoaren erregetzak.

Oso eratsuak ziralako, Griegoen izkitegia artu eben eta eraberritzen ibili ziran latinezko iztegia lortu arte, gero, Mundu guztian ibiliko zana.

Iparraldeko Etruskoak eta Egoaldeko Grezitarrak, zer ikusi aundia euki eben latinezko jakituria-ren eraikintzan.

Iru izan ziran, euren bizi luzean euki ebezan jaurkintzazko erak:

Erregetasuna, Etruskoaren jaurkintzan bideratu ebena.

Errepublika, erromatarrek, etruskoak menperatu ebezanetik jaurkitu ebena.

Eta Kaisar menperatzaillearen jaurkintza lez bideratu ebena.

Zazpi errege euki ebezan Etrusko oneik, **Romulok 753-716ko urte bitartean** lenengo errege lez. Ortik aurrera, kaisertzazko jaurkintzaren guda politiko era ori antolatuta.

Bigarren errege, **Numa Ponpilio** izan zan, erromatarren erlijioa sortu ebana.

Iruugarrena, **Tulio Ostilio** izan zan, albanotarren agintaritza ezereztu ebana.

Laugarrena, **Anko Marzio**, uriaren erregetza zabaldu ebana ta erritarren legeak ezarri.

Bostgarrena, **Tarkino Prisko** Erroma edertu ta bere gaztelu edo kapitolioa eraiki ebana.

Seigarrena **Serbio Tulio** izan zan, danetatik, garrantzi aundiena euki ebana, menpera-tzailletasunezko politika edegi edo zabalduz gain, bere agintaritza Arnio eta Tiber ibai bitarteko lurraldetan zabaldu eban, eta lau eskualdetan bananduta euken lurralde onen erritasunetik jaioten ziran gizon guztiak, gudalozteko serbitzura beartuta geratzen ziran, bakoitzak, euki eban aberastasunezko neurriaren agintaritzagaz.

K.a.628an Griegoek Selinonte⁽²⁾, 604an Marsella eta 580an Agrijentoko uriak irasi ebezan.

1.4. Oar txiki bat emen.

Sekula ez da galdu bear, emen goian esaten dana: **gudalozteko gudarien agintaritza, bakotxak euki eben aberastasunagaitik neurtzen zala**. Orren esan naia, asieratik diruak euken eragipenaren menpe geratu zirala.

Gudalozteak, 100 gizoneko zenturietatik asi ziran antolatzen, eta sortu ebezan 193ko taldetik 98 aberatsarenak ziran, agintaritza euren kontrolpean eukiteko.

Eta zazpigarren erregea 534-510 urte bitartean, **Tarkinotar "arroputza"** deritsona izan zan, Saturnoren eliza edo jauretzea eta illuntasunezko jainkoarenak⁽³⁾ eraiki ebazan, eta erregetzatik bota egin bear izan zana norkerizko indarkeria, laztura, sarrasketak edo ta iltzeak erabili ebazalako ezeren neurri barik, Erroma bere eritzian jaurkitzeko.

(1) Jainkosa = diosa, dea, Diva. (2) Selinonte = Greziako Ipar-Mendebalaren Itsas-ertzean, antziñako uria. (3) Dioses menores.

Edestilariak, askeneko iru errege oneik artzen dabez, ziurrezkoak lez.

K.a.510-509an Luzio Juno Bruto eta Luzio Tarkinok Erromako gudalozteak bideratuta, errepublika sortu eben, erri-gurasoen eskuetan edo senatore-batzarrean itxita Erromako jaurkintza.

Tarkinok, Tarpeyako arkaitz'ean⁽¹⁾ egon ziran Sabinoren eleiz guztiak bota ebezan, oso azarratu ebazan erromatarrek bere aurka, eta orren asarrea gain gaineko maillara eldu zan, bere seme Sexto'ri, Lukrezia bortxatzeko baimena emon eutsonean, eta Luzio Junio Brutok senatore-batzarra batuta, jaurkintzazko agintaritzatik bota eben Tarkino ori K.a. 510ko urtean.

Pretorak ziran emendik aurrera urtero senatore batzarrean aukeratzen ziran lege gizon biak, gero Kontsulak deituko ziranak, eta pretor bi onein eskuetan ezarri ziranean, auzotasunezko erri edo leiñuekin amaibageko borrokatan sartu ziran.

494ko urtean, leen maillako erritarren leiñukoak⁽²⁾ ez ziranak, errixumeko maillan ipini ebezalako ezeren eskubide barik, borrokan emon eben errepublikako denbora guztia; merkantillezko lan guztia xumetasunezko erritar onein eskuetan egonda, diruaren antolakuntza be eurak erabilten eben.

Eta urte onetan erriguraso edo patrizioak⁽³⁾ izendatzen beartuta agertu ba ziran, leen maillako erromatar seme alabaren eskubideak babestuteko izan zan.

K.a.393an Lazio guztia egon zan erromatarren menpean, eta latinoak menperatuta sammitarren aurka joan ziran, ondoren Italiako lurralde guztiagaz jabetzeko.

K.a.390eko urtean galoak erasoan asita Erroma saskildu eben.

K.a.280-275 urte arteko inguruan, erromatar, laziotar, ta etruskoaren Po ibai inguruko luraldeetan ezarri ziran galoak, eta Italiaren Ego-aldeko uri ta samitaren aurka garaille urtenda, Italia guztia ipini eben euren agindupean.

Errepublikako leenengo denboretan, sendi aberatsen aundikiak edo gurasoek ziran Uriaren jaurkintzan agindu eikenak, senatoreen batzarretan aukeratuta. Eta jabebede ori, bizi guztirako izaten zan.

Baiña gero eta menperatzailetasunezko borroka orregaitik beartuta, senator batzarrean erromatarren menperatzailezko zabaltasun onek, aurkako leen aldi gogorrena, Kartagotarrek aurkitu eben, eta bereala asi ebezan gudapuniko zitalak, orduan ezagutzen zan mundu osoa odolez margoztu ebena.

Lur Arteko itsasoaren baztarretan⁽⁴⁾, ainbat jendekuntz edo erri egon ziran Kartagotarren errepublikatik asita, Mazedonia, Sirakusa eta seleuzidaren kaisertza lez.

K.a.265eko urtean, Italiako lurraldearen nagusiasuna lortu eben erromatarrek.

1.5. Igo guda Punikoak⁽⁵⁾.

K.a.264-241 urte artean erromatarrek eta kartajinesek, ia bietatik nor geratzen zan lurarteko itsasoaren inguruko erriaren kaisar lez, asi eben guda-punikoak, odoljarioz ipini eben orduan ezagutzen zan mundu guztia, eta guda onetan erromatarrek garaille bidean ezarrita, Siziliako ugarteagaz geratu ziran, ta gudaren amaieran Zerdeña ta Korzegarekin.

K.a.262ko urtean, kartajines gudalozteak, 50.000 gudari, 6.000 zaldun eta 60 elefanteakaz joan ziran erromatarren aurka, baiña erromatarrek garaille urten eben Siziliako ugartean, Agrijentoko zelaietan egin zan borrokan.

(1) Tarpeyako arkaitz'ean = Tarpeyoren ipuiezko alaba, Romulo ta Remoren denboran Kapitolioko gudariaren agintaria zana, Sabinoagaitik erosi edo koipatuta egon zanak, Kapitolioa emon eutsoen, gero arkaitz batetik bota ebena, eta orduti esaten jako arkaitz orreri "roca de Tarpeya". Bertatik botaten ebazan eriotzera zigortuta egoten ziranak. (2) Leenengo erritarren = primera gens o gentes de Roma. (3) Erri-gurasoak = patricios. (4) Lur-arteko itsasoaren baztarretan = orillas del Mar Mediterraneo. (5) Punikoaren itza, Fenizio esangura dau = guda punikoak edo feniziatarrak, edo ta kaisertza puniko edo kartaji-nesa, bardiñ esangura dauena da. Erromatar kaisertzaren aurka.

K.a.260ko urtean eta Siziliako ugartearen Sejesta ta Makelako urietan gainditu ziran erromatarrak, baiña Termaerantza joan ziranean Anibalen aita Amilkar Barkak⁽¹⁾, Milaseko borrokan menperatu ebazan.

K.a.241eko urtearen Epailleko 10rrerarte, amaibako borrokak euki ebezan kartajinesek, erromatarrak Egadako⁽²⁾ ugartearen Aegusako⁽³⁾ itsas borrokan garaille urten arte.

Eta K.a.223ko urtean kartajinesek etenbageko borrokaren ostetik, erromatar Kayo Lutazio Kattulorengana joan bear izan eben egiune edo elkargoko bake billa, Siziliako ugarte bertan itzita.

Milaseko itsas borroka onetan baiña, erromatarrek irabazi ba eben, Kaio Duilio erromatarrak bere itsasontzietan, Korbus deritzon gora ta bera egiten eban zubi antzeko tresneri barri bat eroaten ebalako sortu zan, beragaz arrapatutako kartajines itsas ontziakaz zubi bat eginda, gudariak aldatzen ziralako ontzi batetik bestera.

Eta kartajinezak ararte itsasoko gudatan nagusiak izan ba ziran be, erromatarrek aurrealdia joan ziran artzen, eta erromatarren aurrerakuntza au izan zan kartajinesaren beraldia marratu ebana.

K.a.247-241 urte bitartean Amilkar Barkak, Siziliaren ugarte borrokatu eban erromatarren aurka.

K.a.247ko urtean, Asdrubalen aitagarreba zan Amilkar-Barkaren seme, Anibal Barka jaio zan.

K.a.245eko urtean Asdrubal Barka jaio zan, Anibal'en anaia izan zana.

K.a.241-238 urte bitartean Amilkar Barkek, erdi ugarte onen egoalde eta mendebalean egon ziran sarigudariak menperatu ebazan.

K.a.241-240ko urtetan, Sikka Beneriako urian asi ziran erromaren barruko arazoak, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, errigurasoen sendiakaz alkartu ziranean, beste erriarrak jaurkintzatik bastartzeko.

Jaurkintza guztia euren eskuetan eukinda, andi mandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin besterarte, euren arbasoen goi-maillako oiturak eta orekazko ekanduak, neurri aundi baten galduta. Orren ondorioa: Berezko baseritarren zuntsitzea edo ezeztatzea izan zan, eta lur zabalen etxagunak agertu jakiezan, menpetasunezko joputasunean.

K.a.238ko urtean erromatarrek, Zerdeña eta Korzegagaz jabetu ziran.

Emendik aurrera erromatarrek Lur Arteko itsasoari, Mare Nostrum esanda.

K.a.237ko urtetik onantza kartajinesek, Afrikaren Iparraldeko lurralde guztia, erdi ugarte onen egolurraldeko erdia, Baleares, Zerdeña, Korzega ta Siziliaren ugarteko mendebalaren jabetza euki eben, ta orreri ezker erromatarren dirusarrerak aundiak izan arren, kartajinesarenak amaigabekoak izan ziran.

Kartajinesek eskuarte orreik eukinda, itsasoan ez eben euki aurkakorik, erromatarrek ez ebelako euki erasorako itsas ontzirik, kartajinesak izanda lurarteko itsasoaren nagusienak gudako gauzatan.

K.a.237-228 urte bitartean Amilkar Barkak, ego alde ta egomendebalean egon ziran euskaldunak menperatzen joanda, Ibero edo ta euskaldun oneik inguratu ebazan *Akra Leuké'n*⁽⁴⁾, eta Amilkarrek bere seme Anibal eta Asdrubal askatzeko, euskaldunak beste leku batera eroateko alegiñean, bera be il zan Binalopo'ko ibaian itota.

Berari egokitzen dautsoe Barzino uriaren sormena (Barzelona).

K.a.229ko urtean, Anibal eta Asdrubalen aita Amilkar Barka⁽⁵⁾ il zanetik, bere suin Asdrubalek artu eben gudaloztearen jabetza, eta erdi ugarte onetan sartu zanean, Ebro ibaiaren ingurua menperatu ondoren, Kartajenako uria irasi eban.

K.a.229-222 urte artean erromatarrak, Korzegatik Iliria⁽⁶⁾, Galia Zizalpina eta Iberia edo euskaldunak bizi ziran erdi ugarteko lurretara zabaldu ziran.

(1) Amilkar Barka = 270 ?-228 a.C. (2) Egadas = Siziliaren Mendebaleko itsas-bazterren aurrean dagozan ugarteak dira. (3) Aegusa, Malta, Sizilia eta Tunez bitartean dagoen ugarte eta gaur Linosa'ren izenagaz ezagutzen doguna da. (4) Akra-Leuke = Alicante. (5) Amilkar Barka = 270-228. (6) Iliria = Gaur Yugoslabia ta eta Albaniako zati bat dana, Adriatikoaren ekialdeko itsasoaren bazterrean dagoena.

K.a.221ko urtean, Asdrubal il eben, eta Anibal Barkak artu eban erdi ugarte onen agintari punikoa, Saguntoko uria menperatuta.

K.a.220ko urtean Anibal'ek bere zaldun guda taldeagaz eta bere elefanteakaz, karpetar, bakkoak eta olkadetarren 100.000 gizonen gudaloztea menperatu eban Tajo ibai inguruan, eta euren uriak ezereztuta, zerga gogorrek ipini eutsoezan.

K.a.219ko urte onetan Anibal kartajinesek, Sagunto menperatu eban 8 illabetetan inguratuta eukin ondoren. Gero erromatarrek ostera kenduta, Anibalek berriz erasotu bear izan eban Saguntoko uria, bigarren guda punikoari asiera emonda.

1.6. IIn guda-punikoak.

Erdi ugarte guzti onen biztanleak euskaldunak zirala, argi izten dau erromatar Silio Italiko'k bere bigarren guda punikoaren bertsoetan: *“Tirintoko⁽¹⁾ gizandiaren antziñako kanpaldi edo etzauntzako zeretanorik, edo buruko babesagaz oituratuta ez ziran egon euskaldunak atzeratu ziran guda tresneriak artzen”*.

“Eta Katonek bere gazte denborak aiztuta ta bere burua gudako indarragaz bete ta borrokan sartuta etsaien aurka egiteko, euskal bizkor ta kantaurikotar⁽²⁾ gudariengandik, arrizkuan egon zan gaztea iltzaillezko erasoaren izkilluetatik kentzeko” eta abar.

Eta euskaldunak Anibalen gudalozteetan lerrotu giñela be bai, Asdrubal Barka⁽³⁾ Anibalen anaiak, iparraldeko Euskalerra guztitik lerrotu ebazalako euskaldunak, erromatarren aurka egiteko.

Euskaldunak, erromatarregandik euki gendun ezauntza au izan zan erruduna, eurak agertu ziran euskal lurretatik, gure izatasunezko euskal nortasuna ezereztuteko larritasunean ipini barik, ekarri ebazan gudalozteetan lerrotu gindezan, obe izan zalako eurakaz lagun izan.

Eta adizkidetasun onegaitik erromatarrek sari-lez, eurakaz alkartuta egon giñan euskaldunai itzuli euskuezan, beste euskal etsai batzuk keltiarrakaz batera, baituta euki ebazan uriak, euskal uri ta lurak beti, euskaldunen eskuetan geratuta.

K.a.218an, bigarren guda-punikoa asten dau Anibal'ek⁽⁴⁾, eta 70.000 afrikar ta euskaldunekin, Frantziaren ego aldeko Galia Narbonenzetik Alpes'ak aldatu ta Turin artuta, Eszipion, *Afrika'tar Eszipioi'en⁽⁵⁾ aitak* geratu ebazan Tizinon, baiña Anibalek Trebia ibaira aldatuta eta eurai aurre eginda, 40.000 erromatar gudaloztearen gizonetik 10.000 bakarrik itzi ebazan bizirik.

K.a.218ko urte onetan eta Anibal Italiarantza joan zanean, Asdrubal *buru solillak⁽⁶⁾* artu eban erdi ugarte onen agintaritzta, eta sei urtetan borrokatu bear izan eben Kneo ta Publio Kornelio Eszipioi erromatar anaiaren aurka kartagon⁽⁷⁾ sartu ziranetik, erromatarrek Ebro ibaiaren inguruagaz ardurutzen asita, K.a.202-170 urte bitartean menperatzea lortuko ebena.

Eta or asi gintzazan Euskaldunak, erromatarrek ezagutzen, Anibalen gudalozteetan lerrokatuta.

K.a.217ko urtean, Anibalek, erromatarrek menperatu ebazan Trasimenoko zingira edo ur-geldiko inguruan, eta Erromatik urbil egon arren, ez zan bera menperatzera joan.

Onen garaipenaren osteko iru urtetan Kapua, Siziliako Sirakusa ta Tarentoko uriak alkartu jakozan, Mazedoniako Vn Filipo erregeagaz batera.

(1) Tirinto = antigua ciudad de Grecia en la Argòlida, en la que reinò Anfitrìon padre de Hercules. (2) Kontuan euki bear da, orduko kantauritarrak euskaldunak zirala eta Bizkaiagaz bat egiten ebela. (3) Asdrubal = Amilkar Barkaren semea eta Anibalen anaia = K.a.245- eta Metauro'ko borrokan 207an il ebena. (4) Anibal Barka = K.a.247-183. (5) Eszipion'tar Publio Kornelio Afrikarra = 236-184/183 ?. (6) Asdrubal, Amilkar Barkaren suñe eta agintaritzan beren ondorengoa izango zana = K.a. ? = 221an il eben. (7) Kartagoen antziñako uria = K.a.825-820'ko urte bitartean irasi zan, kondairak, Dido erregearen alabagaitik K.a.814'an irasi zala esan arren. Gero K.a.218ko urtean erromatar Publio Kornelio Eszipioi anaiak euren gudaloztearen kanpaldia berta ipinita *Tarrako'en* izena ipini eutsoen, gero Zezarrek kolonia edo erri-uri eta Biktrix maillan kokatuta, Ispania-Ziterior eta gero Tarrakonense'ko uri nagusiko maillara igonda izendatu eban.

K.a.217ko urtean Asdrubalek erdi ugarte onen agintaritza artuta, erromatarren aurkako borroketan asi zan Ebro ibaiaren inguruan, baiña Kneo Eszipioien gudalozteak agertuta, Asdrubal urrundu egin zan Ebro ibaiaren inguruetatik.

K.a.216ko urtean Anibal, Italiarantza bideratuta, Alpeseke mendikateak aldatu ebazan eta Po´ren lurraldeetan euskaldun eta keltiar galotarren laguntza artu ondoren, Tizino eta Trebiaren ibai inguruetan erromatarrak menderatu ebazan, 216ko urte onetan Kannas´eko borrokan be garaille urten da. Erromatarren gudaloztea 86.000 gizon ta 6.000 zalduneko izanda, eta kartajinesarenak baiño 36.000 gizon geiago euki arren, 16.000 gizon bakarrik al izan eben iges egitea erromatarren gudalozteetik.

K.a.216ko urte onetan Asdrubalek Gades edo Kadizen inguruan, Turdetano euskaldunak azpiratzen emon eban bere denbora.

K.a.215eko urtean, Mazedoniaren aurkako leen borroka asi zan.

K.a.215eko urtearen udabarrian, Asdrubal Anibalen anaiak, agindu egiten eban gudaloztea, 4.000 gudari eta 500 zaldunekoak indartuta, Imilkon kartajines gudal nagusia itzi eban Kartajenako uriaren zain, ta bera Ebro ibaitik joanda erromatarren atzean, Dertosako lurraldean aurkitu ziran, eta egin eben borrokan erromatarrak garaipendu ziran lez, Anibalek itxaroten eban gudaloztearen aldaketazko indar barik geratu zan.

K.a.215eko urtearen udagoian Asdrubal ***Buru Soillak*** artu eban gudalozte onen agintaritza, eta Zerdeñako Kornus´en lurreratuta, erromatarrak menperatu ebazan, iges asi ziranak be baituta.

K.a.214ko urtean erromatarrak, Kapuan eta Sirakuzan garaille urten ondoren, Sagunton sartzen dira ostera.

K.a.213-212ko urtetan, erdi-ugarte onen leiñuak bakez egon ziralata, Asdrubal bere gudalozteak Afrikara aldatu zan, Sifax⁽¹⁾ Numidiako errege batek, kartajinesaren lurraldeak erasotu egin ebazalako, ta Asdrubalek beste Numidiako Masinisa⁽²⁾ deituten zan errege bategaz alkartu ondoren ta 30.000 gudari ilda gero, Sifax erregea Mauritaniara alde egin eban, Asdrubalek erdi ugarte onetara ostera itzulita Numidiako 3.000 zaldun geiagorekin.

K.a.212ko urte onetan Magon Barka⁽³⁾ eta Asdrubal Jiskonen⁽⁴⁾ gudalozteak erdi ugarte onetara elduta Barzinoko sendi aberatsaren aurka egiteko, Betis ibaiaren goialdeko lurraldeetan erromatarrak menperatu ebazan, Eszipioi anaiak bertan ilda.

K.a.212ko urtean Sirakusatarrak euren errege IIn Ieron⁽⁵⁾ il ostetik, kartajinesarekin alkartu ziran, eta Marko ta Klaudiotar Marzelok, bertora joanda menperatu ebazanean, Arkimedes, munduan egon dan fisiku ta matematikurik ospatsuena il eben bertan.

K.a.211kako urtean Anibal kartajinesa, Erromako ateetaraiño sartuta, Afrikako Eszipioi´ek euzkezan erromatar gudalozteak aurka urten eutson eta menperatu ebazan Anibalek eroan ebazan gudalozteak. Erromatarrak ortik aurrera, euren birjabetzan edo indarrak barrizten asita.

K.a.211ko udabarri onetan be Kartajinesak, euren itsas ontziakaz lagundu gure izan eutsoen janari eta bear ebenagaz Sirakusakoari, baiña erromatarren itsas ontziak urreratu ziran, eta Sirakusa baita Siziliako ugarteak or geratu ziran erromatarren naierara.

K.a.210eko urtean Eszipion erromatar anaiak Publio ta Kneok, garaipen txiki ta ugariak lortu ebezan kartajinesaren aurka, baiña Anibalen anaia Asdrubal Barkak banaka arrapatuta menderatu ebazan, eta Publio ta Kneo anaiak il.

Erromatarrek ondo baiño obeto ulertu eben, kartajinesari irabazteko Iberia edo euskaldunen lurretatik atara bear izan ebezala, eta bertara bialdu eban, orduan 25 urte euki eban Publio Kornelio Ezipion, gero Afrikako Ezipioi izango zana.

(1) Sifaze edo Sifax, Numidiako masesilios´en erregea K.a. ?-203 Erroman atxilotuta egonda il zana. (2) Masinisa = Numidiako erregea eta kartajinesakaz alkartuta egoana eta gero erromatarrekin = K.a.238-149. (3) Magon Barka Anibalen anai-txikerra = K.a.?-203. (4) Magon Jiskon = K.a.?-201. (5) Hieron = K.a. 308-215. Sirakusako errege 219an, erromatarrak menperatuta, euzkaz errege lez bizi zana. Teokrito erromatarrak esaten eban, bere jaurkintza Sirakusaren urrezko aldi-lez artzen ebala.

K.a.209ko urtean Publio Kornelio Eszipioi leiñuko barri onek⁽¹⁾, gaur Kartajena dan Kartago Barrian sartuta, Baekulako borrokan Asdrubal menperatzen dau, eta onek bere anai Anibalen atzetik Italiarantza joanda beragaz alkartzeko, Unbrian Neronek bidera urten eutson eta guztiz menderatuta geratu zan.

K.a.207ko urtean Asdrubal bere anai Anibalegaz alkartu gurean eta Metauro ibaiaren ingurura elduta, erromatarrak agertu jakozan, eta borroka orretan Asdrubal bera il'ez gain, guztiz menderatuta geratu ziran kartajinesak.

Erromatarrak, Anibalen kanpaldietaraño elduta, bere anaiaren burua bota eutsoen kanpaldi barrura eta bere aurka, kontsul erromatar Neron'ek euki ebezan garaipenak kontuan artuta, Anibalek Lukaniako kanpaldia altzau eta Italiako egomendebaleratza joanda Bruzion ezarri eban ostera bere gudaloztearen kanpaldia.

K.a.206ko urtean, Afrikako Ezzipioi onek ez zan kartajinesak baiño gitxiago eta ugarte erdi onen egoaldeko euskaldunak lerrokatuta, eurokaz bota ebezan kartajinesak erdi ugarte onetatik Ilipa'ko borrokaren ostean.

Emen ikusten doguz bigarren aldiz, euskaldunak eta keltiarrak, erromatarren gudalozteetan lerrokatuta. K.a.262ko leen guda-punikoetan, eta bigarren guda oneitan.

K.a.205eko urtean Magon, Anibalen anai txikerrena izan zanak, bere iges aldi oraindiño kartajinesaren kontrolpean egon ziran Balearseko ugarteetara joan zan, bere anai Anibal'eri laguntzeko, baiña erromatarrak Balearseko ugarteetan sartuta egonda, Magonek Italiarantza joan bear izan eban, bere Iparraldean lurreratzeko.

K.a.205eko urte onetan, Ezipion Afrikarra erromatarren kontsula egin eben, eta Kartago erasotzera joan zan.

K.a.204ko urtean, Ezipioi Afrikarra ezeren eragozpen barik Afrikan lurreratu ondoren, Masinissa Numidiaren ekialdeko Sifax erregeagaz aurkitu zan, Afrika aldean lurrarteko itsasoaren izparterean errege eta kartajinesaren aldekoa zana, baita bere etsai sutsua, erromatarrak bere aulkitik bota ebalako, eta Ezzipioi orrek, Utikako uria inguratu arren Sifax'ek ekarri ebazan Numidak eta Asdrubal Jiskon'en gudalozteak ikusita, alboratu zan.

K.a.203ko urtean, Magon'ek Italiaren Iparraldean aurka eginda erromatarrei, borroka galdu eban eta andik ille batzuetara il zan, artu ebazan zauri ondore.

K.a.203ko urtearen udabarrian Ezipioi afrikar onek, eraso eutsoen Numidiako Sifax errege ta kartajinesaren gudalozteari, eta garaille urtenda Utikako uria inguratu eban.

Eta Numidiako Sifax'en guda indarrak, ta kartajinesak erdi ugarte onetatik eroan ebezan euskaldunakaz, Ezipioi erromatar gudalozteari Zelai Aundietan aurre eginda eta galtzaille urten ondoren, Sifax Numidiako erregetzatik bota eben erromatarrak eta Masinissa ostera beren lekuan ipini, menperatutako kartajinesak bakezko eginkizunera beartuta erromatar garaillearen baldintzak bete egiezan, Anibal Italian egon zan lekutik Kartagora joan zedin deituta.

K.a.202ko urtean Anibal Afrikako Kartagora joanda, eta bera ta Magon bere anai txikerrak euki zituzen gudalozteak alkartuta, Ezipioi afrikatarrak eroan ebazan gudarietakaz neurtu zituzen indar orreik Zamako zelaietan, eta Ezipioi Afrikarrak garaille urten ondoren, Anibalek, diru zerga aundi⁽²⁾, Itsasoko gudal ontziak, Ezipion berak aukeratzen ebezan baitutako 100 gizon emakume, eta Europa ta erdi ugarte onetan euki zituzen lurraldeak emon bear eutsezan erromatarrei, bigarrengo borroka punikoak amaituta.

K.a.201eko urtean erromatarrek gudaren amaiera ospatzen asi ziran, baiña 400 erri eze-reztu ondoren eta 500.000 gudari ilda gero.

Ezipion'ek Erromara joan orduko, gaur Sebilla dauan lekutik 9 km. ingurura, Italika'ko uria irasi eben, erromatar aundikien uri biurtuta. Bertan jaio ziran geroago Trajano eta Adriano erromatar kaizar aundiak.

(1) Leiñu bateko ainbat Publio Kornelio Ezzipioi izan ziran oneik. (1) 260.000 kilo zidar edo 10.000 zidarrezko talento.

Denbora onetatik aurrera asi ziran etorten erdi ugarte onetara, erromatar gudaloztetan 16 urte egin ondoren zar sarian sartzen ziran euskal gudari asko, eta ekarten ebazan erromatar oitura eta legeakaz euskal errigizarte orreitan ezarrira, ipar eta egoaldeko euskalnortasunezko oiturak ezeztuteko bidean ipini ebazan lez, or asi giñan euskal lurralde aundiak galtzen latiñezko euskalkiak ugaritzen eta indarra artzen asi ziralako.

Geroago, Auñamendiaren iparralde ta egoaldeko euskaldunak kendu egin genduzenak, gure oiturazko lege zarraren ardurapean jaurkitzeko, eta erromatar menperatzaillaren legepetik urrun egoteko. Erromatarrak ipini eutsoen *Ispaniako* izena erdi ugarte oneri, baiña erromatarrak artu eben bertoko *Spal edo Ispal* itz ori, gero Ispalis latinkumetuteko, ez ote zan euskal itzatic artutakoa ?.

Euskeran *iz* berbea *s* lez esanda: *ura edo ur lasterra esangura dau*, eta *pal* edo *apal* itza, *zelaia edo beko alde da*, euskaldun ta gaztelatarren izkuntzan bezela.

Emen kontu aundian artuta, *gaztelerea, euskerea ta latiñ bitartetik sortua dala, eta orregaitik "euskal latin kumea"*.

Argi da, euskal jatorrizko berbatik artuta dagoela Ispalis'eko itz ori, gero *Ispania* 'ko itzan biurtzeko, euskera ta latiñezko nastetik edo erromatarren menperatasunezko alegiñetik sorturikoak diralako. Eta argiago izten dau, kartajinezak eta erromatarrak etorri orduko, *erdi ugarte onetan ez ziralala egon besterik "euskaldunak baiño"*.

Bien bitartean Anibal ostera bere Kartagoko gudalozteak antolatzen asi zan.

Mazedonioaren aurkako bigarren gudaldiak.

K.a.197ko urte onetan erromatarrak, erdi ugarte onetan bizi ziran euskaldun eta keltiarren leiñu guztiak asi jakiezan aurka.

Eta Greziaren lurraldeetan, Alejandro *andiaren* ondorengo erregearen aurka be borrokatu eben erromatarrek:

K.a.197ko urtean, Vn Filiporen aurka, Mazedoniako borrokatan.

K.a.196ko urtean, Mazedoniako gudaren amaieran Greziaren askatasuna. Anibalek, Asiara iges egin bear izanda.

K.a. 196 'ko urte onetan sartu ziran erromatarrak gure Euskalerrri onetan, eta keltiarrak gure artean egonda, erromatarren etsai aundiak ziran lez, or agertu giñan euskaldunak bieri laguntzen gure arteko borrokan, kontuan eukinda guk gure artean anaiak izan giñela, eta ez gendula besterik gura, gure Euskalerrriaren askatasuna baiño.

Ez zan egon miraririk ikustegi edo antzoki orretan, euskaldunak ondo baiño obeto ezagutzen genduzelako erromatarrak, eurak ezagutu baiño len Anibaleri laguntzen ibili giñelako euren aurka, ta aukera orreitan agertuta jakin gendulako eurokaz obe zala, euren aurka agertu baiño, zalantzazko eztaibada orregaitik borrokatuta gure artean.

Guzti ori gertatu zan: keltiarrak aurrerakuntza aundiakin, erromatarrak baiño ariñago etorriaz gure artera, eta euskal bizitzara ekarri eben aurrerakuntza aundi orregaz, ekintzazko arlo aundiak asko erreztuta, ortik agertu jakuzan zalantzazko aukera orreik, bata ezin gendulako arbuiatu⁽¹⁾ ainbeste aurrerakuntza gure artera ekarrira, eta bestea menperatzaill lez, ezin gendulako gure lepo gaiñetik kendu.

K.a.195eko urtean Porzio ta Katon 'tar Marko⁽²⁾ erromatarra etorri zan erdi ugarte onetara, euskaldun eta keltiarren matxintasunak geratzeko, eta bakeztu ondoren, egoaldeko *Sierra Morena* 'ra joan ziran euskalturdetanoak euki zituzen meaztegiekaz jabetzeko.

Berton, euskaldun ta keltiar gudalozteak euki ebazan itxaroten, baiña erromatar oneik keltiarrakaz elkargo antzeko bat eginda, auek atzeratu ziran eta *Iliturgiko*⁽³⁾ menditxoan

(1) *Arbuiatu* = *despreziar*. (2) *Marko Porzio'tar Katon zarra* = 234-149. (3) *Iliturgiko menditxoa Jaeneko lurraldean = gaur Mengibarreko lurraldean "Màqui'eko mendizka deituten eutsoenari eta euskal itza dana.*

menperatu ebazan, an egon ziran Turdetano euskaldunak. Eta emendik aurrera esaten dabe Euskalerria erromatortuten asi zala.

K.a.194ko urtean Tito Libio´ren⁽¹⁾ idatzizko lanetan, Katon zarrak maltzurrezko joko bat bidez Jaka artu ebala esaten dau. Eta goian aipatu dogun lez, au izan zan eurakaz alkartuta egon giñan euskaldunai itzuli euskun urienetariko bat.

K.a.189ko urtean erromatarrek, Siriako IIIIn Antioko aundiagaz⁽²⁾ egin eben borroken amaiera.

K.a.188ko urtean Publio Kornelio Eszipioi pretorek garaipena lortu eban, euskal keltiarren aurka Kalaorra ondoan. Erromatarrek, uri au be itzulita eurakaz alkar izan giñan euskaldunai.

K.a.183ko urtean, Turkiako lurraldeetan eta Bursa´ren inguruko Bitinian, Anibal ta Eszipioi zarena il ziran. **Anibalek, artutako pozoiekin.**

K.a.184ko urtean Terenzio Barron kotsulek, suesetanoaren uri nagusi Sejia erraustu eban, gero K.a.89ko urtetik onantza, Ejea de los Caballeros deituko zana, eta borroka orren ostean, erromatarrek euren aldeko euskaldunai emon eutsoena.

K.a.181eko urtean, Tiberio Senpronio Grakori emon eutsoen erdi ugarte onen ziterior⁽³⁾ aldia bakeztuteko, eta arazo aundiak euki ebazan lez euskal keltiarrekin edo euskaldun ta keltiarrakaz, bera joaten zanean ostera itzultzen ziralako euren oiturazko jaurkintzara, gogor jokatu bear izan eben.

Betika lurraldeko Munda erria, gaur Ronda´ko uri inguruan kokatuta egon zana erasotu eban, eta menderatuta gero gudari talde bat bertan itzita, euskal keltiarren gaztelu batzuk menperatu ondoren, ango lurraldeak erraustu ebazan, eta guda tresneriakaz ondo ornituta egon zan Zertima⁽⁴⁾ urira joan zanean, auek ikusita Mundako uriagaz zer egin eban, ezeren borroka barik etsaimendu ziran, bera aurrera eginda euskal keltiar guztiak menperatu arte.

K.a.178ko urtean Erromara itzuli zan, egin eban menperatasunezko lan orrengaitik, e-romatarrek saritu egian.

K.a.178ko urtea esan leike asten dala Euskalerrriaren benetako erromatartasuna, Tiberio Senpronio Grako k⁽⁵⁾, Grakkuris, gaur Alfaroko uria dana, len Ilurzis zan uriaren gaiñean irasi ebanean.

K.a.172ko urtean, Mazedoniaren aurkako irugarren guda taldeak asten dira.

K.a.168ko urtean, erromatarrek, Pidnako lurraldean Perseo Mazedoniotarraren aurkako borrokan irabazi eben, eta or amaitzen dira Mazedoniaren aurkako gudak.

1.7. IIIIn guda punikoak.

K.a.149ko urtean erromatarrek, kartajinesaren aurkako guda asten dabe.

K.a.148ko urtean erromatarrek, Mazedoniaren aurkako laugarren guda asten dabe.

K.a.147ko urtean Publio Kornelio Eszipion Emiliano erromatarrek, Afrikara joanda, guztiz inguratu eban Kartagoko uria, janari ezearen sabel zorrian sartuta Kartagotarrak.

K.a.146ko urtean erromatarrek Kartagoko Urian sartuta, sei eguneko borroka gogor baten ostean Kartago ezereztu eben, eta or amaitu ziran Kartajinesak⁽⁶⁾ euki ebezan indar guztiak, lurrarteko kaisartza lez, Afrikako iparraldea erromatarren lurralde lez geratuta.

(1) *Tito Libio = K.a.59-K.o.17.* (2) *Siria´ko IIIIn Antioko Aundia = 242-187.* (3) *Ziterior = emengo aldetik kokatuta dagoena, eta andikaldekoagaz berdinka-tuz, aontz-aldea esaten jakona. Erromatarrek, Tarrakonense aldiari esaten eutsien espaina Citerior.* (4) *Zertima, len Arze aberats aundiko erria izan zana Betikako lurraldeetan kokatuta dagoena = Certima.* (5) *Tiberio Senpronio Longo Grako = Numanzia be berak menperatu eban, eta beragaitik idatzi be egin eban.* (6) *Kartajinesaren erlijioa = Baal Ammon´en oiturakoak ziran, eta eukiten eben lenengo semea eskaintzen eutsoen Mol´eri, bere irudipean egon zan sutara umeak botata.*

K.a.146ko urtean Erromatarrek inguru ori menperatuta euki ebelako, Mazedonia, Akaya ta Epiro, erromatarren lurralde biurtu ziran.

K.a.133ko urtean Pergamoko III In Atalok⁽¹⁾, bere erregetza erromatarrei emon eutson, orren lurralde bat, Asiako erromatarren probintzi, errialde edo eskualde lez geratuta.

K.a.133ko urtean Eszipion Emiliano erromatarrek, erdi ugarte onetan Numanzia menperatzen dau, eta Asia txikerreko Grezian, Pergamoko erregetza menperatu ondoren, erromatar lurralde lez geratu ziran.

Ortigaitik aurrera Euskaldunak erromatarrekin bat eginda geratu gintzazan. Euskaldunak ondo baiño obeto ikasi gendulako erromatarren indarra aundia izan zala eta zer egiten eben Akitania ta Auñamenditik sartu ziranetik.

Orregaitik, burua guztiz makurtu barik on artu ginduezan, euren gudalozteetan be lerrokatuta eta lurra lantzeko ekarri eben aurrerakuntza guztitik bear genduna on artu eta erabilten ikasi.

Euskaldunak, ainbat erromatar gudalozteetan borrokatu ziran eta euren gizabide edo jarduera⁽²⁾ erakutsita, Augusto, Galba kaizarrek eta abar, euren buruak zaintzeko inguruan euki ebezan gudara taldeak, askotan guztiz Euskaldunak izan ziran.

Baiña, Auñamendiren Ego ta Ipar-aldeko Euskal-izkuntzarentzat ordain aundiak izan ziran: *Ebro ibaiaren ur bazterreko ibarretatik eta Aragoiko Iparraldetik Napar Aragoiko latinkondo, Burgoseko Ipar Ekialdetik gaztelera, Asturiasen Bable eta Akitanian be, eurekaz aitu edo ulermen-tzeko, erderazko⁽³⁾ izkuntz baragarriak sortu ziranean.*

Euskaldunak ondo baituta egon giñelako arbasoak lortu zituzen gizarteko legeakaz, eta euskal demokrazizko askatasunarentzat garrantzi aundiko ondoriorik euki ez arren, erromatarren berakadan euskal lege guzti orreik oster a be, berrezkuratu genduzan.

Euskerearen askatasunezko demokraziaren ikurrari, kalte aundiak egin eutsezan zabaltasun orreik, gero ta murriztuagoko lurretan geratzen ziralako demokraziaren gizarteko eginkizunak, kaiser-tzazko eragipenaren lurak zabaltzen ziran neurrian.

Bestela, erromatarrek gure lurretan ia 700 urte egon; latiña, jakituriaren ibilgaillua lez ipini; gure askatasunezko oiturak euren menperatzailetasunezko oituretara aldatu gurean ibili; gure jaurkintza euren eratan ezarri; erregizartea arrotzezko arau politikoetan sartu; euren erlijioa sartu gurean ibili; gauzak egiteko era barriak ezarri; gizarte edo sozial arauetan nortasunezko zentzuak, norkeri barriakin aldatu edo naastu egiten ziranean, bertokoak kanpotarrekin ondo konponduten ziral a ikusita, ori ote izango zan *erromatartutea* ?.

Eurak, ez ziran gai izan iñungo erritarrai ezer eskolatu edo irakasteko, orregaitik, berezko erritarren gogozko sentipenetan ez eben euki ezereen zaurizko-oiñazerik⁽⁴⁾ eta euren ezereztuteagaz, Euskaldunak errez berrezkuratu ebezan askatasunezko oitura zaarrak, nai eta gero ta lur txikerra-goetan geratu.

Norkeria ez da izan gai, Jainkoaren Legean nortasundutako oiturak ezereztuteko, ez eta gitxiago zentzunezko emaitzarik agertu, gaur sortzen dan lez.

K.a.114ko urtean erromatar Kayo´tar Mario⁽⁵⁾ gudal nagusiek, bere babeserako euki ebazan gudaraiak euskal barduloak izan ziral a esaten dau.

Tiberio Grako gudal agintaria⁽⁶⁾ aukeratu eben kaizar lez, eta Erroma mundu onen jendekuntzazko zilbor lez geratu zan.

K.a.106ko urtean Erromak, izen aundia artu eban gudalozte antolamenduan ta indarrean, Kayo-tar Mariorekin.

K.a.100garrengo urtean Mario Saturnino il eben eta Julio Zesar⁽⁷⁾ jaio zan.

(1) III In Atalo onek, bere osaba II In Atalo il eben K.a.138garen urtean = bera K.a.172-133 urte bitartean bizi zan. (2) Berbadunek izateagaitik batez-be. (3) Erderazko = Latijn kumeak = lenguas extrañas. (4) Zaurizko-oiñazerik = traumatismo (5) Kayo Mario = 156-86. (6) Tiberio Grako guda agintari = K.a.163-33, tribuno. (7) Zesar´tar Julio = K.a.100-44.

K.a. I'go gizaldikoa izan zan Ponponio Mela⁽⁴⁾, Turdetania, Tarteso edo ta Betika 'ko lurraldetan jaio zan eta bere idazkietan "**Turduli**"tarren izenagaz asten dautso beren jaiotako lurraldeari.

K.a.91-89 urte artean, Italian sortu zan gizarteko gudatik ezagutzen dira euskal erromatar arremman zendoak, Italiaren Askoli 'ko tupiki edo brontzearen bitartez, Kneo Ponpeio Estrabonek, Kneo Ponpeio Magno Iruñako uria irasi eben aitak, Sejiako⁽¹⁾ 9 euskal zalduneko gudariak "**erromatar Birtutis Kausaren erritargo**"ko domiña ezarri eutsonean.

K.a.87ko urtetik onanatzza be ezagutzen dan **Kontrebiako** tupiki edo brontzea, Ispania Ziteriorreko kontsul ordeak ondorengo auzitaldi baten, Alagon'eko⁽²⁾ euskal uriaren alde erabagi eban.

K.a.81eko urtean azten dira Sertorio'ren gudak, erromatarren anai arteko gudak baiño besterik ez ziranak, eta euskaldunak aldebetan lerrokatuta egoteagaitik euren artean be borrokatuta. Begitu zelako indarra euki bear izan eban erromatar kaisertzazko arrano aundi orrek, euskal anaiak euren artean borrokatzeko.

Borroka oneik alde batetik, Sila⁽³⁾ nagusitxarra, Ponpeio⁽⁴⁾ ta Metelo⁽⁵⁾ lagunak zirala, ta aurkari lez demokraziaren zaletasunezkoa zan Sertorio⁽⁷⁾ gudal nagusia.

Sertoriok, K.a. 90ean Italiaren goiko aldeko jaurleri eta K.a. 83an erdi ugarte onetan Ziteriorren aldeko Pretore izanetik, Sila naguzitzarrak kanporatu ebanean Mauritaniara iges egin eban eta an Sila'ren aurkakoa zan Mario'ri lagundu ostean Lusitanoak eskatuta, erdi ugarte onetara etorri zan.

K.a.80ko urtean Sertoriok erdi ugarte onetan leiñu batzuk matxinatu ondoren, egon ziran erromatar gudal nagusiak menperatu ebazan, ta erromatar legeakaz askatasunezko jaurkintz antzeko baten ezarrita, banandu eban erdi ugarte au zati bitan, bat lusitania izango zana eta bestea kelti euskaldunena, uri nagusiak Oskan eta Portugaleko Eboran kokatuta.

Sertoriok, irakaskintzazko arloak be ez ebazan bakean itzi, eta irasi ebazan ikastolak, gazteak ikasi bear ebezanak, erromatar jendekuntzan ikasi egiezetik aurrera, bere izarrak euken ospea galtzen asi zan.

Eta au da emen marratu egin bear dana, **erromatar guda talde biak, keltiar eta euskal gudariekin** borrokatu zirela, gero argituko dodan lez, gu be anai arteko borrokan ibilita.

K.a.77ko urtean Sertorio erromatarra, Ebroko ibarretara aldatzen da eta Oskan ezarri eban beren guda kanpaldia, ardatzezko leku ortatik, Ilerda⁽⁸⁾, Oska⁽⁹⁾ eta Kalaorraren⁽¹⁰⁾ lurraldeak kontrolpean eukiteko.

K.a.77ko urte orretan Erromako agintariak, Kneo Ponpeyo Aundia bialdu eben Ebro ibai inguru orretara, eta Pertus'eko⁽¹¹⁾ bitartetik aldatuta, euskaldun askoren atsegintasun edo begi onekua izan zalako, euskal uriaren banaketa sortu zan, Kalagurrisekoak Sertorioren alde kokatuta, ta Gra-kurris edo Alfarokoak Erromaren alde kokatu ziranean, Ebro ibai inguru ori odolez margoztuta geratu zan.

K.a.76ko urtean Tito Libiok⁽¹²⁾, gizon au izan zan euskaldunak len aipatu egin ebazana, eta Be-roiak aipatzen dabezanean, Sertorioren aurkakoa lez agertzen dauz, Estrabonek keltiar lez aurkeztuta, eta Ptolomeok gero, beren uri nagusi Libia, Tritiun eta Bareia aurkezten daskuz.

K.a.75eko urtean Kneo Ponpeyo aundi onek baskoien lurraldetan beren kanpaldirako babesa aurkitzen, eta gudariak bear ebenagaz ornitu ta diru kutxak beteteko bitartean, K. a. IIen gizaldiaren inguruan irasitako Iruñako uriari, Pampoelo 'ko izena ipini eutsan.

(1) Ponponio Mela = S. I. erdi-ugarte onen Turdetaniako betikan jaio ta Betikako Tinjeteran il zana. De Situ Orbis, antziñako Mundu onen edestiari begira, leenengoz eta latiñez idatzi ebana. (2) Segia = Ejea de los caballeros, ospakizun orretatik datorren izena. (3) Alauona = Alagon. (4) Luzio Kornelio Sila = K.a.138-78. Erromatar gual agintari nagusia, eta nagusitzar-lez'eko agintaritzagaz erroma jaurkitu ebana. (5) Ponpeio Kneo aundia = K.a.106-48. (6) Metelo = Quinto Cecilio Pio. Metelo'ren sendikoa. (7) Sertorio = K.a.121eko urtean Nursian (Sabiniar-Italia) jaio zan, eta 72ko urtean bere bigarren izan zanak Oskan (Huesca) il ebana. (8) Ilerda (euskeraz) = Lerida. (9) Oska = Uesca. (10) Kalaorra = Kalagurris latiñez, eta orregaz Sertoriok Santo Domingo de la Calzada ta Logroño eukiten ebazan bere kontrolpean. (11) Perthus edo Pertuis = Probenza ta itsas-urdinezko ertzean Baukluseko lurraldean kokatuta dagoena. (12) Tito Libio = K.a.59-Ko.17, edestilari eta erromatar idazlaria.

K.a.74ko urtean, Apiano greko erromatar edestilariak, eta Floro latindar edestilariak esaten dabe, Sertoriok 3.000 il baiño geiago egin eutsezela Metelo ta Ponpeio´ren gudalozteari, Kalaorra inguratuten egon zirala.

Urte onetan ainbeste garaipen bidetik, Errepublikako jaurkintzaren orekazko aldar⁽¹⁾ edo dendu ezak⁽²⁾ gorantza joanda, menpetutako yopuak⁽³⁾ gero ta geiago ugaritzen asi ziran, eta Espartako gidari zala, danak matxinatu ziran.

K.a.73ko urtean Afrianok, Ponpeyo erromatarren gudal nagusiak otera inguratzen dau Kalaorra, eta Sertoriok oraingoan ez ebalako aukerarik euki euren babesean joateko, Kalaorra etsaimendu zan.

K.a.72ko urtean Ponpeio⁽⁴⁾ erromatarrek, Mario erromatarren indarrak menperatzen dauz erdi ugarte onetan.

Baiña, Ponpeio ta Meteloren erasoagaitik, Sertorioren eragipena berantza joan zan, eta Sertorio berak euken gudal nagusi ordezeko Perpna´k, judaskeriz Oskan il eban.

K.a.72ko urtean, Oskako urian iltzen dabe Sertorio erromatar gudal aundia, Oskako uri au bakarririk geratuta bere ameskeriaren alde.

K.a.67garren urteraiño iraun eban, Ponpeyoren gudal nagusi Afrianok Kalaorrari egin eutson inguratuko eraso, eta jakiteko noraiño eldu ziran erasoko indarrari eutsin ezinik, Floro Balerio Maximok esan ebena aurkeztuko dautzuet:

“Jateko abere geiago ez ebelako euki, euren emakume ta ume biurtu ebazan janari; eta gudari gaztearen barrukiak euren sendiarekin elikatzeko, ez eben zalantzarik euki, gorputz aiek gatzan zaindu edo iraun arazteko”⁽⁵⁾.

Erromatar Antoninoren ogeitaamalau bideetatik, bost aldatzen ziran Euskalerriko lurretatik, garrantzi aundikuen XXXIVgarrena izanda, Arturikatik⁽⁶⁾ eta Belegia⁽⁷⁾ ta Ponpaelotik⁽⁸⁾, Burdigaliara⁽⁴⁾ joaten zalako, eta XXXIIIna Kalaorratik aldatzen zana.

K.a.60ko urtean ispaniako Sertorioaren matxintasunak, eta Katilinaren⁽⁹⁾ erkideko matxintasunak be ezereztuta, errepublikaren amaiera beartu eben, eta Zezar, Ponpeyo ta Kraso aukeratu eben lenngo kaisartzaren agintaritzazko irukote lez.

K.a.58ko urtean, Klodio guda agintari egiten dabe. Zizeron atzerriratu egin bear izan zan, eta Zezartar Juliok, Galiako gudak asten dauz.

K.a.56ko urtean Zezarrek, agintaritzan bere urrengoa zan Publio Lizinio Kraso⁽¹⁰⁾ bialdu eban Akitaniako lurraldeak menperatzen⁽¹¹⁾, eta Adiatuanok bideratzen ebazan euskal leiñu indartsuenak, zalduneri asko ta lejiorearen 10 taldeko bost zenturiaren gudalozteagaz ustegabe arrapauta menperatu ondoren, Auñamendiaren aldebietako euskaldun guztiak alkartu ziran erromatarren aurka.

Alkartutako euskaldun onetatik egoaldekoak, ondo baiño obeto ezagutu arren erromatarren gudako tresneri eta antolabideak, erromatarrek, Iraillako urte orreitan menperatu ebazan.

Zezar´tar Julioren gora-beran, Akitania, Garona ibaitik Auñamendi arteko lurrak ziran, baiña gero, Loira ibaitik bera alkartu ebazan lurra orreik Nobenpopulaniaren izena ipini ondoren⁽¹²⁾, beste erromatar lurralde baten biurtu ebazan, ta izkuntz batekoak uste dot izan bear zirala, bestela zelan ulertu alkarte ori.

K.a.56-55 urte onetan Tarteso edo euskal leiñu guztiak matxinatu ziran.

K.a.55eko urtean Zezar, Germania ta Britanian sartzen da.

(1) Oreka = equilibrio. “Aldaro” = desequilibrio, falta de equilibrio. (2) Dendu-ezak edo gabe = desequilibrado, inestable. (3) Menpetutako yopuak = la jente que se esclavizaba. (4) Ponpeyo = K.a.106-48. (5) “Como no les quedaba ningun otro animal en su ciudad, convirtieron en nefanda comida a sus mujeres e hijos; e incluso para que la juventud en armas pudiera alimentar sus entrañas con las de los suyos, no dudaron en poner en sal los siniestros restos de los cadáveres”. (6) Arturikatik = Astorga. (7) Belegia = gaurko Iruña-beleia, Arabako lautada. (8) Ponpaelo=Iruña. (9) Burdigalia = Burdeos. (10) Katilina = erromatar politiko aundia, 108 ? 62. (11) Publio Lizinio Kraso ?. (12) Nobenpopulania = erromatarrek Galiako lurraldeak 17 zatitan banaduta euki ebezanetik, Akitania izan zan bat.

K.a.51kako urtean Zezarren ondorengoa zana Krasok, guztiz menperatzen dau Galia osoa, eta Akitaniako euskaldunak menperatzen joan zanean, oneik, laguntza eskatu eutsoen erdi ugarte onen euskaldun anaiari, Zezarrek, kantabroak lez zeinkatu⁽¹⁾ edo ezagutu ebazanak.

K.a.49ko urtean Andaluziako Ispalis⁽²⁾, oso osoan sartzen da esanaren argibidetasunezko edestian, Ponpeio eta Zezar´tarren borroketatik aurrera, bertan egon ziran Tarteso Turdetano euskaldunak, eta euren euskal izatasunak ondo zaindu arren, len be keltiar eta kartajinesaren artetik nastuten joanda, emendik aurrera erromatarrekin geiago nastuko ziran.

K.a.49ko urte onetan Zezarrek, Rubikoi⁽³⁾ ibaia aldatzen dau eta erromatar anai arteko bigarren guda asi zan Erroman.

K.a.45eko Epailaren 17an Munda´ko⁽⁴⁾ zelaietan borrokatu ziran Ponpeio⁽⁵⁾ ta Zezartarrak, Zezarrek Korduba eta Ispalis berreskuratuta.

Borroka onegaitik Zezar´tar Julio´k esan eban: *“oraiñarteko borroka guztietan, garaipe nagaitik bakarrik arduratuten zala, baiña Munda´ko borroka onetan izan zala bere bizitzaren babesagaitik arduratu egin bear izan ebala, ararte euki ebazan borroka guztietatik”*.

K.a.45eko urtean Zezarrek, Ispalis´eri *Iulia Romula Ispalis´en*⁽⁶⁾ izena ipini eutson, bere jaurkintzarako erromatar legedia emonda, eskubide osoko erromatarrak izan zitezen.

K.a.44ko urtean erromatar Bruto, Kasio eta beste batzuk ilten dabe Zezartar Julio.

K.a.44ko urtean erromatar Ponponio Mela idazle ta lutelezti-zaleak⁽⁷⁾, bardulitarrak Auñamendietan bizi eta leiñuetan ez ziralako egon bananduta, *aberi bat osotzen ebala esaten eban*.

Barduloak zirala esaten eutsoen, bardulo, karistio, beroi, baskoi eta akitanoari bakarrik, kantabro, autrigoi, edo turmogo euskaldunakaz banatzearren.

Erromatarren edestilariak emen, euskaldunagaitik txarto ulertutako gauza bat agertzen dabe, euskal zentzua bardiña izan zalako euskaldun guztientzat, beste gauza bat izan zan, euskaldunak babesteko ibili bear ebezan izangaitasunezko⁽⁸⁾ aukereak, bildurgarritasunezko nekaitz baltzazko indar orren aurka.

Eta Augustok, Kantabroak menperatu ebazanean, barduloari ez eutsoen ezer egin, berari leialtasuna emonda eukiela sartu ez ziralako borroka orretan, euskaldunai datorren edestian ainbat bider sortuko jakuna.

K.a.43ko urtean Marko Antonio, Lepido eta Oktabiok bigarren triunbiratoa irasten dabe, Marko Antoniok Ekialdeko jaurkintza artuta, Lepido Afrikako lurraldeagaz, ta Oktabio Mendebaleko jaurkintzarekin.

K.a.31ko urtean Marko Antonio eta Oktabioren arteko zein geiagoko naikidetasunean, anai arteko guda biztu zan, eta Akkzioko itsas borrokan Oktabiok Marko Antoniori irabazita, au Afrikara joanda beren burua il eban Kleopatragaz batera.

Lepido auzi gizon nagusi⁽⁹⁾ lez, eta Oktabio⁽¹⁰⁾ agintari aundi lez geratuta, Erromako kaisertza sortu eben Augustoren izenakin, eta Julio Klaudioren leiñua sortu ebenean Erromak bere ospe audiena ezagututa, Tiberio ipini ebenean kaisertza orren ondorengo lez, Kaisartza ori, odoletiko edo etorkizkoa biurtu eben.

K.a.29ko urtean Oktabiok, erromatarrengandik menperatuta dagozan erri guztien agintaritzan artu ebenean, erromatarren Errepubika amaitu eban, eta 29-19 urte bitartean erromatarrek *Bellum Kantabrikun* deitzen eutsoen Euskalerrri oneri gudategitik kanpo geratu zan.

(1) Zeninkatu = identificar. (2) Ispalis = Sevilla. (3) Rubikoi ibaia = Fuimizio ibaiaren antziñako izena. (4) Munda = Betikako lurraldean eta gaur Ronda dauan lekuan kokatuta egon zana eta Zezarrek, Ponpeyoren seme eta Sexto eta Zkneo´ren semeen aurka borrokatu zan bertan, Zkneo borroka orretan il zan. (5) Ponpeyo = K.a.106-48. Gaurko jakintsuak, In gizaldian Marko Porzio Katon´en⁽¹⁾ denboratik asita kantabro ta (6) Iulia Romula Ispalis = Ispalis gero Betikaren izena ipini eutsoen eta guadalkibir ibaiari betis´ko ibaia, eta beranduago gaur arte ekarten dauan Sevilla izena. (7) Lutelezti = geografia. Lutelezti-zaleak = geografo. (8) Izangaitasun = posibilidad, capacidad para ser o existir, potencia. (9) Apezpiku, edo Pontifice = magistrado. (10) Oktabio = K.a.27an. erromatarren errepublika amaituta, Erromak euki eban lenengo kaiserra izan zan Augusto izenarekin, eta Zulo Zezarren loba-billoba izanda Julio Klaudiaren leiñua sortu eban.

K.a.27ko urtean Erroma, kaisargo edo agin-zalekerian ezarri zan Octabiotar Augusto Kayorekin, ta Augustori Printzearen izena ipini eutsoen urte onetan, erdi ugarte au iru zatitan banandu eban, bateri *Ispania Citerior Tarraconense lez irasita, bere uri nagusi Tarrako izan zala*, eta Tarrako oneri geratu zan lotuta ego Euskalerra guztia.

Orretarako Oktabiok, zati bitan banandu eban Euskalerra, Iparraldean *Nobenpopulania 9 euskal lurraldeakaz osotuta egoana*, egoaldeko euskal lurra *Iparraldean Kantauriko eta Galizia, Ekialdetik Lur Arteko itsasoa, Egoaldetik Betika ta Lusitania, eta Mendebaletik Atlant itsasoagaitik mugatu ebena, eta ispania ziterior deitu eutsoen lurraldeari, uri nagusi Tarrako eukala egokitu eban ego Euskalerra.*

Asturiarrak menperatu orduko eta erromatarren oiturak artzen be asi orduko, euskaldunak erromatartuten asi giñela esaten dabe.

Ez da arritzekoa, orduko euskaldun erromatar gudariak, 20 urteko serbitzu ostetik zarsaritu egiten ebazalako 3.000-5.000 denarioaren diruagaz, eta baimena emonda eurak gura eben lurretan, sortuko eben sendiagaz kokatzea, euki ebazan lege berezi orreikaz erromatarren legezko oituran bizitzeko.

Orregaitik esaten dot nik, ez dala beste mundu bateko miraria, euskaldunak Anibalekin ezagutu genduzelako erromatarrak, eta euken indarrakin jakinda zelako burugogorkerian ibili ziran jokatzen, Kantauriko itsas Auñamendiaren babeseko euskaldunak, zentzun eta zuurtasun aundiagaz jokatu gendula, eta K.o.IXn gizaldiko aukerea eldu zanean laster kendu be, gure euskal sinismenetik menperatasunezko norkeri latz orreik, gure baitazko aitorrera alan eskatzen euskuelako.

Euskaldunak edo ta askatasunaren oiñarrizko demokrazizkoak, or asi giñan galduten apurka apurka, euskal oiturazko ardatzaren biotzezko indarretik urriñean egon ziran lur asko.

Menperatasunezko naikeriaren eragipenak aundiagotzen joanda gero, sasinorkerizko katoliko erlijioaren laguntzagaz, erromatar Aita Santua aolkularitazako legekoi iraspendu edo ta irakasle lez ezarrita, naikoa egin gendulako euskaldunak gagozan lurraldeetan bizirik agertzeagaz bakarrik, eta *“jendekuntz galdua esaten dautsen, Paleolitiko Neolitikoa dan askatasunezko demokrazia ederraren aitorleak lez”* gaiñera.

Orregaitik bakarrik, euskerea eta Euskalerra izan bear leukie: *“munduko gizartearen onaurkia”* ezerezko zalantza barik, eta izango dirala uste dot denbora asko iraun barik.

Oar-txikibat emen.

Nik, *Atlantidako jendekuntzari* ez dautzo esaten, Platonek beren denboratik 12.000 urte baiño ariñago, Jibraltarreko itsas estutasunetik kanpo, ipotesis edo baldintza lez *Erkulesen arroiñ edo zutoiñeri* esaten jakona eta gero itsasperatu zan lurralde aundiko jendekuntzari.

Ez, eta gitxiago, orren gora beran egon diran ainbat asmaketari be.

Miresgarria niretzat, gure arbasoek Paleolitiko-Neolitikoaren millakako urte bitartean askatasunezko zentzuan lortu eben demokrazizko ekandua dalako, oraiñ 2.000 urtetik ona katolikotasunaren asmakuntzagaz ezereztu gure dabena, mundu onen gizarte guztia batzangotuz, batzuk agintaritzape baten jaurkitu gure dabelako.

Euskalerra izanda mundu onetan, geratzen dan *aitorlari* edo *aitorkide* bakarrentariko bat. *Orregaitik, errez ulertu leikena da, Euskalerraik zergaitik daukazan ainbeste etsai.*

K.a.15-12ko urte bitartean denborako zeaztasunak aurkitu dira Irunen, Junkaleko Santa Mariaren eleizan, eta zeaztasun orren bitartez dakigu, Oiassoko uriaren itsas portuak, Betiseko Italika uriaren itsas portuarekin artu emon aundiak egon zirela salerosketaren bidez.

K.a.05n urtean edo ta erromatarren 749ko urtean, igarleagaitik ainbat bider aurretik esanda jaiotzan *Jesus*, Jaungoiko Aitari eskeiñintzaille, bere bizitza oparitu egingo eutsona

(1) Marko Porzio Katon = K.a.254-149.

gure ekintzak Jainko Aitak bereztutako gai legeen bidetik aurrera eroan barik, norkeriaren ezjakintasunezko bizi biurtasunetatik eroaten genduzalako gure ekintzak.

K.o.41-54eko urte artean Klaudio kaiserra izan zala, erdi ugarte onen lurraldeak banandu ebezan erromatarrak, eta euskaldun Beroi ta Baskoiak *Caesarea Augusta* ren⁽¹⁾ jaurkintzazko agintaritzara geratu ziran lotuta.

K.o.48ko urtean Augusto Kayo Oktabiok⁽²⁾, berari gorde eutsoen aitzokatuko galbidetik Kalagurritar gudariak, gero Marko Antoniori irabazita askatu ebazan. Erromatar agintaritzazko gudal nagusi asko euki ebezan euskaldunak euren babeserako, nagusiakaz zindunezkoak izanez gainetik, begion edo zaletasun aundian zaindu edo eukiten ebazalako.

K.o.74-75 urte artean Bepasianok, *latinezko zuzenbidea* ezarri eban erdi ugarte onetan.

K.o.77n urte inguruetan Ponponio Mela eta Plinio Segundo Kayo "zarra"⁽³⁾, Errioxako Trizio⁽⁴⁾, ta gaur Burgosen lurraldeko udala dan Bribieska⁽⁵⁾ Burgoseko uri nagusia, euskaldun lez aipatzen dauz, euskal Autrigoiaren 10 uri nagusi artean ezartzen dabelako.

Plinio zarrak, erromatarrak itsas ertzean azkeneko uria irasi ebenari, gaur Kastro Urdiales uria dana, Flabiobrigaren izena ipini eutson, barduloen lurraldean kokatuta.

Plinio zarrak, karistioak be aipatzen dauz, autrigoiak Egoaldetik eta Ekialdetik barduloagaitik mugatuta egon zirala.

Ptolomeok karistioak, Deba ibaia, eta Nerbioi ibaiaren artean iru ertzeko lurralde antzeko baten kokatuta, eta uri nagusi lez Tullika⁽⁶⁾, Suessatio⁽⁷⁾, ta Veleia, gaurko Iruña Beleia izan leikena.

Geroago Ptolomeo k⁽⁸⁾ be bardin esan eban, Errioxako Trizio ta Deobriga gaur Ebroko Miranda dana euskaldunak lez aipatuta.

Eta edestilari oneik erdi mendean, Karistioaren zati bat, ta Autrigoiaren beste bat, Barduloakaz aldatu ebezanean, Burgosen Iparraldeko Autrigoi eta Tumorgoaren lurraldetara barduloaren izenarekin, Baskoiarengandik eskuratuta geratu zirela esaten dabe.

Eta aldaketa orretan geratu ziran Karistio, Bardulo, Autrigoi eta Tumorgoai Barduliar emon eutsoen izenagaz Tumorgo onen lurraldeetan gero, Gaztelako konderri lez agertuko ziran.

Abilan daukagu oraindiño *Mingorria* esaten dautsoen erria.

Estrabonek, Bardyetai deitzen eutsoen barduloai, Kantabro eta baskoien artean kokatzen ebazan, gero Ponponio Mela ta Pliniok bardin eginda.

Ptolomeok, euskal lurralde auek, *karistios, kantabros, bardulos, akitanos, autrigones, berones, baskones, turmogos, keltiberoak eta suessetano etan banatzen ebazan.*

Beroiak, keltiarren sorburukoak direla esaten dabe, K.a.I go gizaldian Logroño inguruan kokatuta, baiña nik eneuke esango olantxe danik, keltiarrak gure artean ondo baiño obeto konpondu ziralako, eta ez eben gitxiago merezi ekarri eben aurrerakuntzagaz, inguru orrein toki izenak euskerazkoak direlako.

Keltiarrak erromatarren bultzadagaitik, bake bakean aienatu ziran inork ezer ez dakiela, eta euren uriak, Bareia uri nagusi lez, Libia gaurko Leiba edo Erramelluri, Tritium gaurko Trizio, eta Bilibiun gaurko Bilibio direnak, or geratu ziran ezer ez bazan gertatu lez, *ez ote zan izango Euskaldunen artera etorri zirala keltiarrak, euri nagusitasunezko mailla emon barik ? Mungiko errian, "Berriagako mendia esagutzen dogu" gaur dagon baseliza azpian keltiarren gaztelu edo kastrea egoneikoa dana, eta abar.*

Argi dago, Euskaldunen izena ez daiten agertu inondik ere, baten baten esku baltza agertzen dala edestiarren orko ingurutik, gainera gu izanda Paleolitiko Neolitiko jendekuntzaren "aitorleak" eta errigizar-teko ekanduaren zentzuzko ulermenean eurak baiño aurreratuagoak izanekoak, keltiarrak tresnerietan aurreratuagoak izan arren, Ekialdetik egubero giroaren gora beragaitik aurrerakuntz ori artu ebelako.

(1) Zesarea Augusta = Gaztelera Zaragoza, eta euskeraz Zalduba. (2) Augusto Kayo Oktabio = K.a.63-K.o.14, K.a.27ko urtetik aurrera, erromatarren leenengo kaizerra izan zana, Julio Zesarren loba-billoba izan zan. (3) Plinio segundo Kayo Zarra = K.o.23-79. (4) Trizio = Tritium Autrigonun. (5) Bribieska = Virovesca-Uirovesca. (6) Tullika = Tuyo. (7) Suessatio = Arkaia. (8) Ir Ptolomeo edo Tolomeo Klaudio = K.o.100-178.

Eta argiago, Euskalerrriaren lurra izan zala oiñarria, Atlant itsasotik Germaniara ta Eskoziatik Kadizeraiño kanpotik etorri ziranaren guztientzak, Griego ta Fenizioengandik asita

Orregaitik errez daukazue ulertzeko, ondo zergaitik konpontzen giñela, bakez agertu ziran keltiarrekin, edo beste edozein izan bazan bardiñ.

Beroiak, Kantauriko mendikatea iparraldetik, baskoiak Ekialdeko gaur Kalaorra ondoan, Tiron ibaia ta Demandako mendikatea, eta Egoaldetik, gaurko Soriaren Iparraldeagaz mugatzen dira.

Euskaldunak emen be anaiarteko borroketan ibili giñan, euskal keltiarrak zirala baskoi erromatarren aurka, arrano kaisertza txar orren menperatasunezko bearrezkoak bakotzari, bera bizitzeko aukeratan ipinten euskulako, eta anaiak izan arren, bakotza al gendun ziurtasunagaz jokatu bear gendun beren *Veni, Vidi, Vinci*´ren aurka, eta zetan ezanik be nekagaitzezko⁽¹⁾ nausitzargo⁽²⁾ orren eraso edo *ukabilla jaso*´aren eragipenezko inguruan egon giñenak bizirik urteteko.

Bigarren atalean esango dodazenagaitik, edesti guztitik odoljariozka etorriko zirenak gaur arte, ikusiko doguz.

Grakurriz ta Kalaorragaitik, baskoi erromatar eta euskaldun keltiarrak borrokatu ziranean eta erromatarrak garaille agertu, euskal baskoiari emon eutsoezan uri bi orreik euren laguntzagaitik.

Or ikusita zelako jokoa ibili eben erromatarrak, ereiteko eta lurra berak euki ebezan meatokitik, gura eben mozkiñakaz geratzeko.

Baskoiak izan ziran danetatik erromatarrakaz leen euki zituzen alkar ikusteak, erromatarrak, baskoiak mugatzen ziran lurraldetatik sartu ziralako, adibidez: Ebro ta Aragoiko ibaiaren ingurutatik.

Erromatarrak, Auñamendiko Iparraldearen mendarte edo ibarretik, errege katolikoaren Sos eta Alagon zaldunezko Ejeatik aldatuta Zaldubaren⁽³⁾ ingururarte, ta egoaldearen Errioxa ta Ebroko ibarragaz batera osotzen dabezan lurrari esaten eutsien Baskoi lurraldeak zirala, edo gaur egoaldekoa dan Nafar osoari. Oktabio´k Baskoien uri nagusi artean, Iruña⁽⁴⁾, Alfaro⁽⁵⁾, Kaskante⁽⁶⁾, ta danen gaiñetik Kalaorrari⁽⁷⁾, *erromatar gizarteko Udala*´ren izenak ipini eutsoezan.

Eta Oktabiok, K.a.31ko urtean Greziaren Joniko itsas-ertzean, Artako urkolkoaren sarreran Aktiun edo Akkioko itsas borroka ospatsuan, Marko Antonio ta Kleopatrarren aurka garaipenduta urten ebenean, baleiteke bereizgarritzko Kalagurris izen au, bera babesteko ibili ebazan kalagurritar euskal gudariaren omenez ipini ebala.

Euskaldunak, K.a. Igo gizalditik egon zirala erromatarren gudalozteetan lerrokatuta dakigu, bosteuneko taldetan⁽⁸⁾, leji, pretorianoaren gudaloztetan eta abar.

Ospatsua izan zan, *La cohors II Vasconum Civium romanorum* Germaniarako sortu zana, gero Britaniara bialdu ebena, eta K.o.156ko urtean Mauritaniako Tinjitanara⁽⁹⁾.

K.o. I-IIIIn gizaldi bitartean, *La I Fida Vardillorun Miliaria equitania civium Romanorum* Britaniako iparraldean Adrianoren euskarri⁽¹⁰⁾ ibili zanari leialtasunezko izena ipinitakoa lez, lenengoa zala ipinten ba eutsoen, geiago be egon zirala esan gura dau.

Eta Trajanok lez, *I Fida Vardullorun Civium Romanorum* izendatzen ebezanak, Romanorun izen ori eroateagaitik, erromatar erritargoa emoten eutsiela esangura eban.

Erromatarrak, alde bitan banandu eben euskal lur oneik, *saltus baskonun: basarte lez* eta *ager baskonun: alor, soro edo zelai lez*.

Iruña ta Auñamendiaren bitarteari *saltus baskonun* esaten eutsoen, Nafar Iparraldea, Gipuzkoaren zati bat, eta Aragoiko beste zati bategaz osotzen ebana, lurralde oneik, ol, zurtegi edo egurtegi, eizarako, ta geien meaztegi lez⁽¹¹⁾ ibiltan ebazanak.

(1) *Nekagaitzezko* = *incansable, infatigable*. (2) *Nagusitzargo, jauntxo edo jauntzar* = *dictador, dèspota*. (3) *Zalduba* = *Zaragoza*´k ekarten eban paleolitikotik toki inguru orren antziñako izena. (4) *Iruña* = *Ponpaolo, erromatarrak ipini eutsoen izena*. (5) *Alfaro* = *Grakurris izena ipinita eukena erromatarragaitik*. (6) *Kaskante* = *bardiñ, Kasakantun*. (7) *Kalagurris* = *Erromatarrak Kalaorrari ipinitako izena*. (8) *Bosteuneko taldetan* = *cohortes*. (9) *Mauritania Tingitana* = *Erromatar Mauritaniaren Mendebalko Tingis Uri nagusiari esaten eutsoenari eta gaur Tanger dana*. (10) *Adrianoren euskarri* = *en apoyo de Adriano*. (11) *Triano ta Arditurriko meaztegiak lez*.

Eta *ager baskonun* Iruñatik Ebro ibaira egoaldeko lur batzuekatz, Nafarroaren egoaldea, Errioxako zati bat, Burgoseko iparraldea eta Aragoien egomendebalaren aldeak, lurgintza lez ibiltzen ebezanak. Euskal Akitanoak geratzen jakuz, gure Auñamendiren Iparraldean kokatuta, askenekoak izan ziren erromatarrak menperatzen, goian ikusi dogun lez.

Gaur, or dabiz edestilari batzuk erdi zoratuta, kantabros, edo euskal keltiarrak⁽¹⁾ ta baskoien artean euki ebazan izatezko senidetasunak zalantzan ipintzen, egin zan erromatar kantabroen guda, kantabroak, autrigoi eta turmodigoai erasotu eutsoenean asi zalako.

Eta Badagoz Arabako Iruña Beleian III-IVn gizaldietan idatzitakoak aurkituta, euskeraz argi idatzita dagozan aztar naikoak, eta eurak bakarrik esaten dabe *euskerea zala izkuntz bakarra ia erdi ugarte onen lurralde guztian Loira ibaiararteraino euskeraz egiten zalako*.

K.o.33n urtean edo ta erromatarren 782ko urtean erromatarrak, Nazaretoko Jesus il eben gurutzetan 33 urte euki zituzela.

K.o.IIn gizaldian Alejandriako jakintsu aundia izan zan Klaudiotar Ptolomeok, Turdetaniako Oska uria, gaur Sebillaren Umbrete ko urian dauan lekuan kokatzen eben, eta nor esango dau, ez daukela euskal izatasunik ?.

K.o.212ko urtean Karakalla erromatar kaiserrak, *Antoniniako iraspenna* edo erromatar uritargoa ezartzen dau, onen erdi ugarte osoarentzat.

Kontu aundia euki bear da emendik aurrera sortu zanarekin, orañarteko edestia lotu egin ebelako, eta Franko k beren eriotzaren osterako esan ebazan berbak: "ondo lotuta geratzen zala geroko dan guztia", mundu onen gizartea erromatar katoliko eta godoen kaisartzargotasunean betiko batzangotuta geratu daikenetik datorrelako.

Eta erromatarren maldabera asi zanetik, Konstantino gaz asten da erromatar aurrez ikuste au :

K.o.284an Dioklezianok kaisartzara igon ebanean, danak ibili ziran borrokan, norbera kaisar jaun izateko aukeraren billa.

K.o.306ko urtean, Konstantino eta Majenzioren artean egin zan azken borroka au Kristauak Konstantinori lagunduta, baiña onek ez eban igon kaisar jauntzara, arik eta berari gerizpea egiten eutsen leikideai irabazi arte.

K.o.310eko urtean I Konstantinok Maximianori irabazi eutson.

K.o.311ko urtean Galenok, Kristauen indar aundiko sinismena ikusita eta euren laguntza bear zalako erromatar kaisertza aurrera eroatekotan, kontu aundiagoan artu ebazan eta Sardikako legeak argitaratuta, Kristautasunaren jai arauak askatu ebazan.

K.o.312ko urtean I Konstantinok, Majenziori irabazi eutson, kaisertzazko bidea ia azke eukinda Liziniori irabazi arte.

K.o.313ko urtean Konstantinok Milaneko aginduagaz Kristautasunezko jai aruari baimena emonda, Baleriok baieztu ebazan, eta agindu edo erabagi au, ez zan Erromatar Kaisertzaren Kristautasuna erabagi ebena, agindu ori Teodosiogaz egin zalako 380ko urtean.

Baiña, K.o.313-314ko urte artean, *baimenduaren askatasun osoko erabagi au artu zanean*, orduko denboraren menperatzailetasunezko legeentzak lar aurreratuko ezauntza zan lez, laster aztu edo alboratuta geratu ziran erabagi orreik.

Jesus´en eleiza 29-33ko urte arteko mendekoste edo Maiatz pazkoan irasi egin zan orduko, ainbat fedeaule edo ziñausleen eragin edo mugi aldi ibili ziran Arrio jaio orduko.

Arrio, Libian jaio zan 256ko urtean, ta 336ko urtean Konstantinoplan il, bere bizitzaren leenengo urtetan Alejandriako apaiz eta geroago Libian gotzaia izanda.

Eta Arriok esaten ebana Jesus´en irakaskintzaren aurkako alango ziñausleen eritzi bat lez artu ondoren, 318ko urtetik aurrera, Kristautasunezko eleizaren oiñarriak ezereztu gura eban leenengo

(1) *Euskal-Keltiar = euskaldun batzuk keltiarrakaz ibili ziralako.*

sinist auste edo ziñauskeri lez artu eben beste eleiztarrak, Arrio lekaide eta beren jarratzailleek Kristautasunagaitik, irakaspidetuta euki ebona.

Alejandria`ko apaiz orrek: Jaungoikuan ez zirala iru gizaki edo pertsuna egon, bat izatetik kanpo, eta Jesus izan zala Mundu oneitara sorkaritako leen umeetatik etorritakoa, baiña ez zala izan *Aita`ren izatasunezkoa* esaten eban.

Eta Jaungoikuak, ez eutsola Jesuseri irasi gai mundu onetara gizaren laguntzaille edo euskarri antzeko bat izateko.

K.o.320ko urtean Libian jaio zan Alejandriako gotzaiña Alejandrok, Ejipto ta Libiako 100 gotzain baiño geiagorekin, eleiz-batzar bat batu eban eta bertan Arrio ta bere jarratzailleak eskomunikatu ebazan.

Kristautasunek Nizeako Eleiz Batzarrerarte eta bertan be bai, Atanasio Santua euki eban buruzagi aundi lez, Arrianoren sinist auste edo irakaspidetza orreri aurka egiteko.

Argi dago, jauntzar asmatzaille ugari egon zirala denbora aietan, mundu onen errigizarteak euren menpeko batzangotasunaren sasinaieran zuzentzeko.

K.o.324eko urtean Konstantinok Liziniori irabazita, Mendebaleko ta Ekialdeko kaisargoetan, agintari bakar lez geratu zan.

I Konstantinoren jaurkintza ezagutzen zan mundu orretan, Asia Txikerraren Eufrates`eko ibaitik Atlant itsasoraiño eta Afrikako Sajaratik Eskoziaraiño mugatzen zan.

Ez da arritzekoa ba, Nizean artu ziran erabagiak Mundu edo Izadi guzti onentzat izatea, eta gitxiago, an artu ziran erabagi orreik, Ludi oneri Jaungoikuak bereztutako legearen aurkakoak izatea, I Konstantino ta an egon ziran eleiztar guztiak ezarri ebezan legeak, kaisar menperatzailletasunezko eragipenaren zentzutik ezarri ebezalako. Eta argi geratuko diranak, Euskalerrriaren edestiko lan onen urrengo ataletan.

Siñist ezinezkoa da, edestitik zear zelan ekarri leikezan eten barik eta odoljarioz, orduan erabagi ziran menperatzailletasunezko lege orreik, Jainkoak ipinitako legearen aurka gaur arte, eta gitxiago, gaurko eginkizunak ekanduz ikusita, jaurkintzazko arloetan aurkezten doguzan eginkizunak, geiago dirala erdi ustelduta dagoen maltzurtasunezko arrakeroen⁽¹⁾ antzerki batena.

Gaur sortzen jakun naieza, beti izanda Europako agintarien menperatzail ardurea, Nizeatik aurrera eurak artu ebezalako gizartekerizko ardura guztiak, eta naita Frantziko matxintasunetik ona ainbeste borroka euki, gudalozteak bear izan dabez beti bereztasunezko errigizarteak laterrizko legepe orreitan eukiteko.

Konturatuko ote dira, Jainkoak ipinita, berezko legeak bear dabezan erantzunetik⁽²⁾ kanpo dabizela?. Nor ete da nor, iñor beren berezko arduratik kanpo izteko?.

Danok jaioten gara arduradun Jainkoaren legepean, eta iñor ez da nor, bakoitzak daukagun arduratik kanpo ezer atarateko, gaur egiten daben antzera.

Europaren berezko errigizartekoak arrituko ote gara ba, jaurkintzarako daukaguzan atzerriko agintari geienak lapurrak agertuteagaitik?.

Ez, daukien arduratik kanpo ibiliz gaiñ, menperatzaillezko lege orrekin, guzurtasunezko maltzurtasunaren etorrizko ondore jarraidunak diralako agetzen jakuzenak.

Europan orregaitik eta len bait len, itzuli bear gara Jainkoak bereztu ebazan ordezkartzaren arduradunezko legeetara, menperatzaillezko lege oneikaz denbora geiago egin ezkerro, amiltzearen ertzean egonda gagozen antzera, ez garelako bear dan arduradun eta zentzunezko bizi baten egokitzen da. Ez ote gara orreitarako etorri?.

K.o.325eko Loraillaren 20rako I Konstantino, I Silbestre Aita Santuarekin alkartuta eta Osio Kordobako gotzaiña ta San Atanasioren aolkularitzagaz, Asia Txikerraren Bitiniako lurraldean eta Marmarako itsasondoan dauan Nizea⁽³⁾ urian, I Eleiz Batzar Nagusia batzeko agindu eban.

(1) Arrakero = Ventajista, fullero en el quehacer. (2) Erantzunetik kanpo = fuera o al margen de la propia responsabilidad. (3) Nizea = gaur Turkiako Iznik dana.

I Silbestre Aita Santua gaiso edo zarra zalako ez zan juan eleiz batzar orreitara, eta ordez, Kordobako Osio gotzaia bialdu eban, Biktor eta Binzentius apaizak beragaz maikideak izateko, orduan ezagutzen zan mundu osoko 300 gotzai batuta.

Osio antzerki orren antzezleri aundienetariako bat izan zan.

Konstantino`k Arrianoren ikaspidetza baztartuz ta ziñauskerian gaitz etsiratuta⁽¹⁾, Arrio eskomunikatuta bere lagun Nikomediako Eusebioren ondora iges egin eban, eta I Konstantinok aukeratu eben Katolikotasuna siniskizun´ezko aitortzan⁽²⁾ biurtu eban.

Edestian zear lege orreikaz Ludi oso au ezin batzangotu, eta askoz geroago 1.789ko urtean Franzian menperatzailletasunezko lege orreindondorengoakaz egin zan iraultzarekin, jaio ziran laterri, aitorbageko nazio edo ta berezetasunaren legetik kanpo gizonak irasi ebezan ***aberri katolikotasunezkoak***⁽³⁾, erromatar katoliko kaisargotzazko legeak iraun egien ezarrira. Gaur berezko errigizartearen aurka daukaguzan laterri maltzurak diranak.

I Konstantino onek aurrerantzerako, Iru baldintza oneik ezarrira: ***mundu guztia kaisarjaun baten azpian, Katolikotasunezko erlijioa mundu osoarentzat, eta latiña jendekuntzaren gaillu lez***⁽⁴⁾, ***bere ustez, munduko erritarte guztia betirako oiñarrituta.***

325eko Loraillaren 20tik Bagillaren 19rako, sinismenaren ikur lez Kredoa ezarri eben katoliko guztientzat.

Eta 325eko urtean Uztaillaren 25ean amaitu ziran Nizeako batzarraren eginkizunak.

330`ean Konstantinok Bizanzio izan zanari Konstantinoplaren izena ipini eutson, Europa ta Asiaren erdian egoalako, eta batera Mendebaleko eta Ekialdeko Kaisartzaren bitartean egon zalako.

Ez eben kontuan artu, erabagi orren ondorioaren bidetik 395`an Mendebal eta Ekialdeko kaisertzak banandu egingo zirala.

334-335 urte bitartean I Konstantinok, Arrio`ri deitu eutson ostera Konstantinoplara joan zedin, bertan, Arriok euki eban eskomunikazio ori kentzeko, baiña ez zan eldu Konstantinoplara 336ko urtean eldu zanean il zalako, eta ortik aurrera Arrianotar jarratzaillak asko ugarituta, amaitubageko borrokak euki zituzen, I Konstantinoren ondorengo batzuk Arrianismoaren jarratzaillak biurtu zirelako. 337ko urtean il zan I Konstantino.

Eta 340an II Konstantino kaisar aulkira igonda bere anai Konstantegaz borrokan asi zan, Konstantek Italian euki ebazan jabetzak menperatuz bereganatzeko, baiña alderantziz sortu zan, eta Konstantek borroka orretan il eben II Konstantino.

I Konstantinoren irugarren seme Flabio Julio Konstante onek, aitik kaisertza iru zatitan banandu ebenetik, Afrika, Iliria ta Italiako jaurkintza euki eban.

Eta bere lengusu Dalmazio il zanean, euki zituzen gudalozteak menperatu ondoren, Mazedonia eta Greziagaz geratu zan, baita II Konstantino anaia be Akileyan il ebanean galias´eko lurraldeakaz geratuz eta Arriano irakaspidetzaaren aurka agertuta, San Atanasio katoliko lekuan ostera kokatu eban, II Konstazio⁽⁵⁾ anaia euki eban eritziaren aurka.

350ko urtean Flabio Julio Konstante onek baiña, Majenzioren keiñaduratik erdi ugarte onetara iges ibili zanean, Magenzioren gizon iltzaillak il eben.

II Konstanziok baiña, ekialde ta mendebaleko kaisertzagaz jabe geratu zanean, Arrianismoa berezukuratu eban, eta Kordobako Osio gotzaiña ta Erromako aita santuak, ziñez itz emon eta izenpetu bear izan eben, eurak Arrianoren irakaskintzazkoak zirala.

381eko urterarte iraun ebezan borroka oneik, Konstantinoplako eleiz batzarrean, Arrianoren irakaspidetza menperatuta geratu zan arte, Teodosiok Nizeako katolikotasunaren ikurra dan Kredo edo sinisbideko otoitza ezarrira.

(1) *Gaitz-etsiratuta = apartado como el mal mas odioso y despreciable de las herejias.* (2) *Siniskizunezko aitorketan = creencia, fe sacramental, o dogma de fe.* (3) *Laterri, aitorbageko nazio, Aberri-katolikotasunak = estados, naciones sin patrimonio, o nacional-katolicismos.* (4) *Jendekuntzaren gaillu lez = vehiculo transportador de la civilizaciòn, o idioma comùn a todos.* (5) *II Konstazio = 317-361 urte bitartean bizi zana.*

Menperatu esaten dot, erromatarrek 409ko urtean ezereztu edo aienatu ziranean, Godoak izan ziralako Arrianismo orregaz aurrera egin ebenak.

Konstantinoplako eleiz batzar onetan, beste gauza bat be egin zan, Arnas Saindu edo Izpiritu Saindua, Jaungoiko ta Kristoren neurrira igotea erabagi zanean ondore, Irukoitz Deunaren irakaspidea ezarrita.

Irukoteko irakaspidetza onen aurka egon zan Arrio gotzaiña, eta bearrezkoa aurkeztu jakien kato-likuari bera baztarteza, ziñeskintza orreik ezartzeko.

1.8. Oar txiki bat emen.

Katholiko, latiñaren bidez datorren itza da, Itz Grekoak: *kata norantza* esan gura daua-na eta *olos, dana* edo *dan guztia* esangura dauan itz-bi orreik alkartu ebazanean ta Katolikotasunaren itza agertu, Kristautasun osoa *alderdikidetu* eben egi bakarria izan balitz lez.

Eta Kristautasunari kalte geiago eginnai ez arren, urrengo urtean: *Jaungoikoaren eta mundu onetako gizartearen bitartean, Eleiza ta Kaisartzak ordezko bakarrak zirala esan da*, asi ziran mugabageko irudimenean sinis egi orreikaz gora ta bera dana korapillotuten, eurak betirako izan ba ziran agintari lez edo sasijainko lez, dan guztia, Jaungoikoak bereztu ebazan askatasunezko legearen aurka batzangotu naian.

347ko urtean Teodosio aundia igon eban kaisertzara, eta 395ko urteann il zanean, Ekialdeko Kaisartzak bere seme Arkadiori, eta Mendebalekoa beste seme Onoriori emonda, Ekialde ta Mendebaleko kaisartzak oso ori, betirako bananduta geratuko zan.

Godoak denbora orreitan, Unoren ekintzagaitik bananduta geratu ziran, Ego Mendebalean Bisigodoaren izenagaz eta Ostrogodoen izenagaz Ekialdean.

Ostrogodoak, Unoakaitik menperatuta geratu ziran Danubio ibaiaren inguruetan, ta bisigodoai mendebalde ta egoalderuntz bultzatuta, 409ko urtean Alarikok erroma saskildu eben, eta 476ko urtean Odroakok Mendebaleko Erromatar kaisertza ezereztu egin eban.

Erromatar Ekialdeko kaisertzak, 1.453ko urtean Turkoak ezereztu arte iraun eban, eta ortik aurrera Europako kaisertzaren funtsezko zentzuak Eleiza katolikuaren eskuetan bakarrik geratu ziran, naita Europaren berezko errigizarteak euren errege, jaun, edo ta kaiserrak euki arren, katolikotasuna aolkulari nagusi lez, danoen gaiñetik geratu zalako.

Edestilari batzuk, katoliotasun ori Aita Santua buru zala, aolkularitza bakarrik eroaten ebala esaten dabe, baiña egia beste gauzabat da, eurak goitik bera agintzen ebalako, edesti guztian ikusiko dogun lez.

Aztu barik, In Teodosio Arkadioren semea izan zanak, I Konstantinok bere asierazko kaisertzatik agertu ebazan erismeneko lege edo ta idatzitako lege guztiak batuta eta Justinianoren lege bildumagaz osotuta, *Teodosioren lege-sorta deituko zirenakaz*, oraiñarte jaurkitzen dauskuela ezeren lotsabage.

438 an In Teodosiok ekialdean, eta III In Balentinianok mendebalean, batera argitu ebezan lege orreik, ekialdean Justinianoren lege sortagaitik eta mendebalean godoen bardiñ antzeko legeagaitik aldatu arte.

Emendik aurrera, bigarrenengo aldizkariaren barriak izango direnak, Euskalerraren edesti osoa argitaratu arte.

1.9. I'go atal onen ondorioa.

Euskalerraren edestiko idaz lan onen I'go atal au, iru aldi edo zatitan bananduko dogu, lenengoan: *Zer izanda Europarentzat, Euskalerrria edo Euskaldun lez agertzea Europako mendebal onetan.*

*Jendekuntzazko arloan zelango neurriraiño eldu ziran euskaldunak lortutako izkuntza ta ekan-
duzko oitura demokratikoarekin.*

d) *Euskal edestia ta euskaldunak zergaitik ote, gaur ta beti daukaguzan “etsaiak” edo ta gaur euskaldunaren aurka diran “isterbegitasun oneik”.*

a) *Europarentzak euskalerrriaren bidetik, berba egitea:* Omosapienseren Afrikako leen zabaltasunagaitik berba egitea da.

Europaren askeneko izotz aldia urtzen asi zanetik, Afrikatik urtenda, Omosapiens edo Kromañon giza izan zalako gaurko itxuragaz Europa etorri zana, euren bizi bideak erreztu eta bertan egon ziran Neardentalekin ekarri eben askatasunezko jakituriagaz bat eginda, Europaren goi edo erdi inguruko lurralde otzak bertan itzita, Atlant eta Lurrarteko itsasoaren bazter inguruetatik zabaldua. Omosapiensak, oituran eta itz ots edo ta leenengo izkuntz antzeko bategaz urten bear izan eban Afrikatik, ezagutzen diran leenengo ikuntz guztiak euren barnean senidetuta dagozalako.

Akats aundi bat euki eben sortu ebezan leiñuetan, euren arteko bitarteak orduan oso urrintasunezkoak biurtzen zirelako, eta ez eben aukerarik euki, izkuntza baten egokitzeko.

Lan gogorak izan bear ziran leenengo bizitzaren ikaz lan bide areik, ogibidea ez zalako bakarrik leen ulertu bear zana, artean eta batez be eurekaz batera aztura bide baten ulermentzeko, izkuntza bat sortuz, gizaren eskubideak zaindu egin bear ziralako.

Ez ziran kikildu, eta lur, aize, ur ta itsas-abeldiai eta bizitzarako orokorrezko gai lur onek daukazan lore di, landare di, lur, are, arri, arrikatz, burdin mea, kobak eta gure lur onetan agertzen diran era guztiko irudiak zentzu aundienean izendu ebezalako.

Gure izen-abizenakaz eta ekanduaren arloetan bardin eginda, euskerearen berba bakoitza: *leku, era edo eta zeregiñezko gauzatan*, esaeraren zentzuzko argitasun ederrenean irudimenduta kokatzen gaitu, arteko arremantetan eta berbaz mintzatzen garenakaz, ikusten dogunaren ziurtasunezko eta xeetasunaren irudimenezko ulermenean kokatzen gaituelako.

EUSKERA.

Euskaldun arbasoak, milla-urte askoren ikerpeneko atun-bidean⁽¹⁾ edo eta azturabidetik⁽²⁾, eta euskal izkuntzaren itzak ondo erindu ta biribildutako lanean euren leketan ondo aokatuta, bete betean egokituta geratu zitezkenekin, euskal izkuntzazko ederrenetariko gaztelu bat eraiki eben.

Euskaldunak, berezkotasunezko azturan lortutako izkuntz ederragaz eta beragaz jendekuntzatuta ez gara izango, egia ta askatasunaren demokrazizko zaletasunezkoak ba ?.

Izkuntza, erri batek bere oiturazko azkuntza bidean ulermentzeko, izendatzen dan gauzari, gai lege eta zentzun oneko maillagaz berdinkatuta ondoren gure baitan irarri edo ta ezarrita, leiñu batek sortzen dauan tresneria da, eta ez edozelakua, euren senezko tresneria biurtzen dalako gure ekanduzko zentzua irarri egiten dautzagunean, senidetasunezko zentzuan alkartu egiten gaituna.

Gure bizi aldirako *euskaldunen ama* izendatu gendun, eta beren izena artuta, *euskal nortasundunezkoak izatera*, biurtu ginduzan.

Euskal nortasuna da ba gure euskera au, euskal leiñuaren sen ta sendiaren arduradunezko ardatza biurtu dalako, eta jakituriz ta bakezko ulermenean betetan badituguz gure azturazko eragilletasunak, urbillago eukiko doguz beste erriak, Jaungoikuari begira gurea lez, bizitza oneri ulermeneko erantzun eder bat emonekuak diralako.

Eta euskera au izan zan, gaurko ikertzaille jakintsuak esaten daben lez, Europaren mendebal onetan sortu zan izkuntza bakarra, Atlant-itsasotik Alemaniaren erdiraño, eta Piktoren Eskoziako iparraldetik Tarteso Turdetanoaren Betika edo Kadizeko egoalderaiño, euskeraren aztarrezko aibat toki izenetan goian argitu dogun lez, aurkitzen diralako.

Toki izenaren⁽³⁾ *zentzua argitzeko*, gogoko garrantzi aundian euki bear dogu, asieratik gaur arte izen jeografiko batek iraun dagian, izen ori errotsu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dauala toki orreitan, eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

(1) *Atun-bidean* = *procedimiento empírico*. (2) *Aztura-bidetik* = *crecimiento del conocimiento*.

(3) *Toki izenak* = *topònimos*.

Euskereak, Neolitikotik asi ta gaur arte ikutubako berbak daukaz, Asia ta Afrikako leen gizarteak euren errekarri eta abar emon eutsezan izenak: Ibai/rio, Ibi/vado, Ibar/rio/valle eta abar. Eufrates ibaia bera deitzen zan Buranu = Urnammu, zeru guztia URA izan zala gogoratzen ziralako: ura = ur+anu = Agua del cielo.

1.960-64ko urteetan, espainitar ele-jakintzaren irasle edo sortzaille izan zan Menendez ta Pidaltar Ramoneri entzun neuntson: **1.971 euskal itz tartean sartu egin bear eutsozala gaztelerazko latin kumeai zentzunean sendotzeko, eta ata guzti, ainbat itz geratu ziralako zentzunezko gabetasunean.**

Esan orrek, bera bakarrik argitzen dau **gaztelerazko izkelki edo latinkumea, euskerea eta latinezko bidetik sortu zala, erromatarrek menperatzaile lez euskal lurretara etorri ziranean, euren artean aitu edo esaten ebenakaz ulermen baten kokatu egin bear ziralako**, eta goian ikusi dogu, erromatarrek orduko denboran, zelako ikaspideak euki ebezan alkarrezko ulermenean ezartzeko.

Adibidez: gaztelerazko **playa** itzak, zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?. Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz⁽¹⁾ lisura, edo eta areatutako maskor ondarrarekin ?.

Euskerazko itza: **Laida, Ondarru edo Mutrikuren itsas bazterreko ondartzak**, ez ote gaitu kokatzen, ulermeneko zentzuan adierazi gura dogun, irudimenezko lekuan ?.

Euskereak, ez dau galdu bear, Omosapiens, Kromañon edo ta euskaldunak, milla urte askotako azturen, bizitzari adierazpeneko⁽²⁾ ekintzan emon eutsozan zentzuzko xeetasunetik ezer, or dagoelako gure jendekuntzaren garaipena eta batez be: **gure nortasunezko askatasunaren zentzuzko izatasuna.**

b) **Jendekuntza arloan zelango neurriraiño eldu ziran euskaldunak lortutako izkuntza ta ekanduzko oitura demokratikoarekin.**

Jainkoak bialduta, jakin miñagaz jaioten gara mundu onetara jaioten garan guztiok, azken baten gure aldetik bizitza, ontzat artu bear dan gauza dalako, eta bizitzak aurrera egiteko aurkezten dauskuzan egin bearrak, jakintzazko antolamendu on baten bearrean kokatzen gaitulako.

On eta txarrezko itzak aitatzen doguzenean baiña, zeri buruz aitatzen ete doguz ?.

Beti, Jainkoak mundu onetan ipinitako bereztasunezko legeari, danok bardin jaiota, danontzat lege bardiña dalako.

Mundu onek daukan legea gai guztientzat bakarra izanda, gure elburuzko eginkizunak lege orreitan oso osorik sartzen dira, bere une edo muiña gizartearen eskubideak dirala.

Gizartearen eskubideakaz borondate on edo nortasunean jokatu ezker, gure bizitza bakez eta berez, zuzentasunezko bake bidetik joaten da.

Baiña, norkeriz, sasi-jainkotasunean, edo ta menperatzailetasunezko elburuan jokatu ezker, dana biurtzen da amurrukeri, egon eziña, gaurko gudu sarraski eta urkapenak, ekaitz lege orreik amilburu bateko larrialdean kokatzen gaitulako.

Orregaitik, gure borondatearen autabidea amaibagekoa izanez gaiñ, laburra da, **on eta txarrezko gogamenean geratzen geralako:**

“Nortasunaren egiz” = berezko bereiztasunaren ordezkolegean egin ezker.

Eta “Norkeriaren maltzurtasunezko guzurrean” = berezko bereiztasunaren ordezkolegean aurkako legean egiten doguzanean.

Gauza guzti oneik ikasita gero, eta leiñuzko taldeetan Afrikatik, Asia ta Europa guztira urteteko egin ziran Omosapiensentzen zabaltasun oneik, gure euskal arbasoak ona etorri orduko ainbat milla urte euki eben bakoiztasunaren neurrizko antolamenduan kokatzeko, ama, aita ta seme alabaren elkartasunak, bizitzazko len oiñarriak ulertu ondoren eginda.

Auzotasunezko antolamenduan zabaldu ziran Asia ta Europako lurraldeetatik, leiñuzko senidetarte bakoitza bere batzar nagusiaren jaurkintzapean.

Oraindiño, gure euskal jaurkintzazko zentzuan daukaguna.

(1) Arearen leuntasunagaz = lisura, tersura de la arena. (2) Bizitzari adierazpeneko = interpretaciòn a la vida

Asierazko denbora orreitan, ez dodaz santu bizitz baten kokatuko gure arbasoak, gaurko lez galbidezko tentaldi bardiñak eukinda, gudak, giza jale, ume ta gizon emakumeen odolezko eskeintza larregi, eta besteak eukiten ebena nor beraganatzeko asko egin ebezalako gai berezkotasunaren legezko ulermenera eldu orduko.

Baiña ortik aurrera esan geinke, ondo baiño obeto eroan ebezala oituraren jakintzazko egokitasunak, askatasunezko demokrazi eder batera eldu zirenak.

Nortzuk ?.

Europako mendebal onetan ez ziran egon euskaldunak baiño, Omosapiensen leenengo zabaltasunezko kokamenetik eurak joan ziralako azturazko ekintza baten lur onetatik zabaltzen.

Iberoak ?. Ez ote ziran euskaldunak ?.

Iberoen etorkizunak, euskaldunen igidura edo mugimenduak ziran Europako mendebal guztitik zabalduarte, arik eta Keltiarrak K.a.2.000 urte ariñago, orduko gesalduta egon ziran Alemaniako lurraldetara eldu ondoren, VI-In gizaldi arteko urtetan gure artean agertu arte.

Aurrerakuntza aundia ekarri eben, ekialdeko lurretatik alderrai gure artean agertu, eta bakez konpondu gintzazan arte.

Orregaitik esaten eben erromatar filosofo, mapagille, eta elerti zale jakintsuak, euskaldunak eurak etorri orduko ezagutzen ebezala: lurgintzazko tresneria, itsaskuntza, ontzigilletasuna eta merkantil gauzatan erabilteko tresneriak, Betikako Turdetanoari, jendekuntzazko mailla aundia emonda.

Keltiarrak askatasunaren zaleak izategaitik, erromatarren etsai amorratuak izan ziran, baiña ez eben euki aukerarik erromatarrak euki eben indarraren aurka egiteko eta aienatu, suntsitu edo euskaldunen artean urtu egin ziran, Europa guztian egin eben antzera, itsas bazterreko ingurutan ezarrita.

Euskaldunak ez eben alango arazorik euki, kartajinezarekin ikusi ebelako zelako indar eta almena euki eben erromatarrak euren aurka joan ezkeru, eta euren agindutara jokatzera erabagi eben, Euskal gizarte bezela irauteko.

Euskaldunek, euren oituraren demokrazizko izatasunetik ez eben galdu ezer, gero K.o. Vn gizaldian erromatarrak ezereztu ziranean, euskaldunek bereala berreskuratu egin ebezalako euren oiñarrizko demokraziaren oiturak.

Euskaldunen **egia** orregaitik, Europako mendebal onetan eta ekanduzko ardurean keltiarrak agertu orduko, gauza guztien gaiñetik, askatasunaren demokrazizko mail neurri aundiak lortu ebezala, euskal baitan ondo baiño obeto oiñarrituta egozanak.

Eta Jainkoaren legepean, gizaren arteko ordezkako ardurak, lotsakizun aundiko ordezkartitza bidetik, euskal barnean baituta geratu jakozan askatasunaren demokrazizko mailla aundi orreik dira, ordezkartu dauan sari bakarra.

Ez ote da naikoa ?.

Zer egin ?.

Jainkoak ipini euskun legeari begiratutako ordekaritzan naita naiez jokatu, mundu onetan gure euskal askatasunezko elburuak lortzeko, beren legeak diralako ordezkatu bear doguzenak.

Askatasunaren parebageko demokrazia lortu zan Paleolitiko Neolitiko bitartean Atlant Jendekuntza deitu zanagaz.

Betiko menperatzaillak eta batez be Nizeako batzarretik batzango zaleek, ezergaitik be ez dabena entzun gura, eurak daukiezan menperailletasunezko asmoak agirian geratzen diralako.

Eta au da nire ustez, menperatzailletasunezko serbitzura dabiltzan edestilariak ostonduten dabena, beste mundu bateko jendekuntzak aipatuta lotsarik bage.

d) ***Euskal edestia ta euskaldunak zergaitik ote daukaz gaur eta beti daukaguzan "etsaiak" edo ta gaur euskaldunaren aurka diran "isterbegitasun oneik".***

Paleolitiko Neolitiko alditan lortu ziran *askatasunezko demokraziak* dira errudunak, betiko gaietsi edo gai eritziko⁽¹⁾ batzango zaleai eragotzi edo traba egiten dautsielako, eurak, menperatzaillletasunaren batzangotasunerako daukiezan asmoakaz.

Eta orretarako, ia lenengoetatik asita argituko dogu menperatzaillletasunezko arlo ori.

Mundu onentzako, persak euki ebezan menperatzaillletasunezko asmoak:

Mundu onetan, orduko denboretan ezagutzen ziran jendekuntzazko erri edo leiñutatuko gizarte ta eurak kokatuta egon ziran lurak batzango baten menperatzeko asmoak, balekite ariñagokoak izan, baiña Akab eta Babiloniatik orain 4.200 urtetik onantza asita izatea.

Persen errege Ziro⁽²⁾ aundiagandik asi ta, I Dario⁽³⁾ ta I Jerjes⁽⁴⁾ izan ziran mundu onetan orduan ezagutzen ziran jendekuntz guztiak eta Europako gizartearenak batzangotu gure ebenak, euren menpean morroi bizi gindezan.

Orduko Persa eta Griegoen jendekuntzak ekanduzko oituratan, bata: ***Menperatzaillletasunezko morroitasunaren gogokoa oso osoan izan zalako.***

Eta bestea: ***azturazko gizabidean ekanduzko mailla aundira elduta, askatasunezko demokrazi aundi baten sinismenekoa izan zalako, begiz begiko aurkakoak⁽⁵⁾ izan ziran.***

Eta Persaren gogoko eritzi orreik beteteko, Zirok ekialde guztia menpetuta, bere ostean Dariok, 499-494ko urte bitartean, Joniko erri batzuk bakeztuta, K.a. 490ko urtean Maratonen, Greziari emon eutson leenengo eraso aldia.

Greziatar gudalozteak, prest agertu ziran erria babesteko, Milziadesen agindupean egon ziran 9.000 Espartar gudariakaz, Dariok eroan ebazan 20.000 gudariren aurka.

Dario galtzaille agertu zan eta bere seme I Jerjesek Ejiptoko iraultza bakeztuta, 480ko urtean emon eutson Greziari Tesalikako mendi lepoaren Termopilasetan⁽⁶⁾ bigarren eraso aldia.

Eta borroka orretan garaille agertu arren, egun orren arratsaldean Salaminako itsasoan Temistoklesek emoneko pasara ederra artuta, I Jerjesek Mardonioaren agintaritzapean gudalozteak itxita, ekialde txikerreko Susan, euki eban kaisar jauregira joan zan.

Mardonio, K.a.479ko urtean Plateako⁽⁷⁾ borrokan be galtzaille urten eban, Pausaniasek espartarren alkartsunezko gudalozteak bideratu ebazanen aurka, eta Mikalan egun berean itsasontzidi edo guda ontzidien itsas borrokan Persiarrak ondamentuta geratu ziran.

Eta emen bitxi bat: Mardonio Jerjesen lengusua, Greziak eukiko eben urrengo satrapa edo jaur-laria il da, Griegoak bere oialpe edo oial txabolara⁽⁸⁾ joan ziran, eta an egon ziran urre ta diru-althorak ikusita, euren arritasunezko itauna: ***Gizon onek baiña, zergaitik gura eban ainbesteko premiñatasunagaz gure erriak menperatu, aiñ aberastasunezko altxor aundiak eukin da ?***, izan zan.

I Jerjes il eben, eta bere seme II In Jerjes asi zan Greziaren aurkako erasoan, baiña au be alperrik, euren artean trebetasunezko nor geiagoan asita, bera be il ebelako, agintaritza aste gitxi artu ondoren.

Greziarren demokraziari ezker, or geratu ziran ekialdeko batzango-zale faziztak Europa menperatzeko euki eben asmakuntzan lenengo aldiz, ta betiko, Europeotarrak ekialdeko itxuran agertu gindezan alegin guztiak.

Euskalerrria, Grezia ta Fenizia baiño zarragoa zan, auek Paleolitiko Neolitiko ostetik, alderraiezko bilbakuntza⁽⁹⁾ bidetik gero, leiñuaren senditutako antz baten alkartu zirelako.

Ez jakien sortu Euskalerrriari sortu jakon lez, Europaren mendebal onetan agertuta, berton eta bakardade aundian euskaldundu eta erritartu edo senidetartu egin zala.

(1) Gai-etsi edo gai-eritziko batzango zaleai = impositores materialistas. (2) Ziro = K.a. 560-529ko urte bitartean bizi zana. (3) K.a.558-486 eta errege 521- 486ko urte bitartean izan zana. (4) 519-465ko urte bitartean bizi zana. (5) Begiz-begiko aurkakoak = diametralmente opuestos. (6) Termopilasetan = desfiladero de Tesalia, que tambien se traduce como "puertas calientes". (7) Platea = Greziaren antziñako uri-bat izan zana eta Tebas en Ego-Mendebalean kokatuta egoana zana. (8) Oial-txabola = tienda de campaña. (9) Bilbakuntza = evolucìon.

Ez zan, ekialdetik etorten zan menperatzailetasunaren keiñadura ori bakarra, bertan be eta Fenizio, Griego, Etrusko eta abarren salerosketa bidetik, diru zalekerizko⁽¹⁾ biurtuta, nor geiagoko leian biurtu ebezalako saleroste orreik, gaurko egunerarte iraun dauana.

Orregaitik Fenizio, Griego, Etrusko, eta Kartagoaren aurkezpen bat egin bear dogu lenengo, erromatarraz amaituta, etsaiezko arrazoi zeatz orreik bildumatuta, argitu daiguzan nundik agertzen jakozan Euskalerrriari aurkako amurruak.

1.11. Fenizia' ren aurkezpena.

K.a.1.250eko urtean agertzen dira fenizioak ondo ezarrira Siriako izparter edo itsas bazterrean, Libanoko mendikateetan eta lurrarteko itsasoaren artean.

Bere uri nagusienak, Araduz⁽²⁾, Berituz⁽³⁾, Sidon eta Tiro aberastasun andikoak, Akka⁽⁴⁾, Zesarea, Jaffa, Askelon, eta Gaza.

Mariñel trebe ta itsaskuntzan indartsuak ziran euren arrain ta gaziketak⁽⁵⁾ salerosketetan zabalduz saltzeko eta irasten ebezan uriak kolonigille lez babesteko, adibidez: Txipre, Rodas ta Kreta Zikladaseko ugarteetan, Ejeoko itsasoan Zilizia, erdi ugarte onetan Betika edo Kadizen, eta Britaniako ugarteetara elduta gero, Afrikako Utika eta gaur Tunez'eko Urian, len Kartago zana.

K.a.875-600eko urte artean, Ejipto eta gero Asiritarragaitik menperatuta egon ziran.

K.a.600-540ko urte bitartean, Babilonioagaitik.

K.a.540-333ko urte bitartean, Persarengaitik.

Alejandro Magnok, Issusko borrokan Persak menperatuta, Feniziara joan zan eta Sidon eta Tironen sartu zan⁽⁶⁾.

K.a.64ko urtean erromatarrek, Fenizia, Siriako lurradeagaz alkartu eben, eta or amaitu zan Fenizia erri lez, naita gero Afrikaren muturreko Kartagorekin iraun.

Grezitarrak, laterrizko urietan ezarrira jaurkitu ziran, eta jendekuntzazko jakituri aundia euki ebelako gizarte arlo guztietan, euren bizitza ordezko lanean antolatuta euken lez, Lurrarteko Itsasoaren bazterretatik kolonogille eran irasitako urietan, zabaltzen ebezan euren salerosketak.

Adibidez: Ejeo itsasoaren ugarteetan, Asia Txikerraren itsas bazterretan, Joniko itsasoaren ugarte ta lurrarteko Itsasoaren izparterretan, Italiako Napoles eta Tarenton, Frantziako Marsellan, Anpurias eta erdi ugarte onetako Rosas, eta K.a.631ko urtean Libiako Zirenen Afrikako itsas bazterretik 15km'ra dagoenan.

K.a.XIn gizaldian Italiako Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egon ziran Etruskoak be bardiñ, oneik be jendekuntz eta jakituri aundikoak ziran, ta Italiako erdiugartearen erri geienak menperatuz edo irabazita euki ondoren, salerosletarako irasi ebezan uriak Italiako iparraldetik Po ibaiaren ibar ta Italiaren ego aldetik Kanpainiako ibarretaraiño eldu ziran.

Eta eurak irasten ebazan uriak Italiako bazter guztietatik babesteko, K.a.753ko urtean erromatar gudalozteak irasi ebezan, gero eurakaz Erromako erregetza irasi ondoren, kaisartza lez, Etrusko eurongandik asita danak iruntziko ebezanak, Europa, Asia eta Afrikako izkuntz ta erri guztiak milla zatitan banandu ta lokaztu egingo ebezanak.

K.a.814ko urtean Fenizioak Afrikan irasitako Kartagoko⁽⁷⁾ uria, edo kartagotar oneik be bardiñ antzekoak, salerosketetan ibilteko eta kolonigille lez, Lurrarteko Itsasoaren inguruetan eta batez be erdi ugarte onen Murziako lurraldeetan Kartajenako uria eta Siziliako ugarteetan ainbat uri irasi ebezan, baiña erromatarren gudalozte indartsuak agertuta, beragaz ainbateko urtetan odoljariozko borroka puniko latzetan ibilita, orduan ezagutzen zan mundua gorritz margoztu eben, arik eta erromatarren indarragaz ezereztu ziran arte.

(1) Diru-zalekeria = mercantilismo. (2) Araduz edo Arwad = Siriako Fenizio uria itsaso bazterrean. (3) Beritus = gaur Beirut dana. (4) Akka = erdi mendean Tolemaida eta San Juan de Akre deitu zana, **Iztun edo Testamentu-zarren Atxo dana, eta barriaren Tolemaida**. (5) Gaziketak = peska tratada con sal para su conservación. (6) Sodon eta Tiro = aberastasun aundienetariko urietan. (7) Gaur Tunez kokatuta dagon lekuan egon zana, Fenizioak irasita.

K.a.753ko urtean Etruskoaren bidetik jaio zan Erroma kuadrata fazizta ori be bardiñ, naita onen lana menperatzaillarena izanda, bere etenbageko gudaren bizitz orreitan, euren oroikarri, urak eroateko ta ibili bear ziran bideetatik kanpo ez ebena al izan ezer irasteko gai, eta bai alderantziz menperatu egiten ebazan erritarrai ezer irakatsi barik, hurrak eukezan aberastasunak ta egiten ebazan lan guztietatik lapurtu baiño besterik ez.

Oneik, goiko erromatar edestian ikusi dogun lez, ez ziran iñori ezer erakusteko gai, eta alderantziz bai, euki eben aberastasunetik al ebena artzen asetu arte.

Afrika, Europa guztia eta Asiatik al ebena menperatzera eldu ziran, baiña erromatar oneik ikusten eben alguztia artuz gaiñetik, ezertan be ez eben lagundu.

647 urte, etenbageko gudan ibili ondoren, eta Afrika, Asia, ta Europa guztian euren legeak danon lepoan gaiñeratuta odolez margoztutakoaren truke, ondore agertu ziran menperatzaillak salerosketaren ordezkariatzako merkataritzatik, merkantilismoaren diruzalekerira aldatu ziran, eta gauza orrean bidetik aldatuko ziran, Paleolitiko Neolitiko aldi bitartetan lortu ziran askatasunezko demokraziaren mailla aundiko oiturak.

Napoleonek esaten eban lez, ***bere kaisertza, berak gudalozteakaz babestu al eben denboretaraiño iraungo ebala***, eta ori da mundu onen edestia. ***Ez ote gara lotsatuko ?***

Erromatarrei bardiñ sortzen jakien, eta maldabera ori goian esan dodan lez, K.a.240ko urtetan, Sikka Beneriako urian asi jakien, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, errigurasoen sendiakaz alkartu ziranean, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko.

Menperatzailletasunezko ekandurara⁽¹⁾ aldatu ziran ortik aurrera, eta odoljariozko ekintza baten eldu ziran I Konstantinoren denboretaraiño, onek aurretik erromatarren zoritxar au ikusita, zuzentzeko antolatzen asi zana.

K.o.324eko urtean Konstantinok Liziniori irabazita, Mendebaleko ta Ekialdeko kaisargoetan, agintari bakar lez geratu zan.

K.o.325eko Loraillaren 20rako I Konstantino, I Silbestre Aita Santua ta Osio Kordobako gotzaiñagaz alkartuta, baita San Atanasioren aolkularitzagaz, Nizeako I Eleiz Batzar Nagusia batzeko agindu eben.

Kordobako Osio gotzai au, antzerki orren antzezleri aundienetariko bat izan zan.

I Konstantinok, Arrianoren ikaspidetza ziñauskerira gaitz etsiratuta ta baztartuz, Arrio eskomunikatuta bere lagun Nikomediako Eusebioren ondora iges egin eban, ta I Konstantinok aukeratu eben katolikotasuna, siniskizunezko dogma edo aitortzan⁽²⁾ biurtu eban.

Konstantinoplako eleiz batzar onetan, beste gauza artean, Arnas Saindua edo Izpiritu Saindua be, Jaungoikoaren neurria igotea erabagi zan, eta ondore, Irukoitz Deunaren irakaspeida ezarri.

Jaungoikua izango ote zan almena emon eutsona, bere izatasuna antolatzeko?.

Irukoteko irakaspidetza onen aurka egon zan Arrio gotzaiña, eta bearrezkoa aurkeztu jakien bera baztartzea, ziñeskintza orreik ezartzeko.

Gaiñera, Jaungoikua ta gizon emakumearen arteko artu emonetan, eurak ordezkari bakartiak izan ba ziran lez ziñeskaitu eben, eta ortik aurrera, gura izan edo gura barik, katolikotasun ori alderdikidetuta, Jaungoikuak mundu oneri ipinitako legearen aurka geratu zan, berezko erritartasunetik asita, berezko gauza guztiaren aurka kokatu zalako.

Diru zalekeriaren batzangotasunezko merkantilistak be, katolikotasun alde kokatu ziran, eleizaren katolikotasun ori mundu guztiko errigizartetan ezartzeko arimaren gauzak kontrolatzen eban lez, errigizarteak bizitzeko bear ebezanak euren kontrolpean eukiteko.

Jainkoak sortu eban Izadi oneri baiña, beren barneratutako legeakaz erperatu eutson lez, batzango zale orrean asmakuntzak aurrera eroateko, etenbage ta Izadi ta errigizartearen izatasun edo nor-tasunezko baitaren gaiñetik egin bear dabez egin bear dabezanak, bai eta Jainkoak ipinitako lege

(1) Ekandurara = *costumbre, ejercicio moral o usanza.* (2) Siniskizunezko aitortzan = *creencia o credo del katolicismo, dogma.*

temati ta emankor guztien gaiñetik, eta odoljariozko borroka baten gatoz edesti guztitik, menperatzailetasunezko alegiñ orren aurka.

Erromatar katolikotasunak, ez dau gura jakin ezer Jaungoikoak danon barnean ipinitako baitagaz, eta gitxiago Jesusek ondo baiño obeto argitu euskun aolkularitzagaz.

Batak, gauza guztien gogo ta erabilketarako ez dauskuelako izten, *itxurazko ekandua baiño besterik*, norkeriaren zoritxarrezko garaipenetatik, uts edo lokatzazko siniskerian ezarri gindezen *ta dan guztia diru edo urrezko txekorraren serbitzura egonda* nortasunean ustu egin dabezan errigizarte orreik batzangotuz, erreztasun guztiagaz jaurkitzeko.

Besteak ez. Besteak danok daukagun baita, egarriz gogoratzen dausku bereztasun oneri Jaungoikoak ipinitako legeak, Jesusek irakatsita ikusiaz euskun lez, eta ordezkariartzazko arloetan zuzentasunezko ekandu bidetik, giza ta errigizarteak daukazan eskubide bardiñetan kokatzen gaitu.

Orregaitik, Nizeako eleiz-batzarretik ona ulertu egiten ez dana, Jesusen irakatsiak eta alderdikierizko katolikotasun siniskai orreik, biak zorro baten sartuta alkar ekarte, bolbora edo lerrautsa ta su piztutako poxpoilloa, zorro orren barruan batera ekarte lez izaten bada.

Euskalerrriak bere askatasunezko demokraziagaz eta nortasun aundiz irakaspide orreik gainditu egin dabezanak, nai eta lur zabaltasunez ainbat murriztu.

Euskal edestia ta euskaldunak zergaitik ote daukaz gaur eta beti daukaguzan "eetsaiak" edo ta gaur euskaldunaren aurka diran "isterbegitasun oneik" ?

Euskaldunen askatasunezko demokraziaren sinismenak jakinda zeintzuk diran, errez da jakitea zein da daukan etsaia eta berari agertzen jakozan isterbegitasun orreik.

Bizitzaren errigizarteak jaurkintzeko, arau-bide bi dira, nik ezagutzen dodazanak,

- a) Jaungoikuak Izadi au berezkatu ebanean, ipini eutsezan bereztutako legearekin jaurkituta.
- b) Edo gizonak asmatzen dabezan legeakaz.

Eta emen agertzen da milloiko itauna: ***Al osokerizko eritzian zelan jaurkitu baiña, Izadi au zer dan eta zergaitik jaioten garan gai bizi onetara ez dakien eskutik ?***

Orregaitik eta itandu onetan ikusi dogun lez, alderdikidetutako aberrikerizko katolikotasun⁽¹⁾ orretatik urtetan diran etsaiak, gitxi uste dozue direla ?.

Euskaldun arbasoak, beti jaurkitu ziran gaia tresneri lez daukiela, eta zergaitik itandu egiten ebanean, danak eskubide bardiñekoak izanda Jaungoikuari begira, zuzentasunezko ekanduetan sartzen ziran, bide orretatik Jaungoikuak bereztutako aginduetan sartzen ziralako.

Orain, Euskaldunaren askatasunezko demokrazia zelan ulertzen dan aurkeztuko da-utsuet, jakin dagizuen, euskereak zeri buruz eta zergaitik bere askatasunezko demokraziaren zabaltasunetik, norkeriaren aurka etenbageko borroka zital baten bidez, galdu dabezan lur zabalak, gaur gagozan hurraldeetan geratu arte.

1.12. Berez sortua = Jaiotza = Aberria

Sarrera:

Gaur egunean arritzekoa da, politikuen artean erabilten dabezan jaiotzaren iru zentzu oneik ikustea. Bakoitzaren alderdi aldera jokatuaz gero, guztiak balio dabezala esan leike.

Mundu onetan, sekula ez dot uste ainbeste maltzurkerizko saldukeriaren adierazpenean ibiliko zirenik, Jaungoikuak bereztutako gauzekaz.

Nik, iru itaun galdetuko neuskie politiko onei:

- a) Gure antolamenduzko ardurak, berez jaiotasunezko eskubideen gaiñetik ete dagoz ?.

(1) *Aberrikerizko katolikotasun = nacional catolicismo.*

- b) Zer ulertzen dogu gure ardurazko ekintzan, Jaurri, Jaurkintza eta zuzenduaren itz argigarriakaz?
d) Jaungoikoagan sinisten ete dogu ?.

Berez sortua:

Berezitasunezko mundu onetan dan guztia, sortarazteko antolamenduan egokituta dago, eta ez dago gure almenean ezer aldatzerik.

Bere emankortasunak, ez dauka amaierarik, eta gogamen guztiak sorraldirako bideratuta dagoz, Jainkoaren aldetik ez dauskulako beste biderik itzi.

Nai gaian, nai gure oldozmen edo gogamenean, guretzat dana eginda dagoelako beste aukerarik gabe.

Eta gaiezko sorraldian era barriak sortuten badira, gure gogamen onagaz danon artean bakotzari daukaguzan zor eskubideko almenagaz, ekanduz banatzeko arduratu gindezen da.

Banatzeko arlo onetan baiña sortzen dira, negar barregarrizko gauzak orreik, batzuk, geiegiko goseagaz dabizelako.

Ez dira oartzen edo konturatuten, mundu edo ludi au, fisikoa dala, eta leku batetik neurritz kanpo artzen danean, besteak neurri bardiñako gabetasunean geratzen dirala.

Jaiotza:

Mundu onetan, *jaiotza* ikusten dogun lez berezkoa da, eta iñork ez dauka eskubiderik, bestien eskubidetik ezer artzeko, danok bardin jaioten garalako.

Zergaitik ?.

Emen Jainkoaren miresgarritasuna.

Jainkoak, aberetasunezko gorputz oneitan, gure arimak bialtzen dabezalako bakoitza bere baitagaz, arrazoitasunezko almenean ulermendu gaitezten.

Eta zer esan gura dau orrek ?.

Arima bakoitza, ikertzailetasunezko mundu onen *lege artera* bear dauan tresneriekin bialtzen dauala, *lege* orreik ulertuta, garaipentsu agertu gaitezten.

Tresneri orreik zeintzuk dira ?.

Ikertasunezko mundu onetan, *nortasunaren arrazoitasunezko arimak izatea*, bakotzari, arteko ardurapean sartzen gaitu, eta orren esangura, *gai eraldakorraren eginkizunezko guztiak*, *nortasunaren ordezkariatzako ardurapean ezartzen dauskula esangura dau.*

Or, non agertzen jakun tresneri aundi ta ederrenetariko bat, *nortasuna*, besteak, berezkotasunaren legeak dira, eurokaz batera erperatuta gagozenakaz.

Orregaitik eta beste aukerarikbage, gure ziurtasunezko antolamenduetan agintzen doguzan legeak, berezkotasunaren legean oiñarriritu egon bear dira, gure arrazoi bidean, Egilleak bereiztutako legeen orokortasunetik artuta izan bear diralako.

Eta ori da sortzen jakuna mundu onetan, Jainkoak bereztu ebazan legetik kanpo iñork ez daukala eskubiderik beren legerik atarateko, *norkerizko legeetan biurtzen diralako.*

Aberria.

Iker gai mundu onetan babesaren billa, gure berezitasunaren lojikazko antolamenduan senituta, leiñutu gintzezan, leiñu artean auzondu, eta lurralde aundi baten aberritu, mailla bakotzak, *nortasunezko neurri bardiñak eukin da.*

Izkuntzan, oituran, eta erlijioaren sendimenduzko ulermen baten sartu giñelako, bakotzaren nortasuna, lege bereizketaren ekintzazko goraldian erkidetasunezko nortasunera berez eltzen da, eta or, non sortzen diran *berezko, edo ta jendekuntzazko aberriak.*

Eta gure aberria, *Euskadi da*.

Norkeri bidez, iñork ez dauka eskubiderik, iñoren nortasunik menperatzeko, eskubide *bardiñekoak garalako*.

Eta gaur, makiña bat norkeri dabil, bestien eskubidetik lapurketan eginda, gai onetan batzuk, sasijainkotasunean bizi gurean.

Bakoitzaren nortasunezko arimak emen itxi bear doguz, ordezkaritzazko bizi joko ortan ibili doguzan gaiezko tresneri guztiak, Jainkoak gura daben arte era barriak sortu daitezzen, eta ez dago egi aundiagorik.

1.13. Euskalerrian.

Gure gaurko Euskadin ikusten dogu, nasai dabizela guda indar nagusienetan ezarrita dagozan menperatzailearen norkerizko guzurrak berezko legearen aurka, menperatuak daukien egizko eskubideekin gorriak euri esan arren.

Ez dira konturatuten, mundu onen berezko legearen aurka, guzurrak, okerrezko gauzak dirala, eta iñork bere zentzunezko barnean ez dauzala onartzen, bestien aurrean guzur orreik aldarrikatu arren, oiñarrituta daukagun *baitaren* aurkakoak diralako.

Orregaitik *arrazoi guztia* gure alde egonda, ulertu eta jakin bear dogu, zelako jokoan sartuta gagozan.

Izkillu barik, egia ulertzeko arrazoiaren joko gauzak izaten ba dira, izkilluak soberan dagozelako.

Len izkilluaren guda indarrez menperatu ba ebezan Euskalerriko gizarteak, gudaren keiñuakaz ibilita be gaur, ez daukie orren aukerarik, jaurkitzeko daukaguzan laterri arrotz oneik lapur alperrrak izanez gaiñ, munduan artuta dagozan erabagiak, demokraziruntz bideratuta dagozelako.

Eta goian esan dodan lez, negar barregarrizko guzur orreik lotsa emoten dautsielako, eurak be ez dakie zelan goxokiztu, Jangoikuaren bereztasunezko bidetik lortutako jendekuntzaren aurkako berba orreik esaterakoan.

Sorterrizko nazio edo laterria, berezko nortasunean ezartzen dana da. eta iñork ez dauka eskubiderik norkerien bidez menperatzeko.

Or, euskaldunen ardurazko eginkizuna.

1.14. Askatasuna.

Sarrera.

Gure eginkizunetan, legediaren arauak eta demokrazizko itz bi oneik, mundu onen berezkotasunaren legean oiñarrituta daukazanakaz, uste berean betetan badira, gizartean, *askatasunaren* itza, berez agertzen da.

Euskalerrian eta beste berezko errietan zoritxarrez baiña, beste gauza batzuk sortzen dira, XIXⁿ gizalditik ona, menperatuta gagozelako.

Menperatzaileak, demokratak dirala esaten dabe, eta ortik asita, ez dago guzur aundiagorik.

Demokrazia, bakotzari bere eskubidean zor jakona emotea esan gura dau, eta Euskalerrian, bere jaiotasunaren aberriko laterritasuna.

Zelan baiña itz bi orreik, aditz joko onenetan ezarri, bitxikeri oneik entzuten ba doguz⁽¹⁾:

PSOE ez da izketatuko espainiako lege nausi edo konstituzioa autsi edo zapaldu egiten dabenakaz, Euskadirentzako euren asmo montio, eredu edo eskemak daukiezelako.

Eta beste au: *Ate guztiak ertsi edo itxi bear jakiez, nor beren erabakian edo autodeterminaziñoaren ameskerian dabizenai*⁽²⁾.

(1) Rojo`tar Jabier, senatore-batzarreko lendakaria`k, DELA`n 2.005`ko Urtarrilla`ren 13`an. (2) Rajoi`tar Mariano`k DELA`ko zerrenda berean.

Itz orrei demokraziaren zentzua, non atzeman edo onartu ?.

Batzuentzat gaur egun, demokraziaren itza, argi dago itz-bat baiño besterik ez dala, orregaitik sakondu bear doguz gure eginkizunaren ekanduak demokraziruntz, gure nortasunaren eskubideak lortzea gura ba dogu.

Menperatzaileak or, ez daukie zeregiñik.

1.15. Legea.

Legearen zentzuzko arauak, erkidetasunezko gizarte guztia beartzen dau ekandu edo oitura baten lan egitera, askatasunezko elburuak lortu gura ba dira.

Erkidetasunaren zentzuzko elburuak lortzeko, beste gauzarik ezin dalako egin, esan nai dau orrek. Jainkoak ludi oneri oiñarrituta daukazan bezala, legearen ezarpenak, berezkotasunaren arduragaz aukeratuta, danon arteko kargutan edo jaurbidean artuta egin bear dira, erritar borondatea dalako. Legearen nai aundiena, *izatea* da, erkidegoko gizarte guztiaren naikundea gogaldu eta egian atseginduten danean.

Ori dalako jaiotzaren elburua.

Gaur egun, elburu ori zelan lortu ?.

Erreza da: *Jainkoak, mundu oneri ipinitako legeak beteta.*

Ez daukagu beste biderik Jainkoaren askatasuna lortu gura ba dogu, gu be, ardurazko lege orregaz erperatuta gagozelako.

Mundu onetan orregaitik, Jaungoikoak ipinitako legetik kanpo ezin dira egizko legerik egin, edo *beren* zentzuzko legetik ez ba dira gogoz bakandu edo bereizten beintzat, gure eginkizunak, gizartearen eskubideekin adostasunean egon daitezkan.

Europa zoritxarez gaur, oraindiño erromatarrak asmatutako menperatzailetasunezko legeekin dabil.

1.16. Demokrazia:

Erriaren aginteak, bere erritarren autarki bidez egiten danean, esan gura dau itz orrek.

K.a.VIIIn gizaldian, Grezia`k Ekialdeko Asia Txikerretik euki ebazan sortutako erri edo kolonitik agertu ziran egarri orreik, erriko gizartearen askatasunezko aztura bidetik.

K.a.Vn gizaldian Periklesek antolatu ebana, *erritar guxtien eskubideak babesteko naian.*

Gora bera asko euki dauz demokraziak edestiren zear, asko izan diralako norkerietan ibili diranak. Gaur be begitzea baiño ez dago, zelako arazoak daukaguzan, XIXn gizaldian izkillu, lepoak mozteko eta gudalozteakaz ipinitako laterri onekin.

Laterri orrei ezker, Demokraziaren itza entzun, entzuten dogu. Ikusi, igarri, oartu, nabaritu edo usaindu baiña, iñundik iñora be ez.

Berez jaiotako erri asko dira Euskalerrria lez, oraindiño, milla-urte askotako bizitzan ondo oituratutako ikaskizunak, euren izatasunaren jakintasunezko barruan, daukiezan indar guztiekin zaindu egiten dabezanak.

Eta ori da azken baten borroka bakarra, gizartearen zor eskubideak ekandu onenean banandu daitezen. Batzuegandik, norkeri bidez erabilten diranak, daukien sasijainkotasunaren asmakizunak beteteko.

1.17. Askatasuna.

Askatasuna, ez da beste gauzarik, nortasunezko gizartearen zor eskubideak, ardurazko begirunez edo lots aundian banatzen diranen ondorioa baiño.

Nortasunaren ardurazko lotsai, bakea ta lasaitasuna emoten dautselako.

Gaurko egunetan, irumillagarren gizaldian egonda be, bakea lortzea ez da gauza erreza, sasijain-kotasunezko *naikerian* dabizenak gitxi izanda be, esku artean indar asko daukielako, mundu onen gizarte guztia, lotsaren arduratik atarata eta zoraldira bideratuta, kaisar batzango zaleak daukien asmakizunetan menperatzeko.

Euskalerraren gizaseme alabak konturatu bear gara, menperatzaillaren guzurak argi ta agiri agirian itzi bear dirala eta mundu ta Europako erri guztiaren ulermenak argitu eta gure erriagaz egiten daben zuzengabekerizkoak erakutsi ondoren, euren laguntzagaz lortu daigun bearrezkoa dogun askatasuna, *eta ori demokrazian, ekanduaren etenbako lan sakonak eginda lortzen da.*

1.18. Gizartearen eskubideak.

Sarrera.

Jainkoak, gure *arimak*, ikertzailletasunezko gai mundu onetan, berak ipinitako legeartera bialtzen gaitu, bear dogun tresneriarekin.

Tresneri aundiena, gure arrazoizko *arima* da, danok eskubide ta zor bardiñakaz gaituta. *nortasunaren* gizamailla emoten dauskulako.

Eskubidea, orregaitik da *nortasunarena*.

Ardura be bai.

Errez da orduan ulertzea, mundu onetan, ez dagoela eskubiderik ordezkorik bage.

O.N.U.

Munduko bigarren atsekabezko gudatik urten gendunean, eta zelako astokeriak egin ziran ikusita, munduko nagusien artean oartzen asi ziran, edozein arazo konpontzeko beti borrokan ibili bear barik, erri ta errigizartearen eskubide guztiak zainduta izan bear zirala artzen ziran erabagiak. Berrogeitaamaika aberri edo nazio izenpetu ebena.

1.944an, Txina, Estatu Batuak, Frantzia, Ingalterra ta Sobiet Batasunaren burukideak, Eskoziaren Dunbartoneko errian batuta, bideratu ebazan 1.945eko Jorraillaren 25etik, Bagillaren 26raño Kaliforniako San Frantzizko urian egingo ziran batzarrei.

Kaliforniako San Frantzizko urian berrogeitamaika nazioen artean egin zan batzarrari elburu nagusi lez: ziurtasunezko babesa emotea izan zan erri guztien arteko bakeari, nazio edo laterri artean, adiskidetasunaren berogarritasuna sortzea izan zalako.

Eta errien arteko lankidetasunean, munduko ekonomiaren arloetan sortzen ziran arazoei, gizartean, jakintzan, gizalegean edo ta giza aldezkoetan⁽¹⁾ konpontzea.

Bai erri ta gizon/emakumearen oiñarrizko eskubideak berotu, aurrerantzean benetan lortu dagigun danok, demokrazi on baten ezarri edo oiñarritutea.

O.N.U. erakundeko eskutitz ori, 1.945an Urrillaren 24an sinatu zanean, agintari guztiagaitik erakituta geratu zan erakunde ori.

1.948ko Abenduaren 10an, Nazio Batuetako Giza Eskubidearen Erakundeak antolatuta ta Parisen batzartu ondoren, ogeitamar lege gai argitaratu ziran mundu guztiko Giza Eskubidearen adierazpenerako. Espainiako ordezkariak be, artean zirala.

1.19. Eskubideak eta Legeak.

O.N.U.k argitaratu ebazan giza eskubideen aldarriketa orreik, izadi onek daukazan berezko legeetan oiñarrituta dagoz, eta oso pozgarria da ori.

Adibidez: Bere zerrendako 28n lege gaiak diño, *emakume gizon guztiak, eskubidea daukiela, gizarte ta erri artean antolamentu onbat ezarri daitela*, eskatzeko bere bidez, *damon askatasunezko eskubideak bete dagiezan*, aldarrikapen oneitan esaten dan lez.

Zer gertatzen ote da baiña, gaur egun askatasunezko eskubide guzti orreik ankazgora agertu daitezcan?. Ikustea baiño besterik ez dago, Erroma ta Godotarren menperatzaille asmakizunezko legeakaz, katoliko merkantil zaleek etenbageko alegiñean, XVIII-XIXn gizaldian ezeren begirune barik eta norkerizko guda indarrez batzangotuta Europako erri guztiak laterritu bezala, eta oraindiño bertan daukaguz, berezko legeen aurkakoak dirala ukatu ezinik.

Edestiari apur bat begituta errez ikusten dogu, Erroma godotar Katoliko edo orokortasunaren batzangotasunezko asmakuntza bertan daukagula, errigizarteak indarkeriz batzangotuta aurrera eroateko, gaurko Laterrietan daukagulako euren adierazpena.

Bai ta, Zezarrek, erri ta gizarteak banandu daitezcan, maltzurtasunezko guzur bidetik ibili ebazan veni, vidi, vici esan orreik, erdira zaleko Laterritarrai, gaur egunean be, argi ikusten jakiela, erritarren berezko arrazoiak lokaztu baño, kakaztu egiten dabezelako.

Gaur ori ikusteko, ez da iñora joan bear, euskaldunak erri bat garela esan orduko, espainitar erdira zale oneik, eurak nazioaren nazioa dirala esaten dabe.

Eta ez ote dabe esan gura *norkeri orregaz*, eurak Jainkoaren parekoak dirala ?.

Nik ezagutu neban baten batek, geiegizko neurrigabekeria zala esango eban burua altzau barik.

Gure euskaltasunezko aztura bidetik, atzeman emon geuntson aberritasunaren itz zentzuari, berezko jaiotzaren mailla bat dala erakutsiz, eta ez dago gure almenean zentzuzko zeaztasun orreitan aldatzeko aukerarik, berezkotasunaren adierazpenak diralako.

Gaur, zer esango ote leuke Estatu Batuetako lendakari izan zan Trumanek eta bere denborako gizarteak, naita berak 1.945an Dagonillaren 6an Japoneko Irosiman ta Nagasakin atomozko leergailluak bota, gaur giza eskubideekin sortzen jakunakaz ?.

Bera eta bere denborako gizarteak, ez ote ziran gizartearen eskubideak sortu eben aundienetariokoak, eta gudan be, geien ausartu ziranak ?.

Zer gertatuko ote da Ameriketn ?.

Dana dala, gaur Munduan ikusten doguna eta espaini onetan batez be, sasijainkotasunezko menperatzaille zaleak, gero ta geiagoko urduritasunean sartuta dagozela, aldarrikatu egiten dabezan sasiarrazoi orreik, ezin dabezelako egiaren arrazoizko maillan eutsi.

Euren esanetan, trikimailluzko arrazoi asko ibiliko dabez, guzurak, guzurrezko sasiarrazoiekaz izan ezik, ezin diralako itxura baten ulertu.

Orregaitik gagoz belaureraiño sartuta, sasiarrazoizko lokatz artean.

Laterrien egokitasunak, arrazoizko itzarmen edo elkargo bidetik lortu bear dira eta azkera orreitan, goragoko elburu nagusiak lortu.

Sekula indarkeriz edo larderialdetik, unetxo orreitan, jaioten garan erri ta gizartearen eskubideko ardurak ezereztu egiten diralako.

Ekintza orregaitik, gaurko Europaren gizarteak, arduragabekeria egokituta dago.

Eta bide orreitatik gaurko laterriak, ez dira zentzunezkoak.

Orregaitik len bait len urten bear dogu atzeritarren jaurkintzezko bide orreitatik, Europako errigizarteak euren senean egokituta, bakez eta ekanduzko neurri aundi baten bizi gaitezcan.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.014'an Otsaila'ren 26'an

(1) Giza-aldezkoetan edo gizalegean = *humanitarismo*.



Euskeraren Erri Akademia
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org